# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-10-09
EGUBAKOITZA
655. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

## 200 lagun pasak jardungo dute arineketan Arrasate-Oñati lasterketan | 27

## Urrian Aretxabaletako bidegorriko lanak hasiko dituzte | 18

Dantza bikote bergararra onenekin lehian | 32



Metal detektagailuekin kalte ugari egin dituzte Eskoriatzako Atxorrotx mendian | 22



Zubiria-Amurua ama-semeak kantuan Aretxabaletan | 31



Antonia Mateo, Mertxe Monge eta Rosi Ibañez etxeko egongela-sukaldean.

# DENON EGUNEROKOTASUNA

Atzegik aurtengo sentsibilizazio kanpaina aurkeztu du | 2

JAGOBA DOMINGO

# Puntako kultura konpainiek Antzuola izango dute topagune

Artekale Egunak hainbat eratako ikuskizunez beteko du herria urriaren 18an, domeka | 30




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Mikel Gonzalez de Martin 'Gontxa'-rekin berbetan
- Nagusiak ikasle

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## SINADURAK

JUAN MARTIN ELEXPURU | 7
7 | ARANTZAZU EZKIBEL
JON OLIVARES | 15
17 | LUKENE IGARTUA
MIKEL ARROIABE | 18
24 | ANDERE ARRIOLABENGOA
IDOIA ETXEBERRIA | 40

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 9 | KIROLA 26 | KULTURA 30 | ZURE RAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38



# Aurreiritziak apurtzeko gonbita egin du Atzegik

Aurtengo sentsibilizazio kanpaina aurkeztu dute oraingo astean



**MERTXE MONJE**
56 URTE
ARRASATE

### "Zailtasunak dituztenei laguntzen diet nik"

"Gehien-gehien siesta egitea dut gustuko. Eta baita puzzleak egitea ere. Puzzle bat dut nire gelan, eta askotan ibiltzen naiz hura egiten. 13 urte daramatzat hemen bizi izaten. Lanari dagokionez, berriz, Garaguneko zentrora joaten naiz (Arrasate) tailerrak-eta egitera. Gauza mordo bat egiten dut han! Baina, batez ere, hara datorren jendeari laguntzen ibiltzen naiz, zailtasun handiagoak dituztenei laguntzen".



**ANTONIA MATEO**
45 URTE
ZUMARRAGA

### "Lan handia egiten dut etxean eta Garagunen"

"Harreragile lanak egiten ditut gure etxean. Zazpi urte daramatzat hemen bizi izaten, eta lan handia egin behar izaten dut! Batez ere, telefonoa hartzea da nire zeregina: telefonoz deitzen dutenei ematen diet arreta, azalpenak... Bestalde, Garaguneko zentrora joaten naiz, eta han ere egiten dut lan. Idazkari laguntzaile ibiltzen naiz han. Gutunak hartu eta eraman... Han ere oso lanpetuta ibiltzen naiz, bai".



**ROSI IBAÑEZ**
63 URTE
BEGOÑA

### "Bizeko merkataritzaren saltokian egoten naiz"

"Begoñara urtero joaten naiz egun batean; begira, lepotik dut zintzilikatuta hango Ama Birjina! Eta Athleticekoa naiz. Bestalde, Eroski hipermerkatuan dagoen bidezko merkataritza saltokira joaten naiz Kristinari laguntzera. Lepokoak, belarritakoak... gauza asko daude han saltzeko, baina, batzuetan, ez da jende askorik etortzen. Eta egubakoitzetan azoka txikira joaten naiz Anari saltzen laguntzera".

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

"Aretxabaletan erabat integratuta daude. Etxea udalerri zentro -zentroan dago, eta, adibidez, Belar Meta dendakoarekin oso harreman ona dute. Erosketatxoak hor egiten dituzte noizean behin batzuek. Tabernetakoarekin ere oso harreman ona dute, farmaziakoarekin... Hartu-eman asko dituzte herriko jendearekin. Beste herritar batzuk bezalakoak dira. Eta nahiz eta halako etxebizitza bat izan, eta beste batzuek ez ditugun laguntza behar batzuk izan, saiatzen dira, eta gara, gizartean integratutako ekintzetan parte hartzen, ez bakarrik eurei zuzendutako gauzetan: kiroldegira joaten dira, batzuk *zumba*-ra doaz, pintura eskoletara ere bai...".

Horietxek dira Atzegik (adimen urritasuna duten Gipuzkoako pertsonen elkartea) Aretxabaletan dituen bi etxebizitzetako hamasei bizilagunen bizimoduaren zertzelada batzuk.

Eneritz Salsamendik, etxebizitza horien arduradunak, esan ditu, erakusteko gehienok uste baino bizimodu arruntagoa eta ohikoagoa egiten dutela adimen urritasuna dutenek, eta, askotan, estereotipoetan oinarritzen direla haien gaineko iritziak eta pentsamenduak.

## Estereotipoak apurtu nahian

Hain justu ere, abiapuntu hori hartuta, *Ezetz asmatu nolakoa den nire bizitza* leloa duen kanpaina aurkeztu du Atzegik asteon; astelehenean Donostian eta atzo iluntzean (eguena) Aretxabaletan. Helburua da gizartean dauden estereotipo horiek apurtzea: "Kolektibo honen inguruan aurreiritzi eta estereotipo faltsuak existitzen dira, bai euren jarrerari dagokionez (...) baita euren bizimoduari dagokionez ere", adierazi zuen Josean Idoetak, Atzegiko presidenteak.

## "Ez dute lanik egiten..."

Estereotipo edo aurreiritzi horietako batzuk ere aipatu zituen Atzegiko presidenteak. Batetik, jarrerarekin lotutakoak: "Maitagarriak dira, haurrak bezalakoak dira, ez dute iritzi propiorik (...)". Bestetik, bizimoduarekin lotutakoak: "Ez dute lanik egiten, ez dakite ondo pasatzen, ez dute lagunik..."

## Filiak eta fobiak

Aretxabaletan bizi direnekin tartetxo bat partekatzea besterik ez dago estereotipo horiek hankaz gora jartzeko. Ahal dutenak lanera joaten dira –zortzi gizonetatik bost eta zortzi emakumeetatik lau, Gureak-ek Arrasaten duen tailerrera–. Eta zailtasun handia-




goak dituztenek ere ondo okupatuta izaten dute euren denbora; Garaguneko tailerretan, adibidez. Hortik aparte, filiak eta fobiak, gustuak eta disgustuak… gainontzekoon parekoak izaten dituzte (adibideak ezkerreko inkestan).

Baina, zoritxarrez, arrazoi bat dela edo bestea partekatzeko denborarik ez dela izaten-eta, Atzegik erabaki du ikusaraztea edo ikusarazten laguntzea pertsona horien bizitza arrunta.

**Eskoletan galdetegiak**

Zeregin horretan laguntzeko, galdetegi eta guzti dator Atzegiren aurtengo kanpaina, hain justu, adimen urritasuna duten pertsonen gaineko ezagutza maila neurtzeko. "Modu dibertigarri eta ludikoan etxebizitza, lan edo aisialdiari" buruzko galderei erantzutea da proposamena. Webgunean daude galdetegiok: *Atzegi.org/horrelakoadanirebizitza*.

Horrez gain, eskoletan hitzaldiak egingo dituzte: "Eskoletarako galdetegiak sentsibilizazio erreminta bikaina izango direla uste dugu, eta sare sozialetan parte hartzera gonbidatzen duten pegatinak egin ditugu bertan banatzeko". Gainera, *#HorrelakoaDaNireBizitza* traola sortu du Atzegik, eta adimen urritasuna dutenei argazkiak bidaltzeko eskatuko diete, euren bizitza nolakoa den ikusarazteko helburuarekin. Argazkiak Twitter, Facebook eta Instagram bitartez bidal daitezke, edo Whatsappeko 609 70 37 06 zenbakira.

**ENERITZ SALSAMENDI** | ETXEKO ARDURADUNA

## "Langile askok bezala, egun osoa etxetik kanpo pasatzen dute guztiek"


UBANE MADERA

Hamasei pertsona bizi dira Atzegik Aretxabaletan dituen etxebizitzetan. Bi taldetan: gizonezkoak (zortzi) goiko solairuan eta emakumezkoak (beste zortzi) beheko solairuan. Eneritz Salsamendi arduradunak eman ditu xehetasunak:

**Askok uste baino bizimodu arruntagoa egiten dute, beraz...**

Bai. Zortzi gizonetatik bost eta zortzi emakumeetatik lau lanera joaten dira, Gureak-en tailerrera. Horiek 08:30erako bertan egon behar dute, eta 17:00etan irteten dira lanetik. Beraz, langile askok bezala, eguna etxetik kanpo pasatzen dute. Eta berdin beste guztiak. Izan ere, beste guztiak Garaguneko tailerretara joaten dira. Eta asteburuetan, berriz, poteora, kuadrillan paseatzera, erosketak egitera... joaten dira. Edo furgoneta erabiltzea tokatzen bazaie —txandaka erabiltzen dute—, Gasteizera zinemara...

**Nongoak dira?**

Elgeta, Zarautz, Eibar, Eskoriatza, Bergara... Guztiak ere 18 urtetik gorakoak dira. 22-23 urtetik hasi eta 63 urterainoko bizilagunak daude.

**Ze baldintza bete behar dira hemen bizi izateko?**

Interesa duenak nork bere udalerriko zerbitzu sozialekin harremanetan jarri beharko du, eta haien bitartez eskaera aurkeztu Gipuzkoako Foru Aldundiari. Izan ere, Diputazioak erabakitzen du plaza eman edo ez. Behin plaza ematea erabakitzen badu, pertsona horrek Atzegiko bazkide izan behar du —momentuan bertan ere egin daiteke—, eta, jakina, adinez nagusiak izan behar dute.

**Hau, beraz, euren bizitokia baino gehiago, euren etxea da.**

Euren etxea da. Jakina, bestelako behar mota batzuk sortzen bazaizkie aurrerago, beste zerbitzu mota bat eskatzen duten beharrak, beste norabait joan beharko dute, edozein pertsonari gerta dakiokeen moduan: mendekotasun maila handitu... Egoitzara joaten dira halakoak. Ba hauek ere berdin.

# TTIP: komertzio askeaz harago

**KOMUNITATEA GOIENA** | MUNDUKIDE | ARRASATE

TTIP, CETA, TISA zein komertzio askeko beste hainbat tratatu geratzea eskatuz, mosaiko bat egingo da Donostiako Zurriolako hondartzan bihar, zapatua, 12:30ean. Bertan, argi eta garbi adierazikio dugu hitzarmenekiko dugun desadostasuna *TTIP EZ!* letrak irudikatuz. Era berean, Iruñean, Gasteizen eta Bilbon ere gauzatuko da.

Deialdi horrekin bat egin du Euskadiko Gobernuz Kanpoko Koordinatzaileen Elkarteak, eta, elkarteko kide garen heinean, Mundukidek ere bai.

Transatlantic Trade and InvestmentPartnership TTIP, Europako Batasunaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsio Hitzarmena, EBren eta AEBen arteko akordio bat da funtsean. TTIPren aurkako herri ekimenak Europan 3.000.000 sinadura batzearekin batera, TPP (Trans-pacificPartnership), TTIPren parekide bezala ikus daitekeena sinatu dute AEBetako Gobernuak eta Ozeano Bareko hamaika herrialdeek.

**Herritarraren botere galera**

Arantzel edo komertzio askeaz harago doan akordio horrek sortuko lituzkeen ondorio nagusiak legedien harmonizazioa eta gobernuen eta herritarren botere galera dira. *TTIPri EZ* kanpainak argitaratu duenez, legedia bateratzearen ondorio izan daiteke genetikoki aldatutako elikagaiak gaur egun Europan arautzen dituen legea balio gabe geratzea, adibidez. Bestalde, herrialdeen eta inbertitzaileen arteko gatazkak argitzeko TTIPek proposatzen dituen tresnak gobernuek onartutako legediak atzera bota ditzake. Ondorioz, gutako bakoitzaren botoak balio galera garbia jasango luke, gobernuek lege eta araudiak zehazteko eskumena galduko baitute.

Kapitala gailentzen duen eredua da akordio honen atzean dagoena. Mundukideren balio diren lanaren eta eraldaketa sozialaren bidez, tokiko garapen sozioekonomikoa helburu duen ereduaren guztiz kontrajarria dena. Akordio horrek kapitalaren boterearen eredu izan nahi du, horrek guztiongan sortu ditzakeen ondorio jada ezagunekin. Hazkunde ekonomikoaren logikak eta mundua dominatzen duen irabazien handitzeak aberastasunaren kontzentrazioa dakar Europako Batasunean, eta ikuspegi globalean iparraldearen eta hegoaldearen artean desberdintasunak handitzen ditu.

# Azaroaren 30era arte har daiteke gripearen kontrako txertoa

► Astelehenean hasi ziren aurtengo kanpainarekin txertoak ematen

► Udalerrietan bertan har daiteke, baita etxean ere, aldez aurretik abisatuta

**U.M.** | DEBAGOIENA

Astelehenean abiarazi eta azaroaren 30era arte iraungo du gripearen prebentziorako kanpainak aurten.

Aurreko urteetan bezalaxe, txertaketa 65 urtetik gorako guztientzat izango da, eta baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoentzat eta haurdun daudenentzat ere. Osasungintzako profesionalek txertatzearen garrantzia azpimarratu dute, gripearen ondorioz sor daitezkeen konplikazioak saihesteko.

**Kontaktu fisikoa saihestu**

Txertoa hartu beharrik ez duten herritarrei dagokienez, berriz, Debagoieneko Ospitaleko Itziar Muñoz medikuak gogora ekarri du gripea, katarroa eta antzerakoak saihesteko, birusaz kutsatuta dauden lagunekin kontakturik ez dela izan behar, ahal den kasuetan, jakina. "Kontaktuarekin esan gura dut muxuak eman, eskua eta, orokorrean, edozein motatako kontaktu fisikorik ez dela izan behar. Izan ere, egia esanda, askoz gehiago ezin daiteke egin. Gripea eta ohiko katarroa kutsatuta dauden pertsonen arnasbideetatik eratorritako tantekin kontaktua izanda transmititzen dira", esplikatu du.

**"Bizimodu osasuntsua"**

Muñoz medikuak, era berean, azpimarratu du ona dela "fruta eta berdura freskoak jatea, jarduera fisiko moderatua egitea, estres emozionala saihestea eta, orokorrean, bizimodu osasuntsu eta orekatua" izatea.

**Txertoa behar ez, baina nahi bai**

Bestalde, txertoa hartu behar duten arrisku taldeetatik kanpo dagoen norbaitek txertoa hartu nahiko balu, Debagoieneko ESIko medikuak gogora ekarri du txertoa jartzearen helburua dela, hain justu ere, bestelako gaixotasunengatik ahulduta dauden pertsonen infekzioa saihestea. Hori horrela, "bestelako gaixotasunengatik ahulduta dauden pertsonekin kontakturik ez duten pertsona osasuntsuek txertoa hartzeak bakarrik balio du birus horri dagokion infekzioa saihesteko, eta ez bestelako arnas birusengandik saihesteko. Eta, hasiera batean, pertsona osasuntsuetan, gripea ez da txerto baten bitartez saihestu behar den zerbait, ez delako larria".

**Antibiotikorik ez**

"Gripeak eta ohiko katarroek atseden hartzea eskatzen dute, hidratazioa eta tratamendu sintomatikoa. Baina ez dago prozesuaren edo gaixotasunaren iraupena laburtzeko tratamendurik", azpimarratu du. Eta gaineratu du biak ala biak izaten direla birusek eragindako infekzioak, eta beraz, "tratamendu antibiotikoa ez da eraginkorra".

Bukatzeko, adierazi du gripea eta arnas birus asko errazago kutsatzen direla giro tenperatura baxuekin. Edozein modutan, azpimarratu du horrek ez duela zerikusirik norberaren gorputzaren tenperaturarekin. Eta birusaren sintoma klinikoak azaldu baino lehen igartzen den gorputzeko tenperaturaren jaitsiera dela pertsona infektatzen denetik lehen sintomak azaldu arte igartzen diren sintomak.

# Donostia 2016 Arrasateraino ere iritsiko da, ekitaldi eran

**TXOMIN MADINA** | ARRASATE

Hilabete batzuk besterik ez da falta Donostia Europako kultura-hiriburu bihur dadin. Azken txanpan daude, beraz, erakundeak eta antolatzaileak urte berriarekin Gipuzkoako hiriburua mapan kokatzeko. Herritarren aurrean ere aurkeztu gura dute proiektua, eta martitzenean Arrasaten egin zuten aurkezpena. Xabi Paya kultur zuzendariak aurreratu duenez, hilabete bukaeran aurkeztuko dute egitarau xehatua.

**Emusik-en egoitza txikia**

Edozein modutan, Donostia 2016k Debagoienean, eta, zehazki, Arrasaten, isla izango duela ere adierazi zuen Payak. Hala, besteak beste, eta Lankirekin elkarlanean, kooperatibagintzaren gaia landuko da; Donostia 2016ko mendi ibilbideak Garagartza auzoan geldialdia egingo du, eta, beste adibide pare bat jartzearren, antzerki foruma egingo da eta Emusik izena duen jaialdiaren egoitza txikietako bat Arrasate Musikal izango da.

# Autobusak egongo dira Nagusien Martxarako

**IDOIA DAVILA** | DEBAGOIENA

Urriaren 17an Pasai Donibanen ospatuko den Nagusien Martxa dela eta, Debagoieneko pentsiodunen lehendakariak bi autobus antolatu ditu hara joateko.

Lehenengo autobusa 08:15ean irtengo da Gatzagatik, eta Eskoriatzako Akeita geralekutik pasako da 08:25ean. Aretxabaletako Azben izango da 08:30ean, eta 08:40 inguruan Arrasateko Garibai eta Musakola geralekuetatik pasako da. Bigarren autobusa, aldiz, Oñatiko Correostik irtengo da, 08:30ean, eta 08:45ean Bergarako geralekuan izango da.

Toki Argi zahar-etxekoek Musakolan hartuko dute autobusa, eta Garibain Uribarrikoek. Elgeta eta Antzuolakoek Bergarara joan beharko dute.

Nagusien Martxa horretan, bederatzi kilometro inguru ibiliko dira lau lagunez osatutako patruiletan. Horren ostean, bazkaria eta dantzaldia izango dute.

Herrietarako bueltako autobusak 19:00 aldera irtengo dira.

# Aranzadi Ikastolak pozik hartu du Kilometroak 2016 jaiaren lekukoa

Urriaren 2an izango da, baina hasiera ekitaldia aurtengo azaroan egingo dute

ARANTZAZU EZKIBEL | USURBIL

Bergarako Aranzadi Ikastolako ordezkariek domekan jaso zuten Kilometroak 2016 antolatzeko lekukoa, Usurbilen, Udarregi Ikastolako ordezkarien eskutik, Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiaren ospakizunean.

Hirugarren aldia izango da bergararrek jaia antolatuko dutena —aurretik, 1991n eta 2007an antolatu zuten—, eta "gogor lan" egiteko borondatea erakutsi dute. Are gehiago, Aitziber Lopez de Aretxaga presidenteak eta Ane Barruso zuzendariak lekukoa hartu ondoren adierazi zuten dagoeneko lanean hasiak direla 2016ko urriaren 2an Bergaran egingo den Kilometroak jaia antolatzen.


Barruso, Aranberri, Lopez de Aretxaga eta Egibar, lekukoarekin. | ARANZADI IKASTOLA

**Irudia, leloa eta denda**

Horren adibide da jaiaren aurkezpena hilabete eskas barru egingo dutela: azaroaren 7an, zapatua. Hain justu ere, egun horretan Kilometroak 2016ari hasiera emango dion ekitaldi berezi baten aurkeztuko dituzte Kilometroak 2016ko irudia, leloa eta arropak, eta hurrengo egunean (azaroaren 8an) irekiko dute denda.

**Auzolanean**

Aranzadi ikastolako ordezkariek esan zuten aurki aurreratuko dituztela datorren urteko Kilometroetako helburuak, asmoak eta urtean zehar egingo dituzten ekitaldiak. Kilometroetako ibilbidearen gainen lanean hasiak direla ere adierazi zuten. Eta gaineratu zuten urte osoko ekitaldi eta ekimenak eta datorren urteko urriaren 2ko jaia herriarekin auzolanean antolatu nahi dituztela.

**Hirugarren saria, Usurbildik**

Bestalde, baina Kilometroak jaiarekin lotuta, Usurbildik hurrengo jaia antolatzeko lekukoa ekartzeaz gainera, Aranzadi Ikastolako ikasleek jai horren baitako ikastolen ikasleen artean egin ohi duten lehiaketan, erronkan, hirugarren saria eskuratu zuten.

## Baztanen ere euskaraz hasi, hezi eta bizi nahi dutelako

KOMUNITATEA GOIENA | EUSKARA ELKARTEAK | DEBAGOIENA

Urriaren 18an (domeka) Nafarroa Oinez, Nafarroako ikastolen jaia, ospatuko da Elizondon, aurten *Hamabortz, Ama bat* lelopean.

Bada, Debagoieneko euskara elkarteok autobusak antolatuko ditugu Elizondoraino eroso eta merke joan ahal izateko.

Txartelak eskuragai dituzue honako leku hauetan: Aretxabaletako Loramendi euskara elkartean, Bergarako Jardun euskara elkartean eta Arrasateko Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkartean, urriaren 15era arte (eguena). Txartel arruntaren prezioa 12 euro da; eta 10 euro, berriz, euskara elkarteotako bazkideentzat.

Autobusa Aretxabaletako Azbetik irtengo da, 08:45ean; Arrasateko Garibai etorbidetik, berriz, 09:00etan; eta, azkenik, Bergarako autobus geltokitik, 09:15ean.

Baztanen ere euskaraz hasi, hezi eta bizi nahi dutelako, zatoz Nafarroa Oinezera!

# Euskaraz berba egiten laguntzeko: Mintzapraktika egitasmoa abian

Izen-ematea zabaldu dute eskualdeko euskara elkarteek; baita Elgetan ere, lehenengo aldiz

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

"Hizkuntza ohituretan eragitea, eta hiztun berriari, euskaraz berba egiteko zailtasunak dituenari… bidea erraztea eta euskal hiztun bilakatzea". Helburu hori duen Mintzapraktika izeneko egitasmoaren aurtengo edizioa abiarazi dutela iragarri dute asteon Arrasateko Zaharberri, Bergarako Berriketan, Eskoriatzako Berbalagun eta Aretxabaletako Barriketan taldeetako koordinatzaileek.


Euskara elkarteetako eta udal ordezkariak Kulturate kanpoan. | MIRARI ALTUBE

**Euskaraz egiteko aukerarik ez**

Izan ere, euskara maila hobetu gura dutenak edo euren inguruan euskaraz berba egiteko aukerarik ez dutenak euskaraz berba egiten dutenenekin elkartu eta berba egitea erraztendu en proiektua da Mintzapraktika.

*Zurekin hitz egin nahi dut* da aukeratutako leloa. Izan ere, Mintzalagun egitasmoetara erakarri eta parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrak: "Praktikatu behar dutenei laguntzeko".

Hori horrela, zeregin horretan ezinbesteko bidelagun diren laguntzaileei dagokienez, hau da, euskaldun osoei dagokienez, euren denbora, laguntasuna eta motibazioa eskainita momentu atseginak pasatzen dituztela gaineratu zuten Arrasateko Kulturate kanpoko aldean egindako aurkezpenean.

**Lauzpabost laguneko taldeak**

Taldeka jarduten dute Mintzapraktiketan. Hain justu ere, Berba taldea lau edo bost lagunek osatzen dute. Eta baldintza bakarra dago: astean ordubetez elkartu eta euskara praktikatu. Hori egin daiteke paseatzen dabiltzala, kafea hartu bitartean, kirola egiterakoan… Horretarako, euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea komeni da. "Azken urteotako inkestek frogatu eta azpimarratu dute tresna interesgarria eta eragingarria dela euskaraz funtzionatzen duten harreman sareak eta ohiturak sortzeko", jakinarazi dute koordinatzaileek.

Bi motatako jarduerak antolatzen dituzte Mintzapraktika programan: astean behineko taldeak eta hilabetean behineko saio osagarriak: ikasturte hasierako afaria, meriendak, irteerak, ikastarotxoak, Mintza Eguna… "Animatu! Lagun giroan astean ordubete atsegina pasatzeko beste modu bat duzue eta!", diote.

**Elgetan lehen aldiz egin guran**

Partaide izan gura dutenek edo argibide gehiago gura dutenek antolatzaileengana jo dezakete, herrika: Arrasaten, AED elkartea: 943-77 12 28; Bergaran, Jardun elkartea: 943-76 36 61; Aretxabaletan, Loramendi elkartea: 943-77 09 70; eta Eskoriatzan, udaletxea: 943-71 46 88.

Bestalde, Elgetan lehen aldiz gura dituzte taldeak sortu, eta harremanetarako bidea eman dute: udaletxea (edo Topagunea): 943-76 80 22. Eta Oñatin ere badira taldeak.


Lasa, Mankomunitatean. | J.B.

**Imanol Lasa**
Finantza diputatua

## "360 lagun gutxiegi dira 20 milioi euro nola inbertitu erabakitzeko"

J.B./M.T. | ARRASATE

Astelehenean Arrasateko Garapen Agentzian izan zen Imanol Lasa foru diputatua, Debagoieneko partaidetza aurrekontuen gainean antolatu zuten bilera irekian.

**Zein izan da Debagoieneko bilera irekiaren helburua?**

Gipuzkoako Foru Aldundian talde berri bat dago, eta aurrekontuak nola kudeatu nahi ditugun azaltzera etorri gara. Datozen urteotan parte-hartze prozesuek izugarrizko garrantzia izango dute.

**Aldaketak egingo dituzue metodologiari dagokionez. Zeintzuk?**

360 pertsonak parte hartu dute Gipuzkoan, prozesu zabal eta ireki batean, eta hurrengo urterako ehun bat proiektu atera dira; baina uste dugu jende gutxiegi dela 20 milioi euro nola inbertitu behar diren erabakitzeko. Orduan, ikusi dugu zer egin den ondo eta zer hobe daitekeen. Adibidez, teknologia gutxi erabili dela ohartu gara. Ondorioz, etxetik parte hartzea ahalbidetuko duen plataforma bat jarriko dugu martxan.

**Zein da zure balorazioa Arrasateko bilerari dagokionez?**

Oso positiboa. Bailaran hobetzeko dagoenaz hitz egitea beti dago ondo, eta ideia berriak ongietorriak izango dira beti. Egia da, baita ere, ezin izan dugula zehatz-mehatz esan zenbait proiektu noiz garatuko diren, eta jendeak zehaztasun handiagoa eskatzen duela. Denbora laburra daramagu Diputazioan, eta oraindik lanean gabiltza.

**Parte-hartzea bultzatzeko joera horiek politika aldatzen dabilen seinale dira?**

Krisi ekonomikoak guztioi balio eta printzipioak aldatu dizkigun neurrian, politika egiteko erak ere aldatu behar dira. Alde batetik, herritarren exijentziak handiagoak direlako, eta bestetik, arduradunok ere politika beste era batean ulertzen dugulako.

# Errealitatea gertuagotik ezagutzeko, Olano Bergaran

## Hamabostean behin Gipuzkoako herri batera gerturatu gura du Gipuzkoako ahaldun nagusiak

**XABIER URZELAI** | BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundia lurraldera gerturatzea eta, bereziki, herrietako agintari, herri ordezkari eta enpresa, erakunde edo taldeetako ordezkariekin batzartzeko helburuarekin, Markel Olano ahaldun nagusia Bergaran izan zen joan den egubakoitzean.

Ordubetez batzartu ziren ahaldun nagusia eta Ainhoa Aizpuru, Sustapen Ekonomikoko diputatua, Bergarako alkate Juanje Alberdirekin.

**Hamabostean behin**

Ahaldun nagusiaren asmoa da hamabostean behin Gipuzkoako herri batera gerturatzea, eta bertako ordezkariekin herrian dituzten proiektuen berri jasotzea.

Adibidez, Bergaran, Mizpirualde egoitzari buruz jardun zuten, TTT enpresaren eguneroko lana ikusi zuten eta, adibidez, Enpresare elkarteko ordezkariekin lan-saioa egin zuen Markel Olanok.



Markel Olano, Bergaran, egubakoitzean. | XABIER URZELAI

## Indarkeria matxistak erailda

*Emakumeei erasorik ez* leloarekin, Oñatin, Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran, besteak beste, elkarretaratzeak egin zituzten herenegun, eguaztena. Beste behin, indarkeria matxistaren ondorioz egunotan Bizkaian eta Lapurdin bi emakume erail dituztela salatzeko .




TXOMIN MADINA

## Askapenaren aldeko martxara joateko autobusak izango dira

Arrasateko Askapenak jakinarazi duenez, autobusak egongo dira astelehenean, urriak 12, Hispanitatearen Egunarekin batera, Iruñean egingo den Herri Libreen Martxan parte hartzeko. 09:00etan irtengo da, Garibaiko autobus geltokitik, eta 18:30erako bueltatuko dira.

Izena ahalik eta lasterren eman beharra dago. Irati tabernan egin behar da hori. Eta prezioei dagokienez, langabeek bost euro ordaindu beharko dute eta langileek, berriz, hamar euro.

Martxa horren helburua da Askapenari babesa ematea.

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

**Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Aditu Tituluko gogoeta eta eztabaida-saioak egin ditu Mondragon Unibertsitateak. Hauxe da saioetako baten laburpena.**

# Olatu berrasmatu

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Kultura, hezkuntza, hizkuntza, literatura, antzerkia... sorkuntza. **#Ametsa**-ren bidean Urbian gaudela dio Jon Sarasuak. Arantzazun hasi zen bidea, duela lau hamarkada, eta Edorta Jimenezek "indar kosmiko" deitu dion **#olatu** batek ireki zuen. Fondan dago euskalgintza, Aizkorrirako aldatsa gogorra dela jakinda eta, gainera, behe-laino artean, gogoetan. Sarasuaren simil mendizaleak irekitzen du Euskal Kulturgintza Transmisioaren (**#EKT**) bueltan kateatutako gomuta soka. "**#Aukera** historikoa" ikusten du Kike Amonarrizek egungo **#katebegia**-n, baikor zein erronka gose, **#belaunaldi** berria hemen dela ohartarazita. Gal edo irabaz, "**#DesafioExistentziala**" da oinarrian, Sarasuari berbak hartuta.

**Gal edo irabaz**

Belaunez belaun, Edorta eta Irati Jimenez, Orio ekoiztetxeko Martin eta Unai Ibarbia eta Elkar argitaletxeko Joxemari eta Gexan Sors. Aita-alaba idazleek euskal sistema kulturala **#anomalia** dela diote argi eta garbi. "Ez gara normalak", aldarri du oihu gisara aitak. Eta jostari, egunaz jabetuta, "gaua irabazi" behar dela diote, Patxi Zubizarretaren esaldia erabilita. Euskarazkoarekin batera, euskal hiztunak gaur egun apal berean aurkituko du gaztelerazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa, eta **#hautua** gozamenetik egin behar da. Hitz hori bera darabil Ander Lipusek, hautua, berak euskaraz sortzeko **#konpromisoa**-n. Harentzat euskal ikuslea barrutik mugiarazteko bide bakarra da. Soka berari tinko eusten diote ekoizleek ere, tiraka **#normalizazioa**-ren erronka handiaren aurrean. Istorioak, minak, galerak eta pozak transmititu behar dizkiogu elkarri euskaldunek. Edorta Jimenez horrekin dago arduratuta. Historia, *hatxe* larriz, ikusten du kontatu beharra Martin Ibarbiak: "Amerikarrek zinemarekin egiten duten bezala", "historia garaileek kontatu digutelako". **#Estrategia** bera Elkarreko Joxemari Sors aitzindariak, "lehentasunezko **#premia** kulturalak" aipatuz.

**#Berrasamatu** egin behar da olatua. Fabrika daiteke energiarik? Indar kosmiko hori agortuta ere, erronkak badirau.

**SAIO OSOA IKUSTEKO:**
Goiena telebista | Eguena, hilak 15, 22:00.













Ezker-eskuin eta goitik behera: Ander Lipus, Unai eta Martin Ibarbia, Irati eta Edorta Jimenez, Jon Sarasua, Joxemari eta Gexan Sors eta Kike Amonarriz. | GOIENA



LABORAL KUTXAREN GAZTENPRESA EKINTZAILETZA PLANA

25.000 €-rainoko finantzaketa, abalik gabe | LAGUNTZAILEA: European Investment Fund, Lanbide

Finantzaketa honek Europar Batasunaren laguntza du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1296/2013 zenbakidun Araudian (EB), Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Batasunaren Programari ("EaSI") buruzkoan, jasotakoaren arabera ezarritako berme-tresnaren esparruan. Berme hau Europar Batasunak finantzatuta dago, Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Programaren ("EasI") esparruan.

LABORAL kutxa

# Ameriketako euskaldun komunitatearen bizitza dokumental baten islatu dute

Testigantzak eta irudiak jaso dituzte San Frantziskon, 'Enbaxadoreak' lanerako

**ENEKO AZKARATE** | OÑATI

Mondragon Unibertsitateko Oñatiko fakultateko LEINN graduko ikasle talde batek dokumental bat egiten dihardu Ameriketako Estatu Batuetako euskaldun komunitatearen bizitzaren gainean. *Enbaxadoreak* dauka izena. Hilabetez San Frantzisko hirian izan dira testigantzak eta irudiak jasotzen. Bere sasoian harantz emigratu zuten "euskal artzainetatik hasi eta gaur egungo ingeniari eta teknologoetaraino, hango euskal etxeko ekintzak oinarri hartuz".


Dokumentalean agertzen diren lau gazte, pilotan. | 'ENBAXADOREAK' DOKUMENTALA

Loadinn da LEINN graduko ikasleek proiektuari eman dioten izena, eta *Enbaxadoreak* dokumentalaren izena. Bertan, Euskal Herriarekin harremana duten 30 pertsonatik gora elkarrizketatu dituzte. "Haien eguneroko eta istorioak erakutsiz Ipar Amerikako euskal komunitate baten eraldaketa eta bizimodua islatu eta munduaren beste aldeko euskal kulturaren egoera erakutsi nahi izan dugu", diote.

Mota guztietako euskaldunak agertzen dira: edadetuak, umeak, enpresariak… Han jaio eta bizi diren euskaldunen istorioak entzuteko aukera ere badago: "Euskal kulturarekin harremanari eusteko, musean edota euskal dantzan jarduten duten yanki euskaldunak, eta abar".

### Zelan finantzatu aztertzen

Une honetan, finantzaketa moduak aztertzen dabiltza, eta finantzaketa kolektibo edo *crowdfunding* kanpaina bat jarri dute abian proiektua errealitate bihurtzeko. Haiek diotenez, "helburua da dokumentala Euskal Herriko herri eta hirietan erakustea eta bertaratutakoekin eztabaida batean amaitzea, bi ordu inguruko saioak prestatuta". Hain zuzen ere, enpresa pribatuen eta publikoen laguntza eskatzen ari dira, "euskal proiektu horri babesa ematen dioten enpresei dokumentala eta sare sozialetan publizitatea eginda".

Oraingoz, trailerra prest dute, eta proiektuaren gaineko informazioa, laguntzeko moduak, eta abar webgune honetan batu dituzte: *http://karena.eu/proiektua/enbaxadoreak-dokumentala*.


JULIA MONGE

## Emakumeak, gerran, protagonista

*Educación, memoria e historia de las mujeres vascas, lecturas feministas* liburua aurkeztu du Intxorta 1937 Kultur Elkarteak. "Gerran, emakumeak biktima modura azaltzen dira. Liburuan, berriz, protagonista modura azaltzen dira, egindakoagatik", esan du Julia Mongek, liburuaren koordinatzaileak. Emakumeak protagonista izan zireneko historiaren transmisioa hezkuntzan zelan transmititzen den aztertu dute, bide batez. Arrasateko Ttukun liburu-dendan eta Eroskiko prentsa-kioskoan dago salgai, 15 euroren truke.

## 'Kooperatiben kudeaketarako gakoak' kurtsoa antolatu du Mondragon Unibertsitateak

KOMUNITATEA GOIENA |
AZK | ARRASATE

Masiboa, zabala, irekia eta *on line* da, eta ez da ordaindu behar –MOOC deritzon ikastaroa–. Hain zuzen ere, gizarte ikaskuntzan oinarritzen da; hau da, erabiltzaileek eztabaida-foroetan edota sare sozialetan zalantzak argitzen dituzte.

**Ikastaroaren helburuak**

Hauek dira, besteak beste: Arrasateko kooperatiba esperientzia ezagutzea eta hezkuntzaren garrantziaz hausnartzea gizarte eraldaketa prozesuetan.

Eunate Elio eta Leire Uriarte dira kurtsoaren arduradunak. Urriaren 27an hasiko da eta izen-ematea zabalik dago.

GOAZEN JAPONIARA



GOIENA TELEBISTA | MUGA BARIK | GORKA BIKUÑAREN BIDAIA
MARTITZENA, URRIAK 12, 22:00 | EGUAZTENA, URRIAK 13, 19:30

25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## ZABALIK



**JUAN MARTIN ELEXPURU**
goiena.eus/komunitatea/

# Adore barik

Ointxe eztaukat ezetarako adoreik", entzuten genion aittajaunari azken aldera. Herriek ere, pertsonek bezala, gorabeherak izaten dituzte. Aspaldi honetan adoretsu ikusten dugu Katalunia, eta Euskal herria, berriz, motel, adore barik. Eta hori ematen zuela gure sasoirik onenean sartu behar genuela ziklo gogor eta minbera bat itxita.

Orain dela lau urte esperantza handiak piztu ziren. Pausoak alde bakarrekoak izan ziren, estatuarengandik ezer onik ez zetorrela jakinda. Orain Kataluniak bezala. Denbora pasatu da eta ez dakit zeri begira dauden su-iskilu apurrak entregatzeko edo botatzeko eta "de facto" desegiteko dagoena desegiteko. Geure buruarentzat kalte luzapenetan ibiltzea.

**Lehendakariaren alderdia muturra okertzen Kataluniako prozesuaren aurrean**

Kataluniako kasuan ere motel ibili gara independentistak. Hain maitea dugun manifestazio nazional jendetsu bat ere ez katalanei elkartasuna adierazteko. Eskertuko zuten maitasun apur bat.

Lehendakariaren alderdia berriz "nazio forala" txisteratik ateratzen eta Kataluniako prozesuaren aurrean muturra okertzen. Autogobernu handiagoa negoziatu nahi omen du estatu zentralarekin. Eta bitartean estatu zentrala eta alderdiak elkarte autonomoan duen sozio maitea kontzertua eta kupoa kendu nahirik. Eta lehendakaria harritu plantak egiten.

Euskal Telebista, berriz, ezagutzen den teoria antieuskaldun eta gezurtiena bultzatzen *Baskoitze berantiarra* dokumentalaren bidez. Euskaldunak 1.500 urte ei daramagu bakarrik Hegoaldean. Lehen zeltak bizi ziren hemen, eta guk inbaditu egin genituen. Eta ofizioko gure politiko eta intelektualak isilik. Ba!, esango dizute, zer ardura hain aspaldiko gauzak; hemen aurrera begiratu behar da... Ez da oso azkarra izan behar igartzeko zeintzuk erabiliko duten tesi hau gurean independentzia serio planteatzen den egunean.

Eta honaino etorrita, zalantza: zer gara gu, motelak ala iñuzenteak?

## USTEAK USTE

**ARANTZAZU EZKIBEL** | aezkibel@goiena.eus

# Bizitza kameran jasoa

Donostiako Zinemaldian egindako argazki batek zeresana eman du, eta baita zer pentsatua ere. Hesiaren atzean jendetza ikusten da, poltsikokoak eta kamerak eskuetan dituztela famatuei argazkiak ateratzen. Lehenengo ilaran, aldiz, emakume edadetua, aurrean duenari so, bizitza bertatik bertara jasotzen. Irudi hori buruan nuela, Oñatiko jaietako Txantxikuaren jaitsieran zera ikusi nuen: gaztetxoak, kanpandorrera begira egon beharrean, gertatzen ari zenari bizkarra eman eta euren poltsikokoarekin *selfie*-ak egiten, txantxikua atzean zutela. Errealitatea bertatik bertara ikusi eta gozatzea baino nahiago dugu errealitatea digitalean jaso?

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Mimenkadak euskarari

**Karlos Gorrindo Etxeandia**
http://goo.gl/tPFOhr

"Botako naizzz, botako naizelaa, botako naizelaa; ez, ez botaaaa; bai, bai, uzker bat botako naizelaaaa!".

Txiste bat izango ez balitz, negarra eragingo lioke honelakorik entzuteak bere burua euskaradun sentitzen duen edozeini. Aringarri gisa, baina, esan dezadan sei-zazpi urteko haur batek kontatua dela aurreko pasadizoa Euskal Telebistako *Sorgintxulo* saioan. Bihurrikeria linguistiko horren errudunik bilatzen hasi orduko, hobe dut esatea aurretik, baina, nor ez dudan mordoilokeria horren hobendun ikusten. Haurra bera, jakina, entzundakoa eta ikasitakoa baino ez baitu xurgatu eta errepikatzen. Onartu egin behar da, gainera, guraso guztiek ez dutela zuzentzaile lana egiten ibiltzeko ezagutzarik edota gaitasun nahikorik, arrazoiak arrazoi. [...]

Haurraren ikasbidean euskara ondo egiteko arduradun artatzaile-irakasleek badute ardura, zalantza izpirik gabe. Jakin badakigu, baina, direnak eta ez direnak egin ohi dituztela euskararen kalitate minimoa zaintzen eta transmititzen. Esaterako, "Nik maite zaitut edota ezagutzen zaitut" afitxez itsatsiriko hormak ere ez dira nahiko, D ereduan aritu izanagatik ere, gure haur eta gazteen burmuinean txertatzeko ohikeriaz darabiltzaten "asko maitetsut, atzo ikusi notsun" bezalako petralkeriak. [...]

Haurrekin euskaraz eta gurasoen artean gaztelania hobesten dutenek ere badute ardurarik, bestalde.

Euskal Telebistak ere badu ardura eta erantzukizunik, jakina, euskararen presentzia aktiboa bultzatzearen aurkako politika ziztrina daramalako sortu zenetik, diskriminazio positiboarena eraman beharrean.

Euskara normalizatze bidean lanean dihardugunok ere badugu zer esan eta zer aitortu. Lider eraldatzaile ikusezinaren atzetik ari gara azkenaldiotan, euskara noranahiko bilakatuko duena ezinbestean. [...]

Baina hirugarren mailako gastritisa eragiten diguten arduradun handien eta bekatarienak gure herriko erakunde politiko nagusiak dira. Euskara babestuko lukeen legea onartu eta indarrean jartzeko ardurarik ez hartzeak, euskara bigarren mailakoa eta folklorikoa izatea baino ez dakar. Kilometroak bezalako ekitaldi publikoetara joaten direnean baino ez dute aldarrikatzen gobernatzen dauden politikariek euskara zabaldu eta babestu beharraren auzia, euskararen mozorroa jantzita. [...]

Tokiko erakundeak ere ez dira atzean geratzen erantzukizunean. Zehatzago esateko, Urriko Lehen Astelehena dela eta, Gernika-Lumon arraza piriniarra duten abelgorrien erakustaldi eta salerosketan, alkatxofadun esatariak gaztelania aukeratzea azalpenak emateko, baserritarrak eta ikusle gehienak euskaldunak direnean. [...]

Eta bien bitartean, euskararen egoera malkartsuari adabakiak jartzen jarraituko dugu herritar xeheok, errealitate hau aldatuko badugu. Edo okerrago dena, korrontearen kontra igeri egiten jarraituko dugu, izokinak bezala, helmugara iritsitakoan, hartzaren ahutzetan amaitu ahal dugula jakin izanagatik ere.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## DUELA 10 URTE

2005-09-23

### Ibarre urbanizatzeko proiektua onartuta

2005eko irailеko bilkuran, Ibarre auzoa urbanizatzeko proiektua onartu zuen udalbatzarrak.

Lanen aurrekontua 160.000 eurotan ezarri zuten eta Diputazioak hartu zuen bere gain kopuru horren %60; 2.000 biztanletik beherako herriei ematen zaiena.

Umeendako jolasak, 24 aparkaleku eta berdegune txiki bat egingo zituztela iragarri zuten.



Alardeko kideak eskopetekin tiro egiten. | ARTXIBOA

2005-09-30

### Eskopeta berriak erosi zituen Alardeak

Mairuaren Alardearen Elkarteak jaurtigairik gabeko 34 eskopeta erostea erabaki zuen, horiekin arazoak izan zituztelako aurreko urteetan.

Espainiako Barne Ministerioak arau bat onartu zuen eskopeten jaurtigaiaren gainean, eta Alardearen antolatzaileek eskopeta berriak erostea erabaki zuten.

Horrez gain, bazkide berrien bila aritu ziren Alardeko parte-hartzaileen artean.

## DUELA 5 URTE

2010-10-26

### Armarria zalantzan jarri zuten

Armarriaren gaineko prozesu parte-hartzailea martxan jarri zuen orain dela bost urte Antzuolako Udalak.

Diputazioko Kudeatuz programaren bitartez armarrian agertzen ziren hamabi kanoien gaia landu zuten.

Herritarren parte-hartzea ahalbidetu zuten prozesuan.

## HERRITARRAK

ANTZUOLA

**Gurutz Madariaga** Antzuola Kirol Elkartean 27 urte eman ditu Gurutz Madariagak. Kirolzalea eta Athleticeko zale amorratua izateaz gain, sukaldaritzan ere oso gustura ibiltzen da | JOSU BILBAO

# "Jendearendako janaria lasai prestatzen pila bat disfrutatzen dut"

Kirola betidanik maite izan du Gurutz Madariagak, eta Antzuolako futbol taldea sortu zuen anaiarekin batera. Sukaldaritza bere bigarren pasioa da, eta sarritan erakusten du bere trebezia. Oro har, herriko ekintzetan parte hartzea gustuko du.




Gurutz Madariaga, Danok Bat elkarteko sarreran. | JOSU BILBAO

**Herriko ekintzetan parte hartzea gustuko duzu, ezta?**
Bai. Beti izan naiz saltseroa, eta horrelakoa izaten jarraitzen dut. Ez dakit saltsan sartu barik bizi izaten. Beti jendez inguratuta ibiltzen naiz.

**Sukaldari ere ibiltzen zara. Zaletasuna bakarrik da?**
Asko gustatzen zait sukaldean ibiltzea, baina zale moduan. Berdin da 40 pertsonarendako janaria prestatu behar badut. Elkartean eta beste elkarte batzuetan ere egin izan ditut janariak. Herriko jaietako lehiaketetan parte hartzen dut eta Antzuola Kirol Elkartearentzako janaria prestatu ohi dut.

**Zein da zure platerik onena?**
Txahal-masailak saltsan, eta saltsak dituzten janariak, batez ere. Horiek nahiko kontrolatuta ditut. Arrainekin zailagoa da. Legatza, hegaluze-mendrezka edo zapoa labean egiteko gain-gainean egon behar da. Horiek zailagoak dira, kontrol handiagoa behar dutelako. Arkume erreak ere oso ondo ateratzen zaizkit. Ni sukaldean oso serioa naiz. Janariak ondo zaintzea gustatzen zait. Gero, prestatzen den janariaren arabera, bazkaltzera edo afaltzera datozenek itxoitea gustatzen zait. Janariak bere puntuan egon behar du-eta, pasatu barik.

**Egia da sukaldariek gehiago disfrutatzen dutela besteak jaten ikustean?**
Bai, nik lasai-lasai kozinatzen dut, eta pila bat disfrutatzen dut. Gero, agian, ez dut afaltzen, sukaldean usainekin tripa ere betetzen zaidalako. Baina jaten baino gehiago gozatzen dut sukaldean eta, gero, eurek jaten disfrutatzen dutela ikusita.

> "Beti izan naiz saltseroa, eta horrela izaten jarraitzen dut"

> "Athleticeko eta Realeko zaleak partiduak ikusteko elkartzen gara"

**Antzuola Kirol Elkartean urte mordoa eman dituzu...**
Bai; 27 bat urte eman ditut. Fundatzaileak izan ginen anaia eta biok. Mutikoekin poliki-poliki hasi ginen, zale moduan, eta lehiatzera kanpora joaten ginen; Bergarara eta Arrasatera, batez ere. Gero, federatzeko eguna etorri zenean, federatu egin ginen. Aurrera atera genuen taldea.

**Nola ikusten duzu Antzuola Kirol Elkartea gaur egun?**
Antzuolan faltan ikusten dugu bertako jokalaririk ia ez dagoela. 1999an, adibidez, hamaika antzuolar bakarrik jaio ziren, eta hortik talde bat ateratzea oso zaila da. Agian, lau urte ezberdinetakoak batuta ere ez da talderik lortzen. Zulo horretan sartu gara, baina, poliki-poliki, hortik irtengo garela uste dut, 3-4 urtean. Zuzendaritza lan handia egiten ari da. Gutxirekin dabiltza, baina bost talde lortu dituzte. Politena, noski, bertako jokalariak edukitzea da. Iaz 5-6 bat bakarrik ziren Antzuolakoak. Beste guztiak kanpokoak ziren. Baina horrela egin behar izan zen.

**Athleticeko zale amorratua zara. Zer moduz Realeko zaleekin?**
Oso giro ona dago. Gainera, Antzuolan Athleticeko zale asko daude. Gure aitaren aldetik familia osoa Realekoa da, eta anaia eta biok, berriz, zuri-gorriak irten ginen. Ez dago zertan giro txarra egon bi afizioen artean. Izan ere, Antzuolan gauden Athleticeko eta Realeko zaleak elkartu egiten gara partiduak batera ikusteko, nor bere kamisetarekin, baina giroa oso ona izaten da. Hau da, nork bere iritzia ematen du, baina gure artean ez da arazorik egoten.

**Politikan ibilitakoa zara... Nola ikusten duzu gaur egungo egoera?**
Tirabirak egon dira atez atekoarekin eta horrelako beste gauza batzuekin, baina poliki-poliki denon artean adostu beharreko gauza bat dela uste dut. Jose Luis Elkororen hitzak entzun nituenean, arrazoia zuela iruditu zitzaidan. Hau da, herri txikia gara eta ez gaude zatitzeko moduan. Elkartu egin behar dugu, herri txikia handia izan dadin. Urte asko zatituta ibili gara, eta niri horrek pena handia ematen dit. Etorkizunak gazteendako ez du itxura onik, eta zatituta jarraitzen badugu ez dute erraz izango.

**Posible ikusten duzu bateratasun hori gauzatzea?**
Bai; nik hori ezagutuko dudala uste dut. Bestela ez dugu zer eginik. Independentzia nahi badugu, elkartu egin beharko dugu. Berba egin, mahai baten jarri eta nola egin behar den erabaki.

### NIRE HERRIAN

**:) GIROA**

Antzuolan dagoen onena giroa da. Gazteak euren artean elkartzen dira eta adin askotarikoak batera ibiltzen dira. Txikiteoan ibiltzen garenon artean ere berdin gertatzen da. Niri berdin zait 70 urtekoekin edo 20 urteko mutikoekin txikiteoan ibiltzea. Alde horretatik, oso berezia da Antzuola. Oso batuta gaude.

**:( KRITIKAK**

Edozein gauza gertatzen denean, zurrumurruak eta ahoz ahoko kritikak egoten dira, eta pilota gero eta handiagoa egiten joaten da. Gainera, askotan, gezurrak izaten dira. Herri honetan hori ere gertatzen dela uste dut. Jendea kritikatu egiten da, eta ni horren kontra nago. Hori da, nire ustez, herri honek duen alderik txarrena.

# HERRIAK

OÑATI

# Errentan bizi diren gazteendako laguntzak

- Oñatiko Udalaren ekimena da, euren kabuz bizi izatera joateko
- Urriaren 16an bukatuko da eskaerak aurkezteko epea



Oñatiko Kale Zaharra, eguazten goizean. | MAIDER ARREGI

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Zelan alde egin gurasoen etxetik gazteek? Zelan aurre egin etxebizitzek dituzten prezioei? "Jakinekoa da zein den gazteen egoera; horregatik, Oñatiko Udalak ordenantza onartu zuen, eta 2015eko laguntzen artean sartu", jakinarazi du Gazteria teknikari Jon Lopezek. 18 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako laguntzak dira, etxebizitzak errentan hartuta dituztenendako, eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 16an bukatuko da.

**Errentaren erdia**

Uztailean onartu zuen ordenantza, aho batez, udalbatzak, eta helburu bikoitza du: batetik, gazteei euren kabuz bizi ahal izaten laguntzea; eta bestetik, alokairuzko etxebizitzen merkatua sustatzea.

Laguntza eskatzen dutenek, gutxienez, hamabi hilabeteko alokairu kontratua izan behar dute. Eta Udalak ordainduko die, eskatutako baldintza guztiak betez gero, alokairuaren erdia; gehienez, 250 euro hilean. Horretarako, baina, errentaren prezioa ezingo da izan 550 eurotik gorakoa. "Asmoa da laguntza txiki bat, pizgarri bat, ematea gazteei, eta, era berean, hutsik dituzten etxebizitzen jabeak animatzea prezio merkeak jartzera; hala, samurrago alokatuko dizkiete etxeok", dio Lopezek.

**Bete beharreko baldintzak**

Hainbat baldintza bete behar dituzte bai gazteek, bai etxebizitzek. Hain zuzen ere, Oñatin erroldatuta egon behar du eskatzaileak, gutxienez, hamar urtean edo, behintzat, azkeneko bi urteotan. Urteko diru sarrera gordinei dagokienez, gehienez, 28.000 euro izango dira eskatzaile bakarraren kasuan; eta 35.000 euro, berriz, bi eskatzaile edo gehiago badira.

Etxebizitzei dagokienez, Oñatin egon beharko dute guztiek, eta bizigarritasun baimena izan.

Ordenantzan zehaztu dute, gainera, diru laguntzatik kanpo geratuko direla babes ofizialeko etxeak, logelen alokairuak, etxebizitza moduan erabilitako lokalak eta Bizigune programa barruan alokatutakoak. Zehaztasun guztiak jakin gura dituenak uztailaren 8an argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ditu.

**Orain arte sei eskaera**

Udalak 108.000 euro bideratu ditu diru laguntzara, eta guztiendako izango dela dirua uste du Paskual Elustondo kontu-hartzaileak: "Oraingoz, sei lagunek aurkeztu dituzte eskaerak. Baina hurrengo egunetan, epea bukatu bitartean, gehiago iritsiko dira, seguru". Hori berretsi du Gazteria teknikari Lopezek ere: "Ordenantza uztailean argitaratu zen, eta bitartean udako oporrak egon dira. Horrenbestez, azken egunotan esprintean jardungo dute askok", eta gaineratu du: "Gogoan izan behar dute eskaera-orriarekin batera eskatutako dokumentazio guztiguztia aurkeztu behar dutela. Nekagarria izaten da hori eskuratzea, baina ez dago besterik".

Udalaren bulegoetan (Foruen plaza, 1) aurkeztu behar dira eskaerak dokumentazioarekin, eta gero, urriaren 22an elkartuko den batzordean aztertuko dituzte, handik Gobernu batzordera bideratzeko. "Eta horren ostean, laster jasoko dute erantzuna", dio Lopezek.

**DATUA**

**550**

EURO

Ez dute onartuko hilean 550 eurotik gorako errenta duen etxebizitzarik.

**ESANAK**

**"Esprintean jardungo dute askok azken egunotan"**

JON LOPEZ | GAZTERIA TEKNIKARIA

**ESKATZAILEEK BETETZEKOAK**

- 18 eta 30 urte artean izatea.
- Ez izatea jabetzan etxebizitzarik.
- Etxebizitza horretan erroldatuta egotea.
- Oñatin erroldatuta egon izana, gutxienez, hamar urtean edo azken bi urteotan.
- Diru sarrera gordinen muga: 28.000 euro urtean, eskatzaile bakarra bada; eta 35.000 euro, bi eskatzaile badira.
- Kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa 601,10 eurotik beherakoa izatea.
- Udal zerga eta tasa guztiak egunean izatea.
- Onuradunaren eta errentariaren artean familia-loturarik ez izatea.

**ETXEBIZITZEK BETETZEKOAK**

- Oñatiko udalerrian kokatuta egotea.
- Hilabeteko alokairua, gehienez, 550 euro izatea.
- Sukaldea erabiltzeko moduan egotea eta behar bezala hornitua.
- Dutxa edo bainuontzia duen bainugela izatea.
- Ur bero sistema izatea, bai bainugelan, bai sukaldean.
- 220 volteko instalazio elektrikoa izatea erabiltzeko egoeran.
- Iturriko ura izatea.
- Sare orokorrera isurketa duen saneamendua izatea.
- Kalera ematen duen aireztatzea izatea.
- Bi pertsonako (gehienez) logela bat izatea.

# Azaro hasierarako espero du Udalak Arrasate pasealekua guztiz irekitzea

▸ Astelehena ezkero zabalik dago bide bat

▸ Noranzko bakar batean zeharka daiteke, oraingoz



Autoak pasealekua zeharkatzen. | IDOIA DAVILA

**IDOIA DAVILA** | ARRASATE

Udalak agindu bezala, astelehenean, urriak 5, Arrasate pasealekuko bide bat ireki zuten. Beraz, Udala eta Foruen plazen arteko bide zatia berriro irekita dago sei hilabetez itxita egon ostean. Oraingoz, noranzko batean zeharka daiteke pasealekua, Udala plazatik Foruen plaza aldera.

Hala ere, obrak ez dira guztiz amaitu, eta Amenabar eraikuntza-enpresak egin behar dituen lan zehatzak direla-eta, zabaldu berri duten bidea itxita egon daiteke momentu batzuetan. Zirkulazioa ez da guztiz normalizatuko lanak guztiz amaitu arte.

Pasealekua guztiz irekitzen dutenean, 30 kilometro orduko abiadura muga ezarriko dute eta ibilgailu arinek bakarrik zeharkatu ahal izango dute. Kamioiek, hortaz, Olandixoko tuneletik joan beharko dute.

## Askotariko iritziak

Herritarrak pozik daude obrak amaitu behar direlako, eta honela mintzo da bizilagun bat: "Hemen bizi naiz, eta, beraz, bukatzeko gogoz nago, ordua da". Eskolan lan egiten duen gizon bat ere ados agertu da horrekin: "Pozten naiz azkenean amaitu behar dutelako".

Sei hilabete iraun duten obrak deserosoak izan dira. "Gizona daukat gurpil aulkian, eta niretako zaila izan da", dio emakume batek. Beste bizilagun baten hitzetan ere, arazoak egon dira, batez ere bertan bizi direnendako. Pasealekua berriztuta ikusteko ordaindu beharreko prezioa dela gehitzen du, nahiz eta oso luzea iruditu zaion lanen iraupena.

Obraren xedea herri barruko autoen mugimendua murriztea da, oinezkoendako eta bizikletendako egokiagoa izan dadin. Helburu hori lortzeko, aparkalekuak kendu dituzte eta espaloia handitu egin dute. Hala, pasealekuan geratu den espazio berri horretan bidegorri bat ere egingo dute.

Moldaketa horiek zeresan handia izan dute eta herritarren artean iritzi asko egon dira. Hainbat bizilagun ados egon dira obrarekin: "Niri interesgarria iruditzen zait, autoa kanpora joateko hartzen dut eta Arrasaten beti oinez ibiltzen naiz". Hala ere, uste dute dendendako kaltegarria izan dela. Beste herritar baten ustez, gainera, pasealekuaren luzera oso motza da horrelako obra bat burutzeko: "Herria bitan zatitzen da".

## Azarorako amaituta

Martxoan hasi ziren lanak, eta azaro hasierarako amaituko direla aurreratu du Udalak. Ordutik aurrera, beraz, Arrasate pasealeku osoa egongo da erabilgarri: autoendako bi noranzkoak, oinezkoendako espaloi zabaldu berria eta bizikletendako bidegorria.



# Termiten izurriteari aurre egiteko, epe luzerako tratamendua

Alde zaharreko egurrezko egituradun etxeetan ari dira lanean, bost urterako plangintza batekin

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

2012ko martxoan konturatu zen Udala alde zaharreko egurrezko egituradun etxeetan termiten arazoa "oso hedatua" zegoela. 2013an, Innodex enpresari eskatu zioten azterketa bat egiteko, eta egoera gainditzeko irizpideak zehaztu zituen: "Tratamendua eraginkorra izan zedin, alde zaharrean bere osotasunean, eta era bateratuan jardun beharra zegoela ikusi zen", adierazi dute Hirigintza Sailetik. Bada, izurritea kontrolatu eta desinfektatzeko lanak Anticimex 3D Sanidad Ambiental enpresari esleitu zizkioten, eta irail amaieran, behin instalazioa ezarrita, enpresa gauzatzen ari den lanen gaineko informazioa eman zieten kaltetuei. Tratamenduak bost urte iraungo du, fasetan banatuta.



Erdiko kaleko egurrezko fatxada.

**Ondo zaindu beharreko gunea**

Alde zaharreko kaleetan dihardute termiten kontra: Olarte, Ferrerias, Erdiko kalea –argazkian–, Iturriotz, Maala eta Gazteluondo. Eraikin batzuk monumentu izendapena dute eta besteak plan bereziaren barruan daude. Beraz, "ondo" zaindu beharreko gunea da: "Esparru arkeologikoa Kultura Ondasun gisa zerrendatuta dago", gaineratu dute. Guztira, ehun bat etxeri eragingo die tratamenduak: "Batzuk ez dira izango goitik beheraino egurrezkoak, baina nahikoa da teilatuak edo solairu batek egurrezko egitura izatea tratatu behar izateko".

## 2.243.955 euro banatu dituzte Nebraskan

Estatuko Loteria Primitiboko sari nagusia banatu du Nebraska tabernak: 2.243.955 euro. Espainian sei zenbakiak asmatu dituen loteria-billete bakarra baliozkotu zen zapatuko zozketan, Alazne Ezkurrak eta Jokin Belategik –argazkian– kudeatzen duten tabernan. Sariduna ez da pasatu. "Zorionak, hala ere!", diote.




JOKIN BEREZIARTUA

NIRE USTEZ



**HORAZIO ARGARATE**

# Caritas

Latinezko hitza eta idazkera dugu izenburua erabili dudana. Euskaratuz gero "maitasuna" esan beharko genuke. Eta nahiz eta gure bailarako herri baten, bietara zegoen kartel baten euskara indartu nahian, gaztelerazko hitzak ezabatzerakoan, mundu mailan erabiltzen dugun deitura hau ere pintura azpian gelditu bada, izenak diona gure herritarren begi bistan dago eta ezkutatzea ezinezkoa gertatzen da.

Gizarte bazterkeriaren kontrako lana zenbat eta konplexuagoa, zailagoa eta teknifikatuagoa bihurtzen den neurrian, hala eta guztiz ere, gure bailarako bederatzi herrietan, elizaren izenean, boluntarioen taldeak eta pertsonak badabiltza gizarte zuzenago eta elkartuago bat aldarrikatzen eta egiten.

Gizaki orori bere duintasuna zor zaionez, beharrean aurkitzen direnendako irtenbideak bilatzea eta gauzatzea denon lana da. Inor ez dago soberan. Caritas-en barruan, ondasunen banaketa eta gizakien garapena lortzeko aurrera eramaten ditugun ekintzetan, pertsonak gara beharrezkoak eta garrantzitsuak, gizatasun beteriko hartu emanetan oinarritzen delako gure egitekoa.

Horrelakoetan parte hartzea gura baduzu, guregana jo eta erakutsiko dizkizugu, han eta hemen, zenbat lan eta zenbat on egiteko gai garen indarrak batzen baditugu. Ziur naiz ez zarela damutuko.



# Ubarretxena: "Espazio publikoak errespetatu egin behar ditugu"

Azken aste bukaeretan 10.190 euro gastatu ditu Udalak pintaketak garbitzen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Azken aste bukaeretan herriko kaleetan izan diren pintaketak direla-eta prentsa oharra kaleratu du asteon Udalak. Jakinarazi duenez, 300 pintaketa eta 660 metro horma garbitu behar izan dira, eta, beraz, Cespa enpresak azken asteburuetan herriko paretetan agertu den zikinkeria garbitu behar izan du. Lan horiek 10.190 euroko garbiketa gastua eragin dio Udalari, "arrasatear guztiendako kostua" izanik.

Maria Ubarretxena alkatearen arabera, "gastu izugarria" da: "Espazio publikoak errespetatu egin behar ditugu udalerria txukun eta garbi mantentzeko. Izan ere, harrizko eraikinak garbitzea zaila da eta harriari, gainera, izugarrizko kaltea eragiten diote bai pintaketek eta baita garbiketarako erabiltzen diren produktuek ere". Horrekin batera, ondarea ere jokoan dagoela gogoratu du alkateak: "Gure ondare diren eraikin historikoak hondatu egiten dira", dio. Hori dela eta, Udalak gogora ekarri du herria "guztiona" dela eta beharrezkoa dela ondarea zaintzea, herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko eta udalerriak pintaketen ondorioz islatzen duen utzikeria eta zikintasun irudiari amaiera emateko.



Maria Ubarretxena, alkatetzan. | JOKIN BEREZIARTUA

### Adierazpen librerako guneak

Ubarretxenak aurreratu du garbiketa lanekin jarraituko dutela eta gaineratu du pintaketen garbiketek eragiten dituzten gastuak ekiditeko eta herria garbi mantentzeko adierazpen librerako gune berriak ezarriko dituztela, herritarrek bertan adieraz dezaten adierazi gura dutena: "Helburua da bisitariei, eta bereziki herritarrei, herri atseginagoa eta garbiagoa eskaintzea", dio. Era berean, Udal Gobernua, urriaren 13an egingo den osoko bilkuran, aurrez landutako adierazpen bateratu bat onartzen saiatuko da, gai horren gainean.

### Garibai, itxita bihar

Bestalde, Arrasate-Oñati herri lasterketa dela-eta Garibai etorbidea itxi egingo dute bihar, 16:00etatik 17:15era. Autobusak Nafarroa etorbidetik ibiliko dira eta geltokia izango dute Zerrajerako erlojuaren eraikinaren ondoan.

# Baleikekoek publiko egin dituzte euren ordainsariak

J.B. | ARRASATE

Baleikeko zinegotzi Eva Abuinek eta Igor Urizarrek publiko egin dituzte Udalean jasotzen dituzten ordainsariak. "Gardentasunarekiko konpromisoa" jarraituz egin dute: Abuinek bozeramaile eta zinegotzi moduan ardurak dituen sei batzordetako bilera bakoitzeko 57 euro jasotzen ditu. Urizarrek, Gizarte Zerbitzuetako batzordeko arduradun izanik, 115 euro jasotzen ditu batzorde horretako bilera bakoitzeko; 115 euro jasotzen ditu Iturbideko zuzendaritzaren bilera bakoitzeko ere, bertako arduradun politikoa delako. Beste lau batzordetan 57 euro jasotzen ditu bilera bakoitzeko. Bi zinegotziek aditzera eman dute bileron maiztasuna aldakorra dela beharren arabera.

# Euskarari kulturatik ere eragiteko hautua Jai Zalen



Jai Zale taberna jendez beteta urtarrilaren 16ko inaugurazioan. | XABIER URZELAI

J.B. | ARRASATE

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kudeatzen duen Jai Zale taberna "poteorako taberna bat baino gehiago" izateko sortu zen, eta, oraingoz, helburua betetzen ari dira: "Helburu ekonomikoez harago, euskalgintzan ari garenok txoko bat daukagu, euskararekin lotura izan dezaketen ekintzei toki bat emateaz gain", dio EHEko Mikel Makazagak. Euskarak "dagokion" lekua izan dezan saiatzen dira, adibidez, musika jartzerakoan euskarari lehentasuna ematen: "Gai sentsiblea da. Herriko musika talde askok gaztelaniaz edo ingelesez abesten dute, eta bertako taldeen musika ere jarri beharra dugu. Saiatzen gara ahalik eta musikarik euskaldunena jartzen. Finean, Euskal Herri euskalduna dugu helburu".

### Hainbat ekintza urrian

Euskarari eragiteko kultura ekintzak aukera ederra direla uste dute Jai Zalekoek. Horren adierazle da urriko aste bukaera guztietarako prestatu dutela zerbait. Gaur bertan Eskoriatzako Lukas Prest taldea dator (18:30); hilaren 16an, Ermuako Puto Amoak Matematikan taldea (18:30); hilaren 17an, The Franky's Verrarter (17:30); hilaren 18an, Bide Ertzean taldearen poesia saio musikatua (19:00); hilaren 21ean, *Zamorako Landan* liburuaren tertulia Jon Etxaberen eta Eneko Barberenaren eskutik (19:00); hilaren 23an, Iker Lauroba (00:00); eta hilaren 24an, amaitzeko, Aretxabaletako Criminal Remains taldearen zuzenekoa (18:30). Bestalde, "ahal den neurrian" saiatzen dira tokiko produktuei lehentasuna ematen.

## Gazte Eguna ospatuko dute urriaren 17an Musakola auzoan

Musakolako alkatetzak Gazte Eguna antolatu du aurten ere. Herri Eskolaren patioan izango dira ekintzak, gazte txokoaren atarian. 11:00etatik aurrera, puzgarriak, aurpegi margotzea eta *Musatxef* sukaldaritza lehiaketa izango dituzte. 13:30etik 14:00etara herri bazkaria egingo dute; doakoa izango da eta plaza mugatuak izango dira, egunean bertan 10:00etatik 12:30era eman beharko da izena. Arratsaldean, berriz, *1 irabazteko!* askotariko trebeziak lantzeko jolasa, karaokea eta mahaiko tenis zein futbol txapelketak izango dituzte.

## TXALOAK ETA TXISTUAK

# Igogailuaren egoera dela-eta herritarren kexa

Herritar batek salatu du Bizkaia etorbideko igogailu publikoaren ingurua "oso zikin" dagoela eta azkenaldian pertsona batek han egiten duela lo "egoera tamalgarrian". Udalari eskatu dio neurriak har ditzala. 2010eko urriaren 29an inauguratu zen; ordutik, zenbait eraso ere jaso ditu.



JOKIN BEREZIARTUA

## OHARRAK

### 1955EAN JAIOTAKOAK

Urriaren 17an Gasteizera egingo dute irteera eta Santa Maria katedrala bisitatuko dute, adibidez. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da honako kontu korronte zenbaki honetan: 30305 0202 702021045493. Antolatzaileek eskatu dute izena "lehenbailehen" emateko.

### 1956AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 14an irteera egingo dute Villabuenara (Araba). Izena emateko, izen-abizenak jarri behar dira kontzeptu moduan kontu korronte zenbaki honetan: 3035 0202 77 202104550 (60 euro).

### 1964AN JAIOTAKOAK

Urriaren 31n elkartuko dira Herriko Plazan (12:00). Arteaga jatetxean bazkalduko dute, eta 65 euroko ordainketa egin beharko da urriaren 15a baino lehen: 2095 5055 50 9113880736.

### 1967AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 14an urteroko afaria egingo dute Aldape jatetxean (batzokia). Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da kontu korronte zenbaki honetan: 2100 1972 01 0200134059.

### ODOL ATERATZEA

Anbulatorioan sortzen diren ilarak direla-eta, odol ateratzeen ordena modu eraginkorragoan kudeatzeko txandakatze sistema ezarri dute. Txanda hartu beharko da aurrerantzean, honako telefono zenbaki honetara deitu: 943 03 52 50.



Nico Ferrer –behean, lehena eskuinetik– taldekide batzuekin. | JUDO KALAMUA

# Judoari agur esan dio Nico Ferrerrek, bi saihets fisuratuta

## Irailaren 26ko Espainiako txapelketan lehiatu zen azken aldiz; lehen borrokaldian lesionatu zen

J.B. | ARRASATE

Irailaren 26an jokatu zen Espainiako Jiu Jitsu Txapelketa, Eibarren. Borrokalari arrasatearren artean, bi izen propio nabarmendu behar dira: Unai Zugasti eta Nico Ferrer. Lehenak bigarren postu "gogoangarria" lortu zuen 69 kilotik beherako kadeteen mailan. Bigarrenak, ordea, anbulantzian irten behar izan zuen Eibarko kiroldegitik: "Bi saihets fisuratu nituen lehen borrokaldian. Aurkariak sorbalda sartu zidan saihetsetan, eta, erortzerakoan, haren pisu guztia hartu zuten nire saihetsek. Ezin nintzen altxatu ere egin, anbulantzian atera behar izan ninduten", gogoratzen du Ferrerrek. Lehen borrokaldian izan zen: "Asmoa nuen bi modalitatetan lehiatzeko, baina hasi eta berehala erretiratu egin behar izan nuen".

Bi hilabete ariketa fisikorik egin barik egon beharko du.

**Askotariko diziplinak**

Ibilbide oparo bati amaiera beltza eman dio Ferrerek: "Ondo prestatuta nuen txapelketa, azkena izan behar zuelako. 35 urte ditut dagoeneko, urte asko dira kolpeak jasotzen". Oso gustuko duen kirola da, baina lesioek gimnasioan egiten duen lana –spinning begiralea da– mugatzen diote, eta horregatik ere erabaki du federatu moduan lehiatzeari uztea.

Ibilbide luzea dauka Ferrerek, askotariko diziplinatan: boxeoa, *kickboxing*-a, karatea, judoa, Mixed Martial Arts (MMA) izeneko diziplina... Denetarik probatu du, baina MMA du gustukoen: "Arautegirik ez du apenas MMAk, ia guztiak balio du...", dio umoretsu. Hori bai, borrokaren arteari lotuta jarraitzeko asmoa du: "Bi urte barru beteranoetan lehiatzea espero dut. Maila handia dago, baina guztiok antzeko adina dugu".

# Modu askotan irakur eta goza daitekeela frogatzeko egitaraua

## Bibliotekaren Eguna da hilaren 24an: jatorri eta adin guztiendako saioak urrian

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urriaren 24an ospatuko da Bibliotekaren Eguna, Estatu osoan. 1997a ezkero urtero antolatzen den ekimena da, gizarteari irakurtzearen garrantzia gogoratu eta bibliotekarien lana goraipatu gura duena. Bada, Arrasateko Bibliotekak egitarau berezia antolatu du aurten: "Kultura aniztasuna nabarmendu nahi izan dugu aurten; horregatik, egitarauan bertan hainbat hizkuntzatan esan nahi izan dugu *ongi etorri*. Bibliotekak guztiendako ditu ateak zabalik", adierazi du Asun Agiriano bibliotekariak.


*Azalerako ipuinak* ekimenaren hirugarren edizioko bigarren saioa, atzo. | J. BEREZIARTUA

**Masaje literarioen arrakasta**

Hasteko, *Azalerako ipuinak* ekimenaren arrakasta aipatu du Agirianok: "Hirugarren ikastaroa da, eta jendeak kanpoan geratu behar izan du. Laugarren bat antolatuko dugu, kanpoan geratu direnak lehenetsita. Bailaratik jendea ere etorri zaigu...". Tailer bereziaren helburua da ahozko tradizioa eta haur literatura ezagutzea. Masajeak eskaintzen duen hitzik gabeko komunikazioa baliatuz, hitz jokoak, poemak, kantuak eta ipuinak lantzen dira. Atzo bigarren saioa egin zuten, eta hilaren 15ean amaituko da; Saroa Bikandi hezitzaile durangarrak dihardu ikastaroa gidatzen.

Umeendako ipuin kontalaririk ere ez da faltako. Maite Frankok *Nire etxea zure etxea da* saioa gidatuko du, adinen araberako bi emanalditan: "Hilero ipuin kontaketa saio bat antolatu gura dugu", gaineratu du Agirianok.

**Aurreiritziak gainditzeko bide**

Bibliotekaren Egunaren bueltan antolatutako "beste ekintza interesgarri bat" da Batxilergoko ikasleei zuzendutako *Gezurkeriak etorkinei buruz* deritzon erakusketa eta tailerra. Etorkinen gaineko aurreiritziei eta zurrumurruei "narratibatik eta irudi artistikotik" aurre egitea dute helburu erakusketak zein tailerrak. Bestalde, umeendako zuzeneko musika ere badakar egitarauak. Gaztelupeko Hotsak-en bidez *2 Princeses Barbudes* ikuskizuna antolatu dute, umeendako: "Zuzenean gozatzeko emanaldia izango da, eta besteak beste, jolasteko euskarazko abestiak eskaintzen ditu". Hilaren 23an izango da, Bibliotekaren Egunaren bezperan.

**Bi liburu irakurgailuren zozketa**

Egitaraua borobiltzeko, bi liburu irakurgailu zozketatuko dituzte urrian zehar liburuak maileguan eramaten dituzten erabiltzaile guztien artean.

### BIBLIOTEKAREN EGUNEKO EGITARAUA

**'GEZURKERIAK ETORKINEI BURUZ'**

**Erakusketa eta tailerrak**

Urriaren 19tik 30era arte. Kulturateko klaustroan.

**AZALERAKO IPUINAK**

**Literatura eta masajea, ume jaioberriei zuzenduta.**

Azken saioa urriaren 15ean, 10:30ean, Haurtxotekan. Euskaraz.

**MAITE FRANKO**

**Ipuin kontalaria umeendako**

Urriaren 15ean Santa Marina auzoko bibliotekan, 18:00etan. 3 eta 4 urtekoendako, euskaraz.

Urriaren 22an Kulturaten, 18:00etan. 5 urtetik aurrerako umeendako, euskaraz.

**'2 PRINCESES BARBUDES'**

**Musika saioa umeendako**

Urriaren 23an, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.



MAITE TXINTXURRETA

## Bost hizkuntzatan abestuko dute

Goikobaluk Coimbrako (Portugal) Santa Clara komentuko Santa Isabel elizan abestuko du bihar, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta errusiarrez. XVI. eta XX. mendeen arteko abestiek osatuko dute errepertorioa. 50 lagun joango dira; bertan egongo dira presidentea, Juan Antonio Barriocanal, eta zuzendaria, Iñaki Maidagan –argazkian–.

## Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saio bat bihar Amaian (17:30)

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetako saio bat jokatuko da bihar Amaia antzokian, 17:30ean hasita. Aratz Igartzabal, Egoitz Eizagirre, Eneritz Artetxe, Felix Zubia, Haritz Casabal eta Iñaki Gurrutxaga izango dira bertsolariak. Sarrerak *www.bertsosarrerak.eus* webgunean daude salgai: gaztetxoen sarrera lau euro da, Bertsozale Elkarteko bazkideena sei euro eta gainerakoena bederatzi euro. Bihar bertan sarrerak Amaia antzokiko leihatilan egongo dira salgai, 16:00etatik aurrera. Txapelketako final handia Donostian jokatuko da, Illunben, abenduaren 20an.

## Asier Altunaren 'Amama' filmerako sarrerak salgai daude dagoeneko

Asier Altuna *Kixi* zuzendari bergarararren *Amama* filma ikusteko sarrerak salgai daude dagoeneko. Lau txanda izango ditu Altunaren lan txalotuak Amaia antzokian: urriaren 16an –20:30ean–, urriaren 17an –19:30ean eta 22:00etan– eta urriaren 19an –20:30ean. Sarrerak Udalaren webgunean *(www.arrasate.eus)* zein Kutxabanken erosi ahalko dira aurrez, bost eurotan; asteleheneko emanaldiaren prezioa lau euro izango da. Udaleko Kultura Sailak aditzera eman duenez, urriaren 16ko emanaldian Asier Altuna bera egongo da Amaia antzokian filmaren gainean berba egiteko. Ikusleek zuzendariari galderak egiteko aukera izango dute.

## Ukrainako gerraren gaineko dokumentala egiteko laguntza eske

*Donbass: Gerra Europaren bihotzean* izeneko dokumentala egiteko finantzaketa-kolektiborako kanpaina –*crowdfunding*-a– abiatu dute Ibai Trebiño, Mikel Arregi eta Andoni Mendizabalek: "*Argia*-rekin batera, Ukraina ekialdeko gatazka azalduko duen ikus-entzunezkoa egiteko *crowdfunding* kanpaina abian jarri dugu. Proiektua egia bihurtzeko zuen laguntza behar dugu, asmoa 40 egunetan 6.000 euro lortzea baita. Erronka galanta", adierazi dute. Ekarpena egiteko, jo honako webgunea honetara; bertan trailerra ikus daiteke, adibidez: *http://karena.eu/en/proiektua/donbass-gerra-europaren-bihotzean*.

# 'Simon Arrieta 1915-1969', artistari zegokion aitortza

## 'Arimadun liburua' egin du Elkoroberezibarrek

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Udaletxeko osoko bilkuren aretoa bete egin zen eguaztenean Migel Angel Elkoroberezibarrek Simon Arrietari buruz egindako liburuaren aurkezpenean. *Simon Arrieta 1915-1969* liburuan parte hartu duten hainbat lagun izan ziren ekitaldian –egileak esan zuen, era batera edo bestera, 300 inguru izan direla denera, tartean 60 elkarrizketatu–. Han izan ziren margolariaren senideak ere –eskerrak eman zizkien bere esku utzitako material denagatik–.

Elkoroberezibarrek azaldu zuen katalogo soila baino gehiago egin nahi izan duela, eta liburuan parte hartu duten denak eskertu zituen: "Beart, Bergarako Udala eta kolaboratzaile pila bat izan dira proiektu hau aurrera ateratzea posible egin dutenak. Simon Arrietaren mendeurrena iristear zela, orain dela pare bat urte, Bergarako artisten elkarteak nigana jo zuen eta Arrietaren gaineko katalogo bat prestatzeko proposamena egin zidaten. Heldu nion enkarguari, eta berehala konturatu nintzen liburua ez zela katalogo soil bat izango. Arimadun liburu bat nahi nuen, adituen balorazio eta azalpen teknikoez gain gertukoen bizipenak jasoz; Simon Arrieta pertsona eta artista bilduko zituena, alegia, eta, nola ez, bere herria; Bergara konstante bat izan da liburuan".




Altuna, Elkoroberezibar eta alkatea, eguazteneko aurkezpenean. | JOSU BILBAO

Juanje Alberdi alkateak, berriz, Elkoroberezibarrek egindako "lan sakona" goraipatu zuen, eta Simon Arrietak horrelako errekonozimendua merezi zuela azpimarratu, bere margoengatik bai, eta baita ondoren herrian etorri diren margolari pila bere ondorio ere badirelako, nolabait. Alkateak eskerrak eman zizkion Bearti ere, Arrietaren mendeurrenaren bueltan egiten ari den lanagatik. Juanjo Altuna lehendakariak ordezkatu zuen Beart eguazteneko aurkezpenean.

### Erakusketa

Bestalde, atzo arratsaldean ireki zuten Donostiako Koldo Mitxelenan Simon Arrietaren lanekin osatutako erakusketa; 28 olio eta hiru marrazki daude ikusgai. Erakusketa Bergarako Aroztegi aretora ekarriko dute azaroaren 20an, eta hilabetez egongo dira bertan Simon Arrietaren obrak.

# 100 egunen ostean EH Bilduk dio Gobernurik ez dagoela Udalean

**J.I.** | BERGARA

Udalbatza berria eratu zenetik 100 egun beteta, Udal Gobernuaren jarduna baloratu du EH Bilduk. Eta bi ondorio nagusi atera ditu: "Bergarako Udalean ez dago Gobernurik, Udaleko langileek daramate aurrera udal jarduna. Eta erabaki txikietan atzerapauso nabarmena egin du Udalak gardentasunean eta demokrazian".

Baieztapen horiek arrazoitzeko, EH Bilduk dio, adibidez, batzorde asko ez direla irailera arte lanean hasi, eta lau hilabetean ez dela "inolako ekimen berririk egin", martxan daudenak aurreko agintaldiko Gobernuak prest utzitakoak direla.

EH Bildu kexu agertu da, baita ere, EAJk eta PSE-EEk Udal Gobernurako egindako akordioaren edukia ezagutzen ez dutelako, horren berri "behin eta berriz" eskatu arren. Hiru aste barruko osoko bilkuran onartu beharreko 2016rako zergen gainean ere Gobernuak bere asmoen berri eman ez diela salatu du koalizioak.

Honez gain, aurreko zortzi urteetan Udala herritarrei gerturatzeko egindako ahaleginean atzera egitea egotzi dio EH Bilduk egungo Gobernuari: "Gizarte Zerbitzuetako batzordean urteetan lanean ari ziren herritarrak baztertu ditu", adierazi dute, adibideak ematen hasita.




EH Bilduren agerraldia. | JOSU BILBAO

# 2016an Aroztegin erakusketa jartzeko eskaera epea ireki dute

**J.I.** | BERGARA

Urriaren 30a da Udalean eskaera aurkezteko azken eguna. Eskaera egiterakoan ondorengoak aurkeztu beharko dira, besteak beste: artistaren ibilbide artistikoari buruzko dosierra; erakusketaren ezaugarri nagusiak; erakusgai jarri nahi diren zenbait artelan edo objekturen argazkiak.

Eskaera egiteak ez dakar, automatikoki, hurrengo urteko programaziorako onartua izatea. Bearteko bi ordezkarik, Pol-Pol argazkilari elkarteko batek, Udaleko Kultura eta Ondare batzordeetako buruek, Udal museologoak eta Kultura teknikariak osatutako batzordeak aztertuko ditu eskaerak, eta hark egingo du aukeraketa. Aurkeztutakoez gain, interesgarri jotzen dituen beste erakusketa batzuk ere antolatu ahalko ditu batzordeak.

# Elosuko 37. feria egingo dute astelehenean

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Urriaren 12an Elosuko plaza eta inguruak ganaduz eta janari zein arropa postuz beteko dira, urtero bezala. 09:00etan irekiko dituzte postuak, eta 13:30ak aldera arte izango dira zabalik. Elkartean barra bat eta taberna parean beste bat jarriko dute, non edariak zein odoloste pintxoak izango diren. Urtero legez, taloak ere ez dira faltako, eta guztia trikiti doinuz alaituta.

Baina goizez soilik ez, arratsaldez ere izango da zerekin gozatu. 17:30ean idi-demak egingo dituzte plazan. Hori bukatzean, berriz, 18:30 aldean, trikitilariekin erromeria egingo dute frontoian.

Bergaratik eta Azkoititik jende ugari joaten da Elosura, "baita Gipuzkoa osoko jendea ere", Mikel Juaristi auzo-alkatearen esanetan. Hori da orain-gorako aurreikuspena ere.



Azoka, iaz. | GOIENA

### Ganadu salerosketa

Urteak pasa ahala galtzen joan dira ganadua saldu eta erosteko azokak, eta horien lekuan animaliak erakusketarako soilik jartzen dituztenak gailendu dira. Hala ere, Elosuan oraindik ere "izaten dira tratuak, eta saltzaileek etortzen jarraitzen dute", Juaristik azaldu duenez. Fama handiko feria dela dio auzo-alkateak.

## Aurreko asteburuko sarien ostean, ornitologia tailerra oraingoan

Laboratorium museoan sortutako bergararrez eta arrasatearrez osatutako bi taldeek lortu zituzten asteburuan jokatutako EAEko Maratoi Ornitologikoko lehenengo eta hirugarren postuak, Debagoienean batera eta bestera ibili eta 60 hegazti espezie identifikatuta. Ornitologiarekin lotuta, bihar, zapatua, Lehen Hezkuntzako umeentzako tailerra egongo da Laboratoriumen.

## OHARRAK

**ODOL ATERATZEEN ZOZKETA**

Odol ateratzeetako jatetxeko otorduen eta hoteleko egonaldien zozketan, irailaren 30ean saritutako zenbakia hau izan da: 1.579.

**KAFEKONPON, EGUAZTENEAN**

Hilaren 14an izango da etxeko tresna eta gailuak konpondu eta horien bizitza luzatzea helburu duen ekimenaren urriko edizioa; 16:00etan, San Joxepen.



MAITE TXINTXURRETA

## Datorren zapaturako entsegua

**Bedelkarren Bergara Bizi ekimenak antolatuta, urriaren 17an San Martin plazan egingo duten moda desfilerako entsegu orokorra egin zuten eguaztenean Zabalotegi aretoan. Jende ugari batu zen bertan, modeloak zein dendetako jabeak, Anezka dendako Ana Parraren argibideen laguntzarekin agertokian desfilatzeko. Herriko 35 komertzio irtengo dira ibiltokira, 120 bat modelo, guztira.**

# Hizki berekin egindako bi hizkuntzatako esaldiek algara eragin dute gaztetxean

'SkizopozikS' ikuskizunaren ostean, asteburuan Mexiko, Kartzela Zaharrean

JULEN IRIONDO | BERGARA

Jakin mina aurrena; harridura eta barre algara gero. Ziklo horretan behin eta berriz murgildurik, ordu erdiz, izan zituen eguazten arratsaldean Kartzela Zaharrean bildutakoak Markos Gimenok, *SkizopozikS* ikuskizunarekin.

Osagarri deigarriekin atondutako itxura bereziz, ondorengo jolasa aurkezten dio publikoari Gimenok: testu bat ematen du euskaraz edo gazteleraz, behin baino gehiagotan errepikatuz; kontua zera da, testu horretako hizkiek, hurrenkera berean baina desberdin multzokatuta –hitz desberdinak osatuz, alegia–, zentzua dutela beste hizkuntzan ere.

Testuak doinu bereziz *errezitatuz*, batzuetan objektu soil batzuk ikuskizunaren osagarri, aurreneko hizkuntzan ematean hura beste hizkuntzan zer izan daitekeen asmatu nahi izatera eramaten du publikoa, bere keinu eta interpretazio bitxiekin lagunduta. Horrelako hogei adibide eman zituen Gimenok Zibergarak antolatutako ikuskizunean.



Markos Gimenoren hitz-jolasen adibide bat. | JULEN IRIONDO

### Elkartasun festa bihar

Bihar, zapatua, berriz, Mexiko izango da protagonista Kartzela Zaharrean. 19:00etan *Ayotzinapa, crónica de un crimen de Estado* dokumentalaren emanaldia egongo da; 21:00etan, berriz, Mexicana Clandestinaren kontzertua. Bost euro izango da sarrera, eta dirua ikasle desagertuen gaineko mugimenduarentzat.

## Txapa Irratian parte hartu nahi dutenentzat bilera

J.I. | BERGARA

Astelehenean, hilak 12, 19:00etan izango da bilera irekia, Kartzela Zaharrean. Ikasturte berrian Txapa Irratian saio bat egin edo nolabait bertan parte hartu nahi luketen denei dago zabalik; edo, besterik barik, Txapa Irratiarekiko jakin-mina izanez gero, informazioa jasotzera joateko deia egin dute. Txapa Irratikoek argi utzi gura dute edonorentzat daudela irekita irrati libreko ateak, eta "proiektuaren parte izatera" gonbidatu dituzte herritar guztiak. Ez dago aurrez ezagupen teknikorik zertan eduki.

## Ipuin kontaketak hiru hilabetean Angiozarren

J.I. | BERGARA

Urrian, azaroan eta abenduan, hilean ipuin kontalari bat izango dute Angiozarko Arbiaska aretoan. Datorren egubakoitzean, hilak 16, izango dira aurreneko saioak. Amaia Arriaran izango da kontalaria, eta 17:00etan *Do, re, mi, golkua bete ipuin* izenekoa eskainiko du, 3 eta 10 urte artekoentzat; 19:30ean, berriz, adimena zorrozteko ipuinak kontatuko ditu, 12 urtetik gorakoentzat. Beste saioak azaroaren 6an eta abenduaren 11n izango dira.

## 'Kabaret' ikuskizuna, Deban

Aratusteetako ikuskizuna Deban egin genuen asteburuan –lehen aldiz herritik kanpo–. Emaitzarekin denak gustura, debarrak eta gu.

KOMUNITATEA GOIENA | JOSU ELORTZA
KABARET | BERGARA



IGOR BAROJA (KULUNKA DANTZA TALDEA)

### NIRE USTEZ



JON OLIVARES

## Aho zabalka

Logura ematen dit, aspertu egiten nau. Batzuentzat betiko kontua, betiko ipuina. Batzuk protagonista eta beste batzuk antagonista. Herriko antolakuntzan, herrigintzan, lan asko dago egiteko, lan asko egiten da. Lar kritikatzen da. Gauzak ez dira bakarrik antolatzen, ez dute bakarrik aurrera egiten. Inplikazioa eskatzen dute, borondatea, gogoa. Komunitate, auzo, herri osoaren konpromisoa litzake idealena. Baina zoritxarrez ezin horrelakorik eskatu.

Guztiz askeak gara nahi duguna egiteko edo ez egiteko, herriaren hobe beharrez lana egin beharrean tabernan geratzeko, baina ez dezagun orduan besteen lana zapuztu, besteak kritikatu. Herrigintzan jarduteak ez du esan nahi besteen oniritzia nahi dugunik, edota besteen errekonozimendurik behar dugunik. Herrigintzan jardutea zure inguruarekiko maitasuna eta inplikazioa da, zuk maite eta miresten dituzun toki zein pertsonen ongizaterako lanean jardutea, zure asmo on guztiekin, zure gogo guztiarekin, horretan sinesten duzulako eta benetan aberatsa delako.

Argi dago horretan gabiltzanok ezin dugula beti asmatu, saiatu arren. Horregatik idatzi hau, zorionez badituguIako gure iritziak eta asmoak azalarazteko tokiak, norbanako moduan herrian eragiteko, parte hartzeko. Zabaldu dezagun ahoa bai, iritzia emateko, eraikitzeko. Ez gure asperraldia besteei pasatzeko.

**"Herrigintzan jardutea zure inguruarekiko maitasuna da"**

### Urriaren 23 arte plazako dantza tradizionalen ikastarorako izen-ematea

Azaroaren 3an –martitzen arratsaldeetan izango da– hasiko da plazako dantza tradizionalen ikastaroa, eta Patxi Monterok emango du; helduentzako ikastaroa da, Bergarako Musika eta Dantza Eskolak antolatutakoa. Bi maila egongo dira, hasiberriena eta sakontze maila. Hilaren 23 arte eman daiteke izena.

### 'Ekarri laguna' kanpaina urrian Agorrosinen

Aurtengo ikastaroetarako zeuden 1.350 lekuetatik 1.157 bete dira; oraindik 193 leku betetzeko daude, hortaz, eta Agorrosingo arduradunek kanpaina abiarazi dute: erabiltzaile badirenek aukera izango dute lagun bat ikastarora eramateko, lekuak daudenetan, proba egin dezaten.

### Nesken Gipuzkoako Txapelketako pala partidua gaur

Gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita, Gipuzkoako Txapelketako nesken partidua jokatuko da Udal Pilotalekuan, paleta gomarekin; Bergara Kirol Elkarteko pilotariek Su-Berrikoekin neurtuko dituzte indarrak. Nagusien mailako lagun artekoa jokatuko da ondoren.

### OHARRAK

**JOSE RAMON ANDA**
Domekara arte dago ikusgai Aroztegin Jose Ramon Andaren eskultura erakusketa.

**ANTZERKIA GAUR**
San Joxepe elkartearen Kulturaldia amaitzeko, Oñatiko Ikusi Makusi taldearen antzezlana izango da gaur, 17:30ean, Zabalotegin, eta bazkaria egingo dute bihar elkartean.

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

# Buelta egunerokotasunera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Maiatzean auzoetan hasitako jai denboraldia herriko jai nagusiekin batera bukatu da. Amaitu dira jaiak eta egunerokotasunera bueltatu da berriz herria. "Bukatu dira, baina oso jendetsuak izan dira eta oso pozik gaude. Aurten San Migel eguna indartu gura genuen, eta gaztetxoendako antolatutako tirolina eta abentura parkeak oso harrera ona izan du. Hamarrekoa. Eguraldia ere ona izan dugu eta antolatutako ekintza guztiak egin dira. Hiru ekitaldi zehatz debekatzeko Karlos Urkixok egindako eskaera izan da egitarauan eragina izan duen faktore bakarra. Udaltzainendako ere jai lasaiak izan dira. Balorazioa positiboa da", adierazi du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak.

Eta jaietako biharamuna kentzearekin batera hasi da Udaleko Kultura Saila Gabonetara arteko eskaintza prestatzen. Azaroan Musikaldia egongo da, eta Benito Lertxundi etorriko da. Oñatzek, bestalde, festa ekitaldia prestatuko du 45.urteurrena ospatzeko.

**Informazio gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Dirua eskaintzen dute euren buruaren truke.


Dominoz mozorrotutako gaztetxoak.


Ijito familiak, kuadrillan.


Suhiltzaileak.


20ko hamarkadako bikotea.


*Frozen* filmeko protagonistak.


Indiarrak ere bai Foruen plazan.


Lapurrak.


Zirkua ere bai.



Traktoreak, autobusak... tramankulu eta mozorro asko. | ARGAZKILARIA: AITOR AGIRIANO

# Datorren astean joango dira auzoetara gripearen aurkako txertoa jartzera

Zubillaga eta Olabarrieta auzoetara eta Lagun Leku elkartera joango dira anbulatorioko erizainak

O.E. | OÑATI

Osakidetzaren gripearen aurkako txerto kanpaina astelehenean hasi zen, eta aurten ere txerto hori hartu gura duten herritarrek nahikoa izango dute osasun etxera joanda. Zubillaga eta Olabarrieta auzoetan bizi eta anbulatoriora joan ezin direnek, berriz, txertoa auzoan bertan hartzeko aukera izango dute aurten ere, hara joango baitira anbulatorioko erizainak.

Zubillagara datorren asteazkenean, urriaren 14an, joango dira eta Olabarrietara eguenean, urriaren 15ean. Auzo bakoitzeko eskoletara joango dira erizainak, 13:30ean. Txertoa hartzeko, osasun txartelarekin edo nortasun agiriarekin joan beharko du auzotarrak. Aurten, gainera, Lagun Leku elkartera ere joango dira gripearen kontrako txertoak jartzera. Urriaren 19an joango dira hara, 17:00etan.

**Txanda**

Gripearen kontrako txertaketa kanpaina 65 urte edo gehiago dituzten nagusiei, gaixo kronikoei eta haurdun dauden emakumeei zuzentzen die Osakidetzak. Nagusiek txertoa jartzeko txanda eskatu behar dute anbulatorioan; gaixo kronikoek eta haurdun daudenek, aurrez, mediku kontsultatik pasatu behar dute txertoaren beharra baloratzeko.

## Datorren urteko aurrekontuetarako proposamenak egin ditzakete herritarrek

O.E. | OÑATI

Datorren urteko aurrekontuak lantzen hasi da Udal Gobernua, eta herritarrekin egin gura du lan hori. Hala, herritarren proposamenak jasotzeko bideak zabaldu ditu.

Udal Gobernuak eskuorri bat atera du, proposamenak hor jasotzeko. Udaletxean, kultura etxean, kiroldegian, Lagun Lekun eta gizarte zerbitzuetako bulegoetan har eta utz daitezke eskuorri horiek. Udal webgunean sartuta ere bete daiteke formularioa. Urriaren 26a da ekarpenak egiteko azken eguna.

Proposamenak modu indibidualean edo talde bezala egin daitezke eta bakoitzak gura dituen beste egin ditzake. Kanpoan geldituko dira irizpide hauen kontra egiten dutenak: Udalaren eskumenekoak ez direnak, 2016an gauzatu ezin direnak, interes pribatukoak direnak, jasangarritasunaren edo printzipio demokratikoaren aurka egindakoak.

**Bilera**

Ekarpena zertan datzan, arrazoiak zeintzuk diren eta zenbateko kostua izan dezakeen jartzea ere eskatzen da formularioan.

Egitasmoari buruzko azalpenak emateko bilera egingo dute urriaren 15ean, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

## Gaztetxoendako 'Minions' filma emango dute asteburuan, eta helduendako, 'Everest'

*Minions* filma emango dute bihar, zapatua, eta etzi, haur eta gaztetxoendako, 17:00etan, eta horrek emango dio hasiera gaztetxoen zinema denboraldi berriari. Nagusiendako, berriz, *Everest* filma emango dute gaurtik, egubakoitza, astelehenera bitartean; bost aldiz, guztira. Bestetik, zineklub denboraldia ere martxan da. Atzo, eguena, ekin zion zineklubak ikasturte berriari. Ohi bezala, eguenetan 20:00etan emango dituzte zineklubeko filmak. Datorren astean *Nightcrawler* emango dute.

## Aizkorri-Aratz mendilerroan dauden ehiza postuen zozketak Oñati tabernan egiten dituzte

Aizkorri-Aratz lerroan dauden ehiza postuen zozketak astelehenetik egubakoitzera egiten dituzte Oñati tabernan, 20:00etan. Ordu erdi lehenago, izena emateko tartea zabaltzen dute. Zozketetan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da Gipuzkoako Ehiza Federaziotik bidalitako zozketa txartela aurkeztea, eta pertsona bakoitzak txartel bat bakarrik aurkeztu ahal izango du. Urriaren 2an hasi zituzten zozketak, eta azkena azaroaren 9an egingo dute.

# Estanpazio tailerra ere eskainiko dute eskulanen ikastaroen barruan

## Pintura, zeramika, orratz-lanak eta eskulan apaingarria dira beste aukerak; izena emateko epea zabalik dago

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI
Aurten ere antolatu ditu Udaleko Kultura Sailak eskulan ikastaroak. Azaroan hasiko dira, baina aurretik eman behar da izena, eta dagoeneko zabalik dago apuntatzeko epea. Urriaren 16a da izena emateko azken eguna.


Kamiseta bat estanpatzen. | SISIANDCRAFTS.COM

**Bost**
Kamiseten estanpazioa nola egin izango da aurtengo berrikuntza. Mirari Sagartzazu izango da irakaslea eta eguenetan emango ditu eskolak: 17:00etatik 18:30era haur eta gaztetxoendako; eta 18:30etik 20:00etara helduendako.

Pintura izaten da eskaera handien izaten duen aukera, eta hiru mailatan sailkatuko dituzte aurten taldeak: eguaztenetan, 6 eta 9 urte arteko haurrendako saioa izango da, 17:00etatik 18:30era; eta 18:30etik 20:00etara, 10 eta 15 urte arteko gaztetxoendako. Egubakoitzetan, 6 eta 10 urte artekoak hartuko dituzte, 18:30etik 20:00etara. Mayra Jimenez izango da haurren eta gaztetxoen irakaslea. Helduekin, berriz, Luis Laskurain arituko da. Astelehenetan eta martitzenetan emango ditu eskolak, 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Nagusienetan, hogei ikasle hartuko dituzte talde bakoitzean, eta haur eta gaztetxoenetan, hamabi.

Zeramikako irakaslea Amaia Madinabeitia izango da eta hark ere gazteak eta helduak hartuko ditu: astelehenetan eta eguaztenetan helduak, 19:00etatik 20:30era; eta eguaztenetan 7 eta 12 urte artekoak, 17:00etatik 18:30era.

Eskulan apaingarriak egiten Jasone Agirrek erakutsiko du aurten ere, martitzenetan, bi orduko bi saiotan. Eta orratz-lanen irakaslea Arantzazu Lizarralde izango da, beste behin; astelehenetan eta eguaztenetan emango ditu eskolak hark, helduendako.

**Matrikula**
Izena urriaren 16a aurretik eman behar da, kultura etxeko harreran. Eskainitako plazak baino jende gehiagok ematen badu izena, aukeraketa zozketa bidez egingo dute. Onartutakoen zerrenda urriaren 20an jarriko dute kultura etxean. Matrikula urriaren 21etik 30era egin behar da.

Urtarriletik aurrera ikastaro berriak aterako dira.

## 'Mendia eta natura' argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik dago

**O.E.** | OÑATI
*Mendia eta natura* argazki lehiaketa antolatu du, beste behin, Aloña Mendiko mendi sailak, eta lanak entregatzeko epea zabalik dago.

Aurtengo lehiaketak ere bi atal ditu: gizakia eta mendia; eta mendi ingurunea. Lehenbizikoan sartzen dira gizakiak egindako ekintzak mendi ingurunean, lehiaketa izan ezik: alpinismoa, mendi zeharkaldiak, trekkinga, eskalada, mendiko bizikleta… Bigarrenean, berriz, paisaiak, mendiak, flora eta fauna jasotzen dituzten argazkiak sartzen dira.

Argazkiak Internet bidez bidaliko dira, *www.concursos-digitales.com* helbidearen bidez, eta urriaren 18a da aurkezteko azken eguna. Epaimahaiak azaroaren 16an emango du erabakia.

## Oñatiko ubiderik luzeena ezagutzeko irteera antolatu du Aloña Mendik

**O.E.** | OÑATI
Uraren ibilbidea jarraituz Oñatiko ubiderik luzeena egiteko irteera antolatu du Aloña Mendik urriaren 18rako.

Kortakogainetik abiatuko dira, eta, Mikeletetxetik pasatuta, kanaleraino helduko dira. Bide guztiz lauan, Aitzgaineraino joango dira, eta Olateraino jaitsi. Irteera herrigunean amaituko da. Aloña Mendiko mendi sailak adierazi duenez, irteera luzea da, baina ez du inongo zailtasunik.

Irteerak ez du kosturik, baina federatuta egon behar da egin ahal izateko. Aloña tabernan eman behar da izena eta urriaren 15a da azken eguna.

## Hitzaldiak antolatu dituzte Yoga Eskolaren 25 urteak ospatzeko

Oñatiko Yoga Eskolak 25 urte betetzen ditu aurten, eta, hori ospatzeko, hitzaldi zikloa antolatu dute. Gaur, egubakoitza, adibidez, *Yoga y mente* izeneko hitzaldia egingo du Alfredo Iglesiasek. Hurrengoak urriaren 14an eta 16an izango dira. Guztiak kultura etxean izango dira, 19:00etan.

## Urriko odol ateratzea egingo dute gaur iluntzean

Oñatiko odol emaileen elkarteak deituta, urriko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza. Betiko moduan, Txantxiku ikastolako aretora joango dira Donostiatik medikuak eta erizainak. Hantxe egongo dira emaileei odola ateratzen 17:00etatik 19:30era.

NIRE USTEZ


**LUKENE IGARTUA**

## 'Selfie' bat Tximeleta gelan

Urriko lehen asteazkena da lerro hauek idazten nagoen eguna, Garun Paralisiaren Mundu Eguna. ASPACEtik etorri zaigun kanpainari jarraiki, Selfie bat garun paralisiaren alde, Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean izan naiz Tximeleta gelakoekin, eta bertako ikasle eta irakasleekin selfie berezi bat ateratzen. Bide batez, gonbidatzen zaituztet Youtuben Tximeleta gelako neska-mutikoak ezagutzera. Urteko egun guztiak dira zerbaiten Mundu Eguna, eta batzuetan geure buruari galdetzen diogu zentzurik ote duen. Baina gaurkoa bezalako egun baten zentzua garun paralisidun pertsonen alde aldarri egitea da.

Garun paralisidun pertsonak gizarteratzeko orduan lan handia daukagu, banakakook gure egunerokotasunean eta erakundeek gestio integratzaile arduratsuak diseinatuaz. Baina izugarrizko lan baliotsua egiten dute egunero hainbat eta hainbat pertsonak, eta beraiei eskaini nahi dizkiet gaurko lerro hauek. Garun paralisidun pertsonekin lan egiten duzuen guztioi nire eskerrik beroenak: terapeuta, hezitzaile, logopeda, monitore, garraio berezien gidari, mediku, psikologo, garbitzaile, laguntzaile, irakasle, ikasle, zaintzaile. Zuek egiten duzue garun paralisidun pertsona bat askeago, eta, bide batez, mundu hau hobe.

**"Zuek egiten duzue mundu hau hobeagoa"**





Geltoki plazako pasealekua, guztiz berrituko dutena urritik otsailera bitartean. | MIRARI ALTUBE

# Urriko azken astean hasiko dituzte bidegorriaren lanak

279.425 eurotan esleitu diote obra Orsa enpresari, hiru hilabetean bukatzeko

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Geltoki plaza zeharkatzen duen bidegorri zatia guztiz berrituko du Udalak. Aurreko agintaldian egindako proiektua da eta obra joan den astean esleitu zioten 279.425 eurotan hondeaketa eta garraio lanak egiten dituen Oiartzungo Orsa SL enpresari.

Urriaren 26tik 30erako astean hasiko dituztela lan horiek jakinarazi dute Udal ordezkariek. Eta ezustekorik sortu ezean behintzat, hiru hilabetetan bukatuta izango dituzte, otsailerako hain zuzen ere.

**Bizikletendako gunea**

Berrituko duten zatiak 160 metro ditu; Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunearen ostean hasi eta Basabe kaleko bidegurutzeraino doa, biribilguneraino, doa.

"Bidegorria egon badago, baina egoera eskasean; horregatik berria egingo da", diote Udaleko Hirigintza Saileko kideek. Eta zati berri horretan zehaztuko dute bizikletendako bakarrik izango den gunea: "Gorriz margotutako aglomeratuarekin". Oinezkoendako gunea ere konponduko dute: "Hormigoizko baldosarekin jarriko da zorua, eta zuhaitzek mugatuko dute". Pasealekuaren diseinuan aldaketarik ez egiteko eta zuhaitzak mantentzeko automobilen aparkalekuen eta errepidearen zabalera egokituko dituzte. Horregatik, Geltoki plazan (erresidentzia izendapena duen bidean) dauden aparkalekuko autoak zeharka edo baterian egotetik errenkan egotera pasatuko dira.

**DATUA**

**160**

METRO

Basabeazpi gune ostetik Basabe bideraino doan tartea berrituko dute.

**Ur hodiak eta argiteria**

Lurzoru gaineko lanak bakarrik ez, azpikoak ere egingo dituzte. Euri urak jasotzeko hodiak aldatuko dituzte, baita edateko urarenak ere, eta argiteria sistema berrituko dute, energia elektrikoaren kable-sarea guztiarekin batera. Orain dauden seinaleak, bai horizontalak, bai bertikalak ere aldatu egingo dituzte.

## 100 urteak senideekin ospatu ditu Nati Rodriguezek



M.A.

Nati Rodriguezek 100 urte bete zituen atzo, urriak 8. Leonen jaioa, orain dela 52 urte etorri zen Aretxabaletara, eta urte asko egin zituen Taberna Berri jatetxeko sukaldean lanean. Opari mordoa jaso ostean, senideekin bazkalduta ospatu zuen eguna. Argazkian, alabak, ilobak, biloba bat, alkatea eta zaharren egoitzako ordezkaria.

**NIRE USTEZ**

**MIKEL ARROIABE**



## "Es que no se integran"

Sorpresaz etorri jat orainguan artikulua idazteko sasoia, eta hainbat gai euki dittut buruan bueltaka.

Hasieran indar haundixa hartu zauen Gipuzkoako botere faktikuen inguruan idaztiak; PNVian jostailu karuak, ADEGIren orgasmuak, Diario Vascon maskara dantzak... Baina hurrengo baterako utziko dot gaixa eta aspaldixen kezkatzen nauen beste bati ekingo dotzat. Jendartian inmigraziñuan inguruko iritzixak euki dauen bilakaera kuriosua.

Izan be, benetako jarrera aldrebesa daukogu etorkinekiko. Bereziki harrigarrixak egitten jat euren jatorrixa (edo euren gurasuena) ahaztu eta Marotozale bihurtu dien horreik. "Es que no se integran", esaten daue 50 urtetan Aretxabaletan bizi eta "eskerrik asko" esaten ikasi ez dauienek. Eta nola dien gauzak, Aylan ume gaixua itsasertzian ikusitta Siriako gerratik ihesi datozenekiko bihotza xamurtu jake Melillako igerilarixei pelotak botatzia txarto hartu ez zauienei. Pentsakera aldaketian zantzuak ote? Bildur naz azalan koloria ez ote dan jarrera anbiguoak sortzen dittuna.

Hezkuntzan nazionalidade ugarittako ikasliekin lan egitteko aukera zoragarrixa daukogu eta benetan da aberasgarrixa gure hizkuntza eta ohitturak erakustiaz gain euren kulturan barneratzeko tartiak bilatzia.

**"Benetako jarrera aldrebesa daukogu etorkinekiko"**



Yolanda Arrieta idazlea azalpenak ematen gurasoei. | IMANOL SORIANO

# Plazera izan zen Yolanda Arrieta lagun izatea

KOMUNITATEA GOIENA | NEREA ALTUNA
HAUR LIBURUTEGIA | ARETXABALETA

*Bularretik mintzora* egitasmoaren barruan gurasoentzako antolatu den bigarren lantegia egin zen zapatuan. Prestakuntza saio horien helburuak dira gurasoak eta, orokorrean, bitartekariak, haur literaturaren mundura gerturatu eta sakontzeko aukerak ematea, baliabideak eskaintzea eta ohiturak sustatzea, besteak beste.

Larunbateko saioa, egia esan, oso saio polita izan zen. Gurasoek irakurketa ozenean, poesian eta bat-bateko kontaketetan trebatzeko aukera izan zuten eta baliabide ugari jarri zen beraien eskura, poliki-poliki, bakoitzak ahal duen neurrian eta denboran, ikasten eta praktikatzen jarraitzeko. Yolanda Arrietak oso ongi transmititzen du eta plazer bat izan zen bera entzutea.

Udaberrian egingo da hurrengo guraso lantegia, eta orduan, emozioen hizkuntza eta haur literatura lantzeko aukera egongo da.

Egitasmo horren gaineko informazio gehiago nahi duenak liburutegian jaso dezake.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Puntako antzezlanak eta goi mailako musika dakartza urriak Arkupera

'Veranillo de un minuto' dago gaur helduendako eta Poxpolo ta konpainia pailazoak domekan, umeendako

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Leyre Abadia nafarrak idatzi, zuzendu eta interpretatutako *Veranillo de un minuto* lanak hiru emakumeren istorioa dakar gaur, egubakoitza, Arkupeko oholtzara, 19:00etan. Emakume horiek gutun bat idatzi zuten gaztetan esanaz zelan ikusten zuten norberaren burua etorkizunean, eta orain, urteek aurrera egin ostean, gutun hori jasoko dute bueltan (sarrera, 4 euro).

Hurrengo egubakoitzean, hilaren 16an, ostera, antzezlan elektronikoa eskainiko du La Noruega taldeak: *Fausto, herritar eredugarri*. Mikel Losada, Miriam K. Martxante, Lander Otaola eta Diego Perez aktore ezagunak zuzendu ditu Galder Perezek, eta Faustoren mitoa gaur egunera ekarriko dute.

Umeek, ostera, pailazoak izango dituzte urrian. Domekan, hilaren 11n, Poxpolo ta konpainiak bi saio egingo ditu (sarrera, 3 euro): 12:00etan eta 17:00etan. Eta hilaren 25ean, *Festara* joango dira neska-mutikoak Tomaxen abenturak taldeko kideekin.



Leyre Abadia nafarra oholtza gainean. | LEYRE ABADIA

### Eguenetan, musika

Antzezlanei bakarrik ez, musikari ere egin diote lekua Arkupen, horri eguenetan. Eta atzo, Itoiz eta Sotres bikoteak jardun zuen flautarekin eta gitarrarekin; dotore jardun ere. Datorren eguenean, ostera, Amaia Zubiria izango da Edorta Amuruak lagun eginda gitarrarekin, eta hilaren 22an Maialen Errotabehere etorriko da *Biluzik* lanarekin. Blues doinuekin zipriztindutako pop-rock doinuak ekarriko ditu iparraldeko kantariak.

### 'Amama' filma hil bukaeran

Urri bukaeran zinema itzuliko da Arkupera. Eta Donostiako 63. zinemaldiko sail ofizialera aurkeztutako *Amama* filmak emango dio hasiera denboraldiari: hilaren 29an (19:30), 30ean (22:00), 31n (19:30 eta 22:00) eta azaroaren 1ean (19:30) eta 2an (16:00).

Umeek, ostera, *Asterix Jainkoen egoitza* izango dute urriaren 31n eta azaroaren 1ean (17:00).

## Kuku Mikun izena emateko epea zabalik dago urriaren 19ra arte

KOMUNITATEA GOIENA | KUKU MIKU ELKARTEA | ARETXABALETA

Kuku Miku elkarteak zabalik dauka ikasturteko bazkidetza kanpaina. Urriaren 19ra arte eman daiteke izena.

### Ekintzak eta jolasak

Kuku Miku 0 eta 6 urte bitarteko familien topagunea da. Durana kaleko 30. zenbakian dugu egoitza. Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditugu: hitzaldiak, tailerrak, haur eta gurasook ondo pasatzeko ekintzak…

Bestalde, lokalaz gozatzeko aukera ere badugu. Lokala, poliki-poliki, gure haurren beharretara egokitzen dihardugu, material desberdina sortuz eta lortuz.

Jarduera hauek guztiak era asanblearioan eta auzolanen bitartez eramaten ditugu aurrera.

Bertan parte hartzeko interesa baduzue, dagoeneko izena eman dezakezue: izena emateko orria eta diru sarreraren ziurtagiria postontzian utzita edo e-mailez bidalita.

Lehenengo asanblada izena ematen dugunon artean egingo dugu urriaren 31n, 10:30ean.

Eta gogoratu iaz ere bazkide izan zinetenok bazkidetza berritu beharko duzuela.

## Hezitzaileen lan-poltsa osatu gura du Loramendi elkarteak

KOMUNITATEA GOIENA | LORAMENDI ELKARTEA | ARETXABALETA

Lan-poltsa osatuko du Loramendik urtean zehar elkarteak kudeatzen dituen aisialdi programetan izan daitezkeen beharrei erantzuteko: ludoteka, hizkuntza errefortzuak, Gazte Zoro egitasmoa eta bestelako ekintza puntualak.

Une honetan hizkuntza errefortzuko hezitzaile baten beharra du Loramendik, berehala hasteko. Hori betetzeko, 2015eko urriaren 16rako lan-poltsan izena emanda daukatenen artean aukeraketa egingo du.

### Bete beharreko baldintzak

Baldintza orokorrak honako hauek dira: 18 urte izatea; euskalduna izatea eta euskalkia menperatzea; aisialdian esperientzia izatea; eta Aretxabaletakoa izatea edo Aretxabaleta ondo ezagutzea.

Hizkuntza errefortzuko hezitzaileen kasuetan, baldintza orokorrez gain, zera bete beharko da: Aretxabaletako Udalak hezitzaileei zuzenduta antolatzen dituen ikastaroak eginak edukitzea. Eta ludotekako hezitzaileen kasuetan, ondoko hau ere bete beharko da: EGA titulua izatea.

Interesatuek bidali lehenbailehen curriculuma *loramendielkartea@gmail.com* helbidera. Lan-poltsan izena emateko bidea irekita egongo da, Loramendik besterik erabaki artean.

## Basotxokoekin Nafarroara joateko izenematea zabalik

Nafarroa aldera doaz Basotxo erretiratuen elkarteko kideak urriaren 21ean, eta izena emateko azken eguna hilaren 16a da (Basotxon, 11:00-12:00). Lodosan Peron kontserba-lantegia ikusiko dute, eta ekoiztutako produktuak probatu. Gero Lizarrara joko dute eta bazkaltzeko Aiegira joango dira.

## OHARRAK

**'GANBARAKO IPUINAK' VANESSA GONZALEZEKIN**
Ipuin kontaketa saioa egingo du Gonzalez arrasatearrak bihar, 11:30ean, liburutegian.

**ODOL ATERATZEAK**
Arabako odol bankuko kideek odol ateratzeak egingo dituzte honako egunetan: 14, 19 eta 26. Osasun etxean izango dira 16:30etik 20:30era.

ARETXABALETA Lanbide Eskola

2015/2016 IKASTURTEA
LANBIDEk FINANTZATUTAKO
IKASTAROA DOAN

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

KATALOGO MODULAR *BERRIA*

| ZIURTAGIRI PROFESIONALAK | PRESTAKUNTZA MODULOAK | PRESTAKUNTZA UNITATEAK | ORDUAK |
|---|---|---|---|
| FMEH0109 URRADURAREN, ELEKTROEROSIOAREN ETA PROZEDURA BEREZIEN BIDEZKO MEKANIZATUA | MF0093_2 Urraduraren, elektroerosioaren eta prozedura berezien bidezko sistemen eta makina berezien prestaketa eta programazioa. | UF1008 makinak, ekipoak eta erremintak prestatzea urraduraren, elektroerosioaren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio lanak egiteko. | 80 |
| | | UF1009 CNC Programak lantzea urraduraren, elektroerosioaren eta prozedura berezien bidezko piezak fabrikatzeko. | 80 |
| | | UF1010 Fabrikazioko prozesu osagarriak urraduraren, elektroerosioaren eta prozedura berezien bidezko mekanizatuan. | 70 |
| | | UF1011 Lan eta ingurumen arriskuen prebentzioa urraduraren, elektroerosioaren eta prozedura berezien bidezko mekanizatuan. | 30 |

**Behinbehineko datak:**
2015eko azaroaren 2tik 2016ko otsailaren 25era arte.

**Orduak guztira:**
260 ordu

**Ordutegia:**
astelehenetik ostegunera, 15:00etatik 20:00etara

**Izenemateak:**
Lanbideko bulegoetan edo www.lanbide.net webgunean.

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 08:00 - 18:00
ETXEBARRI AUZOA, 2/0 / 22 PK. 20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA. COM - IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943 - F. 943 770 955

Lanbidez heziketa / Formación profesional
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Lanbide




MAR
KAJO

Goienak Maritx
Arrasateko Herrik
photocall-etik 1.
gehiago pasatu zi
ederrak, eta batez
dituzte ord
Eskerri

goi










**BABESLEAK**

lurrindegia perfumeria ZARRAOA
Sikol lentzeria
gare loradenda
kapikua OPARIAK ETA OSAGARRIAK





ITXU
2015

u Kajoi egunean
o plazan jarritako
000 lagun baino
ren. Talde argazki
ere, dotoreak utzi
imenerako.
ik asko!

ena"











**Argazki gehiago ikusteko,**
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

LIRAIN
ESTETIKA ZENTRUA

Josle

TAKOLO
AUTOAK

# Detektagailuekin kalte ugari egin dituzte bi gizonek Atxorrotxen

## Eskoriatzako Udalak "zigor larria" dela adieraziz salaketa jarri du babestutako gunean egindakoagatik

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Irailaren 28an, astelehena, Atxorrotxen bi gizon ikusi zituen herritar batek metal detektagailuekin; antza, metal bila. Hainbat zulo egin zituzten babestutako gunea den Atxorrotxeko ermita pareko haitzaren inguruan, eta herritarrak horren berri eman zion Udalari. Udalak salaketa ipini du, eta Atxorrotxeko indusketen arduradun Iñaki Sagredo kalteak neurtzen izan da han.

Kalte horien berri eman zuen herritarrak ezin izan zuen bi gizonen autoaren matrikula hartu, baina berriz bueltatuko zirela entzun zien. Iñaki Sagredoren esanetan: "50 zulo inguru aurkitu ditugu gaztelua zegoen aurreko zaintza-dorrea zenaren gainean, eta Erdi Aroko metal asko eraman dute". Indusketen arduradunak azaldu duenez, aztarnategian ez dira zuloak ageri, baina ez daude guztiz ziur; izan ere, zuloak tapa ditzakete kalteak eragin dituztenek.

Bi urte barru hasi behar zuten haitz horretan lanean, baina, kalteen ondorioz, datorren urtean hasiko dira, ahal duten guztia salbatzeko lanak egiten. "Garai hartako iltzeak aurkitu eta eramaten badituzte, esaterako, gure lana zapuzten dute. Izan ere, metro karratu bakoitzean dauden iltzeen arabera zer-nolako eraikina zegoen... jakin dezakegu. Dena den, lurra mugituta bakarrik ere informazio pila bat galtzen da".



Metal detektagailuekin egindako kalteak Atxorrotxen. | IBARRAUNDI MUSEOA

**Ezer lortu barik, historia galduz**

"Piezak museo batera eraman behar dira, eta zaharberritu. Detektagailuekin ibiltzen diren bildumagileek ez dakite hori egiten, eta etxean gordetzen dituzte", adierazi du Sagredok.

Ibarraundi museoa ere ekintzen kontra azaldu da: "Detektagailuekin indusketetan aritzea debekatuta dago. Gainera, zerbait aurkitzen duenak ezin du etxera ezer eraman, aurkitzen dena ondare publikoaren parte delako".

# Hasi ditu Eskoriatzako Aldaype elkarteak ehiza postuen zozketak

## Egunero 18:00etatik 20:00etara bitartean Intxaurtxueta auzoko bederatzigarren atarian

**I.B** | ESKORIATZA

Atzo, eguena, hasi zen Eskoriatzako Aldaype ehiza eta arrantza elkarteak antolatzen duen ehiza postuen zozketa, eta azaroaren 30ean amaituko da.

Egunero batzen dira ehiza-zaletasuna duten ehiztariak Intxaurtxueta auzoko bederatzigarren atarian, 18:00etatik 20:00etara bitartean, astelehenetik egubakoitzera bitartean, eta postu onena lortzeko asmoz joaten dira guztiak. Egubakoitzetan, aste bukaerarako eta astelehenerako zozketa egiten dute.

Zozketan derrigorrezkoa izango da Gipuzkoako Ehiza Federaziotik bidalitako zozketa txartela aurkeztea, eta pertsona bakoitzak txartel bat bakarrik aurkeztu ahal izango du. Joaten denak postu bat bakarrik eskura dezake, eta baliteke postu barik geratzea, gainera, jende kopuru handia izaten da-eta bertan. Bestalde, zozketarako prezioak askotarikoak izaten dira; bazkide direnentzat, erretiratuentzat, federatuentzat...

**Ehiza postuak prest**

Aldaype elkarteak 168 ehiza postu kudeatzen ditu, eta bi eremutan banatzen dira: batetik, Lete, Apotzaga, Marin... auzo inguruan dauden 95 postuak; eta bestetik, Aizkorri Aratz parkean, Alabita-Aranguren bitartean dauden 73 postuak.

Zozketan eremu bat edo bestea aukeratu beharko du ehiztariak, eta zortea izan postu bat tokatzeko eta, bide batez, ehizarako ona izateko.

# Atxorrotx kultur elkartea hasi da negura begira egitaraua prestatzen

## Andromines talde kataluniarraren kontzertua izango da zapatu honetan Inkernu tabernan

**I.B** | ESKORIATZA

Atxorrotx kultur elkartea hasi da negura begira hitzorduak prestatzen. Orain arte aire zabalean prestatu dituzte kontzertu gehienak, baina hemendik aurrerako ekintzak Inkernu tabernan eta Zaldibar antzokian egitea da elkartearen asmoa. Hain zuzen, lehenengo hitzordua aste bukaera honetan izango da, Andromines talde kataluniarraren eskutik. Zapatuan izango da, 23:00etan, Inkernu tabernan.

Zazpi urte inguruen ostean, berriz izango da talde kataluniarra Eskoriatzan. Orduan, EINA talde moduan izan zen Eskoriatzan, hardcorea egiten zuten, eta gaur egun, aldiz, Andromines moduan etorriko dira Eskoriatzara, hardcorea alde batera utzi eta aldizkako rocka egitera. *Utopies del present* lana aurkeztuko dute, eta aste bukaeran bi emanaldi egingo dituzte Euskal Herrian: bata zapatuan, Eskoriatzan, eta bestea, berriz, domekan, Beran.

**Governors, Zaldibarren**

Hilaren 23an, 23:00etan, Governors taldea izango da Zaldibar antzokian. Sarrerak bost eurotan egongo dira salgai egunean bertan; birari amaiera emateko azken emanaldietako bat izango da Eskoriatzakoa.

Governorsek ez du zuzenekorik emango 2016an, atsedenaldi bat hartuko dute, disko berrian lan egiteko.



Andromines osatzen duten partaideak talde argazkian. | ANDROMINES

### 'Lagun arteko harremanak' hitzaldia egingo du Idoia Apaolazak Ibarraundi museoan

Haurtzaroaren inguruko formazio zikloaren barruan antolatutako bigarren hitzaldia izango da *Lagun arteko harremanak*. Bi saio egingo ditu Idoia Apaolazak, Gizarte Hezkuntzan diplomadunak eta psikopedagogoak, eguenean, hilak 15, Ibarraundi museoan: gazteleraz 15:00etan eta euskaraz 17:30ean.

### Etxepare Rap-en azken kontzertua izango da Huheziko klaustroan eguenean, 16:30ean

Imanol Epelde literatura irakaslea da, eta euskal literatura lantzeko eta ikasleengana heltzeko, Bernat Etxepareren letrak rap formatuan plazaratzea erabaki zuen. Hala, proiektu hori Euskal Herri osoan zabaldu ondoren, ibilbideari amaiera polit eta berezia emateko emanaldia egingo du Huheziko kaperan, eguenean, 16:30ean, eta sarrera doakoa izango da.

### 'Eguneroko bizitzarako hiriak nola pentsatu' hitzaldia egingo du Koldo Telleriak Ibarraundin

"Gure hiri lur eta landa lurrak nola bizi ditugun eta nola eraldatu ditugun", hori azalduko dute *Eguneroko bizitzarako hiriak nola pentsatu* hitzaldian. Parte-hartze bidez eginiko eraldaketa prozesu eta ikerketa kasu praktikoak azalduko ditu Koldo Telleria arkitektoak. Eskoriatzako Udalak antolatuta, martitzenean izango da hitzaldia, Ibarraundi museoan, 14:30ean.



Eskolako patioan puzgarriekin gozatu zuten gaztetxoek. | JULEN IRIONDO

# Haur eskola herrian edukitzea abantaila dela diote Pausoka elkartekoek

Urriaren 2an, egubakoitza, ospatu zuen Antzuolako haur eskolak hamargarren urteurrena

M.A. | ANTZUOLA
Antzuolako haur eskolak herritarrei ateak ireki dizkie hamargarren urteurren festa ospatzeko. "Nola egiten dugun lan eta erabiltzen dugun materiala erakutsi gura izan diegu gurasoei", azaldu du Vanesa Tamayo hezitzaileak.

Bertan izan zen Beñardo Kortabarria alkatea, eta herrian haur eskola edukitzearen garrantziaz jardun zuen: "Zerbitzuari eutsi egin behar zaio herritarren bizi kalitatea mantentzeko".

**Gurasoak gustura**
Gurasoak pozik daude haur eskolarekin, eta abantaila bat dela herrian bertan horrelako zerbitzu bat edukitzea azaldu du Pausoka guraso elkarteak. Familia giroan egoten direla hezitzaileekin azpimarratu dute. Baina, eskola txiki geratzen ari dela-eta kezkatuta daude zaintza zerbitzuaren etorkizunaz. "Eskolatik umeak beste toki batera eramateko asmoa dago; horri arriskua eta zailtasuna ikasten diogu".

# Beñardo Kortabarria: "Denok dugu aitortuta etxebizitza eskubidea"

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Martitzenean egindako osoko bilkuran, Kaleratzeak Stop plataformaren mozioa aztertu, eztabaidatu eta onartu zuten. EH Bilduren eta Alderdi Sozialistaren aldeko botoekin onartu zuten mozioa. EAJ alderdia abstenitu egin zen.

Mozioak kaleratzerik gabeko herri baten aldeko deklarazioa egiten du. Eta, era berean, onartzen duen Udalari, zenbait ardura ere eskatzen dizkio. "Sei hilabeteko epean etxebizitza hutsen gaineko inbentarioa egin behar da; neurri batean, informazioa badaukagu, eta plataformaren mozioak eskatzen duena beteko dugu", azaldu zuen Beñardo Kortabarria alkateak.

EAJ alderdiak, hain justu ere, mozioak eskatzen dituen ardura horiei erantzuteko zailtasunak ikusten dizkio Antzuolako Udal Gobernuari. Maria Eugenia Arrizabalaga jeltzaleak azaldu zuenez, herriari "handi" geratzen zaizkion ahaleginak eskatzen ditu Kaleratzeak Stop plataformaren mozioak. Hala ere, ados daudela zenbait neurrirekin gaineratu zuen.

Bestalde, Beñardo Kortabarria alkateak azaldu zuen une honetan ez dagoela antzuolarrik desjabetze arriskuan, eta etxebizitza eskubidea defendatu gura izan zuen. "Denok daukagu aitortuta etxebizitza eskubidea, eta, ahal dugun neurrian, hori bermatzen saiatu behar dugu; ezin dugu onartu jendea kalean bizi izaten egotea".

**Bestelako gaiak**
Alderdi Sozialistak aurkeztutako Siriako errefuxiatuen gaineko mozioa aho batez onartu zuten. Baina, onartua izan zedin, EAJko zinegotziek eskatutako aldaketa egin zuten sozialisten mozioan: *Espainia* hitza kentzea, hain zuzen, *Espainiako Gobernua* eta *Estatua* azaltzen zen lekuan.
Bestalde, Siriako errefuxiatuen gaineko Udalaren adierazpen instituzionalaren alde EH Bilduk soilik egin zuen. Sozialistak eta jeltzaleak abstenitu egin ziren. "Ez gaude ados adierazpen instituzionalak daukan kutsuarekin, erakunde hori osatzen duten guztien adostasuna dela ematen du-eta", azaldu zuen Arrizabalagak.

# 'Crossfit'-a ezagutzeko ate irekiak bihar gimnasioan

M.A. | ANTZUOLA
*Crossfit* metodoko ariketen teknikak gertutik ikasteko aukera izango dute herritarrek bihar, urriak 10, goizeko hamarretan hasita. Udal gimnasioak doako ikastaroa antolatu du. Izena emateko, Udal Gimnasiora bertara jo edo deitu 943 76 66 61 telefono zenbakira. Mezu ere bidal daiteke, *antzuolakogimnasioa@gmail.com* helbidera.

Baina *nordic walking* kirol jarduera ikasteko eta hobetzeko aukera ere badago urrian. Hala, bost orduko ikastaroa urriaren 23an, egubakoitza (17:30-19:30), eta urriaren 24an, zapatua (09:30-12:30), izango da Eguzki gimnasioan.

Europa iparraldetik datorren ibilera teknika berezia da *nordic walking* izenez ezagutzen dena, eta, horren bitartez, hankez gain gorputzaren goialde osoa lantzen da. Antzuolako gimnasioan bigarrenez antolatu dute jarduera hori. Izena emateko interesa dutenek eta gimnasioko erabiltzaileak badira 27 euro ordaindu beharko dute; gainontzekoek, 36 euro.

# Landatxopek Arabara irteera antolatu du

M.A. | ANTZUOLA
Urriaren 21erako, eguaztenerako, Antzuolako Landatxope erretiratu elkarteak Arabako bi herri bertatik bertara ezagutzeko irteera antolatu du.

Hain justu ere, Villanañera eta Gaubeara irteera egingo dute. Herrietan barrena bisita gidatua egin ostean, bazkaria egingo dute, eta, horren ondoren, giroa berotzeko, dantzaldia egingo dutela aurreratu dute erretiratuen elkarteko antolatzaileek.

Irteerara joan nahi duten Landatxopeko bazkideek urriaren 13an edo 14an eman beharko dute izena. Ohi bezala, Landatxopeko bulegoan 16:00etatik 18:00etara bitartean eman beharko dute izena interesa dutenek.

Autobusak 60 lagunendako eserlekuak dituenez, plazak mugatuak izango dira. Prezioa 30 euro da.

Irteera urriaren 21ean goizeko bederatzietan herriko betiko autobus geltokietan izango dela azaldu dute erretiratuen elkartetik.

# Erretiratuen eta pentsiodunen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Urriaren 1ean Nagusien Eguna ospatu zen. Hala, Debagoieneko herrietan elkarretaratzeak egin zituzten erretiratuen eta pentsiodunen eskubideak aldarrikatzeko. Antzuolan ehun lagun inguru batu ziren.



LANDATXOPE

## Kultura batzorde irekia egingo dute hilaren 14an Olaran etxean

Kultura batzordea abian jarri nahi du Antzuolako Udalak. Horretarako, baina, herritarren ideiak eta proposamenak ere aintzat hartu gura ditu. "Bilera irekia egingo dugu eguaztenean, 18:30ean, Olaranen, herritarrekin. Antzuolak kulturalki zer izan nahi duen aztertuko dugu, eta herritarren ekarpenak jaso gura ditugu", dio Kultura zinegotzi Usoa Agirrek.

GAILUR
taberna eta gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



Iaz egin zuten ikasturte berriko aurkezpeneko bertso saioa. | BERTSO ESKOLA

# Bertso eskolak dena prest du ikasturte berria hasteko

Urriaren 16an, barikua, egingo dute ikasturte hasierako jaia Sastiña aretoan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Bertso eskolakoak ikasturte berria hasteko gogotsu daude. Talde guztiak antolatu dituzte, eta aurkezpena egitea falta zaie orain. Horretarako data ere jarri dute: datorren barikuan egingo dute, urriaren 16a, 19:30ean, Sastiñan.

Bertso eskolaren aurkezpena egingo dute, lehenengo, eta ondoren bertso saioa izango dute. Ikasturtea hiru talderekin hasiko dute: txikien taldea, gazteen taldea eta nagusien taldea.

**Izena emateko aukera dago**

Oraindik izenik ez eman arren interesa dutenek aukera izango dute bertso eskolan apuntatzeko. Ondoko taulan dago zein izango den talde bakoitzaren ordutegia. Datorren barikuan aurkezpenera agertu besterik ez dute.

### TALDEEN ORDUTEGIA

**TXIKIEN TALDEA**

**Irakaslea:** Peru Abarrategi.

**Eguna eta ordua:** Barikua, 16:00etan.

**GAZTEEN TALDEA**

**Irakaslea:** Martin Berrizbeitia.

**Eguna eta ordua:** Eguena, 17:30ean.

**NAGUSIEN TALDEA**

**Irakaslea:** Peru Abarrategi.

**Eguna eta ordua:** Barikua, 19:00etan.

Bertso eskolaren helburua bertsolaritza ezagutuz ondo pasatzea da: "Euskara indartu, bertsoa ezagutu, bakoitzak bere mailan bertsotan egin eta ondo pasatzea da asmoa", azaldu du Xabi Igoa taldeko kideak.

Aisialdirako gune moduan aurkeztu dute bertso eskolaren jarduna.

**Gaztelumendi eta Soto**

Nafarroako txapeldun Julio Sotok eta Unai Gaztelumendik bertso saioa eskainiko dute. Librean abestuko dute, 40 bat minutuz. "Bertso eskolan eurek bizitakoak abestuko dituzte, besteak beste. Umore ukituarekin ibiliko dira", gaineratu du Igoak.

Arrakasta handia izaten duen saioa izaten da bertso eskolaren aurkezpenekoa.

# Helduei zuzendutako dantza ikastaroa eskainiko dute aurten ere

Gaur izango dute aurkezpena, eskolako gimnasioan, 18:30ean; bi talde egingo dituzte

A.E. | ARAMAIO

Helduei zuzendutako dantza ikastaroa egingo dute aurten berriro ere. Bi talde egingo dituzte: bat, hasiberriendako izango da eta bestea talde aurreratua.

18:30ean elkartuko dira, eskolako gimnasioan. Dantza ikastaroaren aurkezpena egingo dute eta partaideak taldetan banatuko dituzte. Horrez gain, ikastaroaren ordutegia eta eguna ere zehaztuko dute izena ematen dutenen aukeren arabera.

**Plazan mugitzea helburu**

Lagunarte dantza taldeak antolatu du ikastaroa. Aurten seigarrenez ekingo dute plazan mugitzeko dantzak erakustea helburu duen ekimena. Euskal dantzak erakutsiko ditu Iban Gartzia arrasatearrak. "Lagunartea dantza taldeko txikiei ere hark erakusten die dantzan", dio Rosa Mondragon dantza taldeko kideak.

Ikastaro horrek ekainera arte iraungo du eta kostua 60 euro izango da.

**Hainbat erakustaldi dituzte**

Iaz hamabost lagun ibili ziren dantzak ikasten; antolatzaileek espero dute aurten kopurua mantendu edo handitzea.

Dantza taldeak bi erakustaldi izaten ditu urtean: erretiratuen egunean egiten dena –urriaren 31n– eta Aramaioko jaietan egiten dutena. "Horrez gain, aparteko behar edo eskaerak ere egon daitezke –Korrika, adibidez–", azaldu du Mondragonek. Interesa dutenek gaur joan beharko dute eskolako gimnasiora.

# Bi peoi kontratatuko ditu Udalak hiru hilabeterako

Lanbide enplegu zerbitzuan izena emanda daudenen artean egingo dute hautaketa

A.E. | ARAMAIO

Udalak bi peoi kontratatuko ditu lanaldi erdian lan egiteko hiru hilabetez. Espazio publikoen eta espazio berdeen mantentze eta egokitzapenak egin beharko dituzte, eraikuntza, lorezaintza eta antzeko lanak eginda.

Lanbiden peoi orokor kategorian izena emanda duten pertsonen artean egingo dute hautaketa, eta ondoko sailetan egotea beharrezkoa izango da: diru sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaile izatea; 35 urte edo gutxiago izatea; 45 urte baino gehiago izan eta sei hilabetez lan barik egotea; 55 urtetik gorakoa izatea; desgaitasunen bat izatea; indarkeria matxistaren biktima izatea; iraupen luzeko langabea izatea; familia erantzukizunak dituzten emakumeak; eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan daudenak.

Interesatuek izena eman beharko dute edo Lanbiden curriculuma berritu beharko dute urriaren 9rako –barne–. Lan eskaintzaren erreferentzia zenbakia hau da: 162015008401.

## OHARRAK

**MARGO LEHIAKETA**

Itur Zuri elkarteak antolatuta, kaleko margo lehiaketa egingo dute astelehenean, urriaren 12an. Egin beharreko lanak 09:00etatik 11:00etara sinatuko dituzte; eta lanak entregatzeko epea 14:00ak izango da. Edonork parte hartu ahal izango du lehiaketan. Bi sail banatuko dituzte: nagusiena eta 16 urtetik beherakoena. Sariak 18:30ean banatuko dituzte. Gaia izango da: Aramaio eta ingurua.

**KZGUNEA**

KZguneko dinamizatzailea ondoko egunetan egongo da kultura etxean: urriaren 14an 18:00etatik 20:00etara eta urriaren 28an 18:00etatik 20:00etara egongo da dinamizatzailea.

**YOGA IKASTAROA**

2015-2016 ikasturtean zehar ere yoga ikastaroak eskainiko dituzte. Hasi nahi dutenei eta sakondu nahi dutenei zuzendutako eskolak izango dira. Zapatu arratsaldeetan elkartuko dira, 17:45etik 19:15era bitartean, ludotekan. Interesa dutenek 626 00 81 51 telefono zenbakira deitu beharko dute edo eskolara joan beharko dute zapatu arratsaldean. Kuxina, manta eta zerria norberak eraman beharko du ikastarora.

## NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA



# ARBE

Kurtso berria indarberrituta hasi dugu! Udako oporrak berriz noiz etorriko zain kurtso berriari gogotsu ekin diogu. Klase edo lanera bueltatzeaz aparte, maite eta gozatzen ditugun beste jardueretan murgiltzeko garaia da. Gure kasuan, bertso eskolako ateak irekitzeko garaia da.

Datorren astean irekiko ditu ateak Aramaioko bertso eskolak. Aurten gazte eta gaztetxoen hiru talde arituko dira kontuz eta kantuz euskararekin jolasean. Ea helduok ere jarraitzen dugun hauen eredua eta formalidadez ekiten diogun jardunari. Asko daukagu hauetaz ikasteko!

Gure familia heterogeneo eta bertsozalea berriz elkartu garela ospatzeko, jaia antolatu dugu datorren urriaren 16rako. Egun horretan gure galako arropak atera eta Sastiñan Julio Soto eta Unai Gaztelumendi bertsolari handiak hartuko ditugu. Eta noski, guztiok zaudete gonbidatuta!

Udazken honetako bertso agenda zitaz bete-betea daukagu, herrian ez da bertso konturik faltako: herriko zein kanpotik etorritako inprobisatzaile, gazte zein heldu, hasi berri edo beterano, guztiek izango dute kabida. Baina orain ez noa sorpresa guztiak argitzera! Gehiago jakin nahi duenak jarrai dezala bertsoaren arrastoa eta berandu baino lehen egingo dugu berriz topo!

**"Udazkeneko bertso agenda bete-betea dator"**

ELGETA

# Lehiaketak eta ipuin kontalariak Liburutegiaren Egunaren bueltan

## Urrirako hainbat ekintza iragarri dituzte; adibidez, 'Ezetz igarri!' lehiaketa

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Badator Liburutegien Nazioarteko Eguna, eta Elgetan lehiaketak, zozketak eta ipuin kontalari saio bereziak prestatu dituzte.

Urri hasiera ezkero martxan da *Ezetz igarri!* lehiaketa. Elgetako liburutegiko 12 urtetik gorako bazkideei zuzendua, bi idazleren izenak asmatu behar dira aurten. Liburutegiko arduradunak pistak ematen joango dira astelehenero, eta erantzun zuzena ematen duten erabiltzaileen artean liburu irakurgailu bat zozketatuko dute. Astelehenean eman zuten lehenengo pista-sorta, eta hurrengoak hilaren 12an, 19an eta 26an emango dituzte. Parte-hartzaileek urriaren 31ra arte epea dute erantzunak bidaltzeko. Liburutegian bertan eman daitezke erantzunak, edo liburutegira bidalitako Telegram pribatu bidez. Sari banaketa azaroaren 6an egingo dute.



Erabiltzaile taldea Elgetako liburutegian. | GOIENA

**Ipuinak eta zozketa**

Urrian, bestalde, bi ipuin kontalari saio izango dira; urriaren 23an eta 30ean. Lehenengoa boluntario taldeko kide batek egingo du eta bigarrena, Pedro Alabazan ipuin kontalariak. Bestalde, urrian zehar maileguren bat egiten duten erabiltzaileen artean liburu zozketa egingo dute liburutegian.

Eta astelehenetik eta Geaxi Ezpeleta itzuli bitartean Lierni Urbistondok artatuko ditu erabiltzaileak liburutegian.



NEREA VILLA

## Bandera morea La Belgan

Emakume guztien askatasuna aldarrikatu zuten zapatuan Elgetan. Emakumeen Mundu Martxarekin lotutako ekintzen barruan, herritar talde batek bandera morea zabaldu zuen La Belga posizioan. 36ko gerran frankistei aurre egin zieten emakumeak izan dituzte gogoan.

# Xabier Delttell eta bi antzezlan antzokian

**L.Z.** | ELGETA

Faemino eta Cansado bikotearen ostean, Xabier Delttell umorista ezaguna izango da Espaloia kafe antzokian. *Las canciones que me rayaron* izeneko umorezko bakarrizketa egingo du hilaren 16an, barikua, 22:30ean. Sarrerak salgai daude antzokian eta *www.entradium.com* atarian.



Xabier Delttell. | X.D.

**Umorezko bi antzezlan**

Eta aste bukaera berean *Purgatorio* eta *Colon...izando* antzezlan komikoak ikusteko aukera izango da Elgetan. *Purgatorio* antzezlanean bi lagunen arteko abenturak kontatzen dituzte. Zapatuan, hilak 17, egingo dute emanaldia, 22:30ean.

*Colon...izando* antzezlanean, berriz, Kristobal Kolon dibertigarriena aurkeztuko dute. Emanaldia hilaren 18an izango da, 19:00etan. Emanaldiaren aurretik, gainera, Eibarko bi neska gaztek egingo dute kantuan, Nuriak eta Sofiak. Sarrerak salgai daude.

### Abenduaren 5ean, 12:00etan, bisita gidatua Jasokunde Amaren elizako erretaula ezagutzeko

"Hurbildu Elgetara eta ezagutu italiar estiloko XVI. mendeko Santiagoren erretaula. Parte hartzeko izena eman behar da: 943 79 64 63 / *turismo@debagoiena.eus* / *info@ignaziotarlurraldea.com*".

KOMUNITATEA GOIENA
TURISMO DEBAGOIENA | DEBAGOIENA

## OHARRAK

**PILOTA TXAPELKETA**
Azken eguna, gaur, eskuz binakako pilota txapelketan izena emateko. Argibideak udaletxean.

**KIROL ESKAINTZA**
Hilaren 14an, eguaztena, hasiko dira *zumba* eta pilates saioak. Izen-ematea, udaletxean.

**AUZOLANA EGOARBITZAN**
Egoarbitzako herri basoa auzolanean garbitzeko dei egin du Udalak hilaren 12rako. Hitzordua: 08:30ean herriko plazan.

**GARBIGUNE IBILTARIA**
Salbador kalean izango da, eguaztenean, hilak 14.

**IKASTAROAK KZGUNEAN**
Dinamizatzailea KZgunean izango da hilaren 14an, eguaztena, 16:00etatik 17:30era.

LEINTZ GATZAGA

# Nagusiak zaintzeko balizko langileen zerrenda osatuta eta eskuragai dago

## Sei lagunek osatutako zerrenda udaletxean kontsulta daiteke, Gizarte Ongizate Sailean

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

"Geroago eta gehiago atzeratzen da nagusiak egoitzetara bidaltzeko aukera, familiak eurak ahalegintzen direlako haiek etxean zaintzen ahal duten eta luzaroen, eta gaur egun hori egin ahal izateko laguntza gehiago ere badagoelako, teknikoak, diru laguntzak edo bestelakoak. Leintz Gatzagan, adibidez, etxez etxeko laguntza zerbitzua dago halako kasuetarako, baina, gehienez jota, egunean hiru ordukoa izan daiteke. Aldiz, mendekotasun handia duten pertsonen beharrak asetzeko ez da nahiko laguntza, eta haien familiek aparteko langileak hartu behar izaten dituzte zeregin hori betetzeko; baina zailtasunak izaten dituzte halako lanak egiteko gertu dauden langileak lortzeko. Bada, herriko familia horiei laguntzearren egin zen deialdia, eta osatu da orain zerrenda hori", esplikatu du Ainara Gabilondok, Gizarte Ongizate Saileko teknikariak.

**Ingurukoak**

Hark emandako xehetasunen arabera, sei lagunek eman dute zerrenda horretarako izena, oraingoz. Gatzagakoak bertakoak, Eskoriatzakoak eta Aretxabaletakoak dira, hain justu ere. Horrenbestez, mota horretako langile bat kontratatzeko beharren bat duten Gatzagako familiek eskura dute langileen zerrenda udaletxean bertan. Are gehiago, horietako familia batek dagoeneko erabili du zerrenda etxerako behar duen langilea kontratatzeko.

LEINTZ GATZAGA

### Nafarroara joan dira gaur, egubakoitza, herriko erretiratuak

Azagran eta Vianan. Biotan ibiliko dira gaur Leintz Gatzagako hogei erretiratu Toki Eder erretiratu elkarteak antolatutako irteerari esker. 09:00etan udalerritik irten eta 19:30-20:00 inguruan dute bueltarako ordua. Bien bitartean, upategi bat bisitatuko dute, Vianako azoka txikira joango dira ondoren, eta, eguna borobiltzeko, Azagran egingo dute bazkaria.

Datorren asterako, berriz, beste hitzordu proposamen bat dute: urriaren 17an Pasai Donibanen egingo den nagusien martxara joatea. 08:15ean irtengo da autobusa herritik.

LEINTZ GATZAGA

### Kakorratz-lanak egiteko aukera egongo da aurten ere

Bigarren urtez, kakorratz-lanak egiteko edo egiten ikasteko tailerra antolatu dute Labidean. Asmoa da taldea osatu eta astean behin elkartzea, Labidean bertan, hala nahi duenak. Izan ere, eskola bakarrera edo gutxi batzuetara joan nahi duenak ere izango du horretarako aukera. Eskoletarako eguna zehaztu barik dago, interesa dutenen arabera egingo dute eta. Oraingo astean bertan egin dute guztia antolatzeko lehen batzarra. Beraz, xehetasunak erabakitzen direnean, jakinaraziko dituzte. Izen-ematea Labidean da.

# KIROLA

IGERIKETA

**Jon Mujika** | Bidasoa taldeko igerilaria

## "Talde-lanean irabazitako dominei aparteko garrantzia ematen diet"

- Espainiako Openean 4x100eko errelebotan domina jantzi gura du ostera
- Udan itsasoko zeharkaldietan ibili da; Flisch Beltza proba irabazi du

**XABIER URZELAI** | BERGARA

Jon Mujika (20 urte) bergararra beste ikasturte gogor baten aurrean dago. Bilborako bidea hartzen du egunero, Osteopatia ikasketak egiten dihardu, eta bazkaldu eta berehala Donostiara eramango duen autobusa hartzen du, han entrenatzen delako: "Ahal den neurrian, bidaia aprobetxatzen dut liburuak hartu eta zerbait errepasatzeko". Ondo daki igeriketak ez diola jaten emango, nahiz eta aurten ere Espainiako Txapelketan lehiatzeko gutxieneko marka poltsikoratuta duen: "Oso giro ona dugu taldean, eta, motibatuta nagoen bitartean, jarraitu egingo dut". Onenekin lehiatuko da aurten ere.

**Denboraldia hasi berritan zaudete, baina udan ez zara geldi egon. Itsasoko zeharkaldietan parte hartu duzu, eta, oker ez banabil, emaitza onak batuta.**

Bai, udako igeriketa saio horiek zaletasun modura egiten ditugu, giro onean ibiltzen garelako, eta lasterketa baten aitzakian beti antolatzen dugulako bazkari edo afariren bat.

**Flisch Beltza lasterketa irabazi berri duzu.**

Hala da, bai. Berez, Saturraran eta Deba artean egin behar genuen igeri, baina itsaso zakarra zegoen, eta, azkenean, Deban egin genuen lasterketa. Ez nuen irabaztea espero, distantzia luzeak direlako –zazpi kilometro– eta esperientzia handiko igerilariak zeudelako.

**Zuen benetako erronkak, baina, igerilekuan daude. Atzera eginda... zelan aukeratu zenuen kirol jarduera hori?**

Gazte-gaztetatik hasi nintzen igeriketan, gurasoek animatuta. Eta gogoan dut ez zitzaidala batere gustatzen, baina igeri egiten ikasi behar nuela esaten zidaten, eta hala hasi nintzen. Gero, 5 urte ingururekin Bergarako klubean hasi nintzen igeri egiten, eta ondoren beste talde batzuetan ibili nintzen, Bidasoatik deitu zidaten arte.

**Eta gaur egun zer esan gura du Bidasoa moduko puntako talde baten lehiatzeak?**

Bidasoak deitu izanak asko poztu ninduen, nolabait esateko, urtetan egindako lanaren saria delako. Entrenamendu zorrotzagoak egiten dituzte, baliabide gehiagoko kluba da, Espainiako Kopara eta halako lasterketetara eramaten zaituzte... Sari bat da, azken batean.

**Espainian lehiatzen zarete, baina nazioartera jauzi egitea zail dago?**

Bai, oso zaila da, oso. Gu, azken batean, Espainiako Txapelketarako gutxieneko markak lortzeko gauza gara, eta modu nahiko errazean lortzen dugu hori, baina hortik Europara salto handia dago. Esaterako, Markel Alberdi [Igerilari eibartarrak Rioko Joko Olinpiarretarako sailkatzea du helburu] gaur egun sei orduz entrenatzen da igerilekuan, goiz eta arratsalde ibiltzen da horretara, eta dedikazio handia da hori. Ni astean sei egunez entrenatzen naiz, eta laster, goiz eta arratsaldez entrenatuko naiz, baina jauzi handia dago. Nire helburua, orain momentuan, igeriketa eta ikasketak ahalik eta ondoen bateratzea da.

**Zeintzuk dira datozen hilabeteotako erronkak?**

Azaro amaieran igerileku motzeko Espainiako Txapelketa izango dugu, baina horri ez diogu horrenbesteko garrantzirik ematen; izan ere, urtarril amaieran Espainiako Kopa jokatuko dugu, eta klub mailan txapelketa garrantzitsuagoa da hori. Eta ondoren, hitzordu garrantzitsuena martxoan izango dugu, Espainiako Opena. Hor benetako saltsa egoten da, Olinpiar Jokoetara joateko jendeak hor egin behar dituelako markak.

**Azken urteotan 4x100 errelebotako lasterketetan podiumera igo zarete. Aurten?**

Bada, aurten ere hor ibili beharko dugu [Barre]. Azken bi urteotan zilarra eta brontzea lortu ditugu, eta aurten ere saiatu egin beharko dugu.

**Taldean lortutako dominak bereziak dira?**

Baietz esango nuke. Eta taldean lehiatzeak norberaren onena ateratzen du. Lorpen bereziak izaten dira horiek, zalantza barik.

**Diozu laster goiz eta arratsalde entrenatuko zarela. Dena egiten duzue igerilekuan?**

Orain momentuan denboraldi hasieran gaude, eta helburu nagusia bolumena lantzea da. Horretarako, igerilekuan ibiltzen gara, baina bizikletan ere jarduten dugu, eta baita gimnasioan ere.

**Osteopatia ikasten ari zarela aprobetxatuta... bizkarrerako, dioten bezain kirol ona da igeriketa?**

[Barre]. Bai, kirol aproposa da bizkarra lantzeko. Nik ez dut igeriketan aparteko lesiorik izan. Akaso, gainkargak eta halakoak bai, baina gehiago izan da gimnasioan behin eta berriro ariketa berak egitearren. Noski, osasungarria da ordubetez igeri egitea, hiru orduz jardutea, edo lasterketetan ibiltzea... Bada, akaso larregi izango da.

**Eta, zer esan igeriketa kirol aspergarria dela diotenei?**

Arrazoi osoa dutela [Barre]. Gauzak diren moduan, igeriketa oso kirol aspergarria da. Pentsa guk zenbat ordu egiten ditugun igerilekuan batera eta bestera, batez ere orain, bolumena lantzea tokatzen zaigula: klasean emandakoa mentalki errepasatzen dut, egunean zehar gertatu zaidana... Milaka buelta buruari! Azterketa sasoian ondo etortzen da, ikasitakoa errepasatzeko [Barre].

**Zer eskatzen diozu igeriketari?**

Ondo pasatzen jarraitzea, beste barik. Igeriketari esker lagunak egin ditut Euskal Herriko bazter askotan, eta kirol emaitza on bat lortzea emozionantea izaten da.



Jon Mujika, *Harmailatik* saioa hasi aurretik. | XABI URZELAI

> **"Oraingoz daukadan helburua igeriketa eta ikasketak ondo bateratzea da"**

> **"Europan lehiatzeko koska handia gainditu behar da"**

---

ERRUGBIA

## Etxekoen aurrean estreinatuko da Arrasate bihar

**X.U.** | ARRASATE

Kategoriaz ez igotzeko "erabaki gogorra" hartu ostean, asteburuan hasiko du Kanpanzar Arrasatek liga. Berez joan den astean hasi zuten Euskadiko Bigarren Mailako lehiaketa, baina Isasiren mutilei atseden hartzea egokitu zitzaien, eta Gernika B taldearen bisitarekin hasiko dute lehia, zapatuan, Mojategin (16:30). Hain zuzen, gernikarrek irabazi egin zuten joan den astean, eta dagoeneko pilatu dituzte denboraldiko lehen bost puntuak.

### Indarrak parean

Berez goiko kategorian lehiatzeko asmoa zeukan Kanpanzar Arrasate aurrealdean ibiltzera *derrigortuta* dago. Isasik berak garbi dauka hori: "Nahiz eta aurrean ibiltzeko gauzak ondo egin beharko ditugun. Izan ere, hainbat talde izango gara maila antzerakoaz, iaz moduan". Hala ere, entrenatzaile bizkaitarrak garbi dauka lehenengo helburua lehen fasean talde onenekin egotea izango dela, eta hurrengo faserako sailkatzea. Eta, fase erabakigarrian, ahal den neurrian, aurrean ibiltzea: "Ostera ere kamioira igo eta zer ospatu izateko".

### Aurrean ibiltzeko nahiaz

Hala, Kanpanzar Arrasatek 2. Mailako B multzoan jokatuko du, eta ondorengo kontrarioak izango ditu aurrean: Txingudi, Gaztedi B, Zarautz B, Gernika B, Arratiko eta Nerbioi. Denboraldiko lehen fasea liga erregularra izango da, eta bi multzo izango dira. Hala, bi multzo horietako bi talde onenek aurrera egingo dute, eta beste fase bat osatu. Bertan lau taldetako hiru multzo izango dira, eta beste bat hiru taldetakoa.

Hala, bigarren fase horretan ere talde bakoitzak seina partidu jokatuko ditu. Eta fase horretako txapelduna zuzen igoko da mailaz, eta bigarren sailkatuak *playoff* kanporaketa gainditu beharko du. Hala, Kanpanzar Arrasateren benetako lekua goian dagoela erakusteko modu onena izango da aurten ere txapeldunaren txapela janztea, eta, hala ez bada, mailaz ez igotzeko hartutako erabakia ondo hartutakoa izango da.



Munduko Txapelketan distantzia luzean –100 km– txapeldunorde izan den Asier Cuevas, ezkerrean, plazara sartzen. | GOIENA

ATLETISMOA

# Arrasateko eta Oñatiko atletak, iazko lehia errepikatzeko itxaropenarekin

## Bihar, zapatua, egingo dute 32. Arrasate–Oñati lasterketa; 11,8 kilometro ditu, eta horietako asko bidegorrian egingo dituzte

XABIER URZELAI | ARRASATE

Azken ordura arte ez da jakiterik egongo iaz Oñatiko eta Arrasateko atleten arteko lehia polita bihar (17:00, Arrasateko Portaloia) errepikatu ahal izango den edo ez. Oñatiarrak errebantxa gogoz egongo dira; izan ere, gizonezkoetan Endika Donnayk irabazi zuen (39.17) eta emakumezkoetan Nere Arregi izan zen onena (48.49). Eta, hain zuzen, bigarren postuetan bi oñatiar sailkatu ziren, Yeray Varela (39.26) eta Estela Biain (50.11).

Emakumezkoen artean lehia ez zen horren estua izan, Arregik bakarrik egin zuen-eta ia lasterketa osoa; bi minutuko tartea atera zion Biaini. Baina gizonezkoetan, Donnayren eta Varelaren artean indarrak parekoago egon ziren. Berez, Arrasatekoa gorputzaldi hobean iritsi zen hitzordura, Varela goiz harrapatu zuen lasterketak, eta hilabete batzuk geroago erakutsi zuen Oñatikoak aurpegirik onena. Hala ere, Varela Oñatiko sarrerara arte Donnayren erritmoari eusteko kapaz izan zen, eta pare bat kilometro geratzen zirenean egin zuen Arrasatekoak aurrera. Erlaxatu ere egin zen Donnay, eta helmugako azken zuzenean ezustean harrapatu zuen Varelak azken 300 metroetan egin zuen ahalegin beteak, ia harrapatu zuen. Hala, bederatzi segundoko aldearekin Arrasatera eraman zuen txapela –eta txantxikua– Donnayk.

Hala, iazko irabazleek dagoeneko eman dute izena, baina ordezkari oñatiarrek azken orduan erabakiko dute lasterketan egon edo ez: "Egia esan, ondo entrenatu ezinka nabil, Akilesen tendoi biak oso minduta dauzkadalako. Pena handia ematen dit lasterketan ez egoteak, eta azken ordura arte ez dut erabakia hartuko", adierazi du oñatiarrak aste barruan.

### Eguenerako 270 izen-emate

Iaz 280 korrikalari iritsi ziren helmugara, eta Goienako erredakzioa itxi denerako –eguen eguerdia– 270 lagun inguruk emana zuten izena: "Iazko zenbateko antzerakoan ibiliko gara", adierazi du Osinaga antolatzaileak. Urtero moduan, lasterkariak 17:00etan abiatuko dira (11,8km), baina oraingoan bai patinatzaileak eta baita korrikalariak ere Garibain hasiko dira korrika, eta ez Portaloian, azken urteotan moduan.

MENDIKO BIZIKLETA

# Iban Altuberen omenezko V. martxa domekan

## 36 kilometro izango ditu ibilbide luzeak

X.U. | BERGARA

Domekan egingo dute, Iban Altuberen lagunarteak antolatuta, Oñatiko mendiko bizikleta martxa. Eguna urtero moduan hasiko dute, omenaldi xume baina hunkigarriarekin, eta ziklistak 09:00etarako martxan jarriko dira –izen-ematea 08:00etatik 09:00etara, plazan bertan–, antolatzaileek aurreikusitako bi ibilbideei aurre egiteko gertu. Luzeak 36 kilometro izango ditu; motzak, 30.

### Haurrak 10:30ean plazan

Gaztetxoendako ere bizikletan ibiltzeko irteera prestatu dute, bost kilometroko irteeratxoa izango da, eta ondo lagunduta joango dira gaztetxoak, Markel Irizar izango dute-eta ondoan.



Iaz, txirrindulariak martxa hasi berritan. | GOIENA

MENDI LASTERKETAK

# Apirilaren 10ean egingo dute II. Arrasate-Udalatx lasterketa

X.U. | ARRASATE

Mondraitz taldeko ordezkariek aste barruan bertan eman dute aditzera noiz izango den Arrasate-Udalatx lasterketaren bigarren edizioa: apirilaren 10a (domeka). "Lasterketari dagokionez ez dugu aldaketa handirik aurreikusten. Lehenengo edizioa arrakastatsua izan zen, eta ildo beretik jarraitu gura genuke", adierazi du Mondraitz kirol taldeko Iker Sarabiak.

### Izen-ematea handitu

Hori bai, aurtengo edizioan 250 lagunek eman dute izena, eta hori handitu gurako lukete.



Kortazar, Udalatxen. | ARNAITZ ERASO

Goiena Klubeko urriko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



HP Imprimagailua/ Eskanerra

Parte hartzeko sariaren izena: HP



CD-DVD
Korrontzi & Bos (3 CD-DVD)
Parte hartzeko sariaren izena: Korrontzi



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuak
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



ARRIKRUTZ oñatiko kobak

Sarrerak
Arrikrutz kobetarako sarrerak
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

PARTE HARTZEKO:
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus
WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

EROSKI ARRASATE

TXIRRINDULARITZA

# "Ametsa beteta" agurtu du Eneko Lizarraldek urtea

## Bergarako ziklistak Tour de Vendee-ko klasikoarekin amaitu du denboraldia; selekzioarekin ere jardun du

X.U. | BERGARA

Murias taldeko ziklista Eneko Lizarraldek Tour de Vendee-ko klasikoa lehiatuta amaitu du profesionaletan egin duen lehenengo urtea: "Urte gogorra izan da, baina aldi berean oso polita, gaztetatik idolotzat izan ditudan txirrindulariekin lehiatzea izugarria izan delako. Orain, datorren urterako indarrak hartu behar ditugu, ametsak betetzen jarraitzeko".

**Baita selekzioarekin ere**

Lizarralderendako, esperientzia hartzeko urtea izan da, eta Muriasekin Kontinental Mailan lehiatzeaz batera Espainiako selekzioarekin ere jardun du, 23 urtez azpikoetan, abuztu amaieran, Etorkizuneko Tourrean. Han, selekzioko taldekideen lanari esker, Marc Soler (Movistar) kataluniarrak maillot horia jantzi zuen, eta selekzioko seikoteak etorkizun galanta duela erakutsi zuen: Lizarraldek taldea osatu zuen Imanol Estevez, Julen Amezketa, Cristian Rodriguez, Fernando Barcelo eta Marc Soler ziklistekin.



Murias taldeko Eneko Lizarralde. | MURIAS

**Etorkizuna zehazteke dago**

Errepidean batutako urte onarekin gozatuta, baina, ikusteke dago Bergarakoa non egongo den datorren denboraldian: "Orain, opor egun batzuez gozatuko dut; badakigu taldeak jarraituko duela, baina ziklistoi ez digute ezer aurreratu; oporretatik bueltan emango dizkigu Odriozolak xehetasunak".

Berez, Murias proiektua ez zen urtebeterako bakarrik jaio, eta konfirmatuta dago 2016an errepidean egongo direla, baina oraindik ez dute kategoria zehaztu. Hau da, ikusteko dago Muriasek Kontinental Mailan jarraituko duen edo Kontinental Profesional Mailan.

Odriozolak berak proiektua egonkortzea gura du, ze mailatan egongo diren jakiteaz itsutu barik, baina ez du saltoa 2016an izan daitekeela baztertzen. Hala, hainbat mediotan azaldu moduan, bi milioi eta erdi beharko lituzkete salto hori emateko, eta ametsa bete ahal izateko: Euskal Herriko Itzulian parte hartzea.

**Urte positiboa**

Odriozolak berak urtearen balorazio positiboa egin du: "Egutegi on bat izatea zen benetan garrantzitsua, maila handiko lasterketetan parte hartuz, eta hori lortu dugu".

SQUASH-A

# Euskadiko beteranoen txapelketa Arrasaten

X.U. | ARRASATE

Musakolako kantxan jokatuko dute asteburuan Euskadiko beteranoen squash txapelketa, eta antolatzaileek aurreikusten dute 35 lagunek hartuko dutela esku.

Partiduak gaur, egubakoitza, bertan hasiko dituzte (17:30), aurre-faseko partiduekin. Hala, fase hori amaitzerakoan jokatuko dituzte koadro nagusiko lehen kanporaketak, eta hor aurrera egiten ez duenak kontsolazio-fasea izango du zain.

Zapatuan, 09:30ean hasita, partidu mordoa egongo da ikusgai Musakolako kantxetan, eta, urtero moduan, partidu erabakigarriak arratsalderako utziko dituzte. 17:30ean hirugarren postua eskuratzeko partiduak izango dira. Kontsolazio koadroko finala ere orduan izango da, 18:30ean emakumezkoen finala izango da eta 19:00etan, berriz, gizonezkoena.

Urtero moduan, AKE Squash taldeak kirol hori herritarrengana zabaldu gura du, eta partiduak ikusteko sarrera doakoa izango da.

PILOTA

## Paleta gomazko modalitateko partiduak gaur Bergaran

Gipuzkoako Txapelketa barruan paleta gomazko partiduak egongo dira gaur jokoan Bergarako munizipalean (19:30ean hasita). Eta emakumezkoen partiduak izango dira; hala, Bergarako ordezkari Idoiak eta Maiderrek Su-Berri taldekoak izango dituzte aurrean. Arratsaldeko lehenengo partidua izango da hori, eta ondoren, senior mailan erakustaldia egingo dute lagunarteko partidua jokatuta, hor ere gomazko paleta modalitatean.

MENDIA

## Alex Txikonek berbaldia egingo du hilaren 13an, Besaidek antolatuta

Arrasateko Kulturateko areto nagusian izango da Alex Txikon mendizalearen berbaldia datorren martitzenean (19:00). Bizkaitarrak badu zertaz jardun, gaur egunera arte egin dituen proiektuak izango ditu-eta berbagai, baina abenduan bertan Nanga Parbatera abiatuko da, negu sasoian egingo duen azkenaurreko zortzimilakoa egitera. Talde indartsua osatu du, Ferran Latorre Janusz Golab, Ali Sadpara eta Daniele Nardirekin batera.

FUTBOLA

## Oñatiko Athletic-zaleek Arrikrutzeko kobetan ospatuko dute 10. urteurrena hilaren 14an

X.U. | OÑATI

Oñatiko Zurigorri Taldeak hamar urte beteko ditu aurten, eta taldeko ordezkariak buru-belarri dabiltza urteurreneko ospakizun ekitaldia prestatzen. Berez, datorren eguaztena da egun handia, hilak 14, Athleticeko hainbat ordezkari etorriko dira-eta Oñatira. Hain zuzen, bisita berezia izango da, eta zuri-gorriek Arrikrutzeko Kobak bisitatuko dituzte: "Oraindik ez digute zehaztu ze jokalari etorriko diren, baina badakigu pare bat jokalari, pare bat jokalari ohi eta zuzendaritzako hainbat ordezkari etorriko direla; baliteke tartean Urrutia presidentea ere egotea", azaldu du David Blazquezek.

**Lehoia bisitatzera**

Harrera 18:00 aldera egingo dute, eta, gehienez 60 lagunendako tokia dagoenez, ekitaldira joateko asmoa zutenek aurrez eman behar izan dute izena: "Koba barruan ez dagoelako leku handirik. Hala, badakigu Arrikrutzeko lehoiarekin ekitalditxo bat egingo dutela, eta ondoren, kanpoan, zaleekin lasaiago egon ahal izango direla".



Athleticeko hamaikakoa iazko derbian. | ARITZ GORDO

FUTBOLA



Bergararen eta Antzuolaren arteko derbia. | IMANOL SORIANO

## Derbi bikoitza oraingo asteburuan Agorrosinen eta Mojategin

X.U. | ARRASATE

Aurtengo denboraldian, Erregional Preferente Mailan jokatuko dituzte Debagoieneko taldeen arteko derbiak, UDA eta Aloña Mendi gorago daude eta. Bada, oraingo asteburuan aukera bikoitza izango da, Agorrosinen (Bergara-Antzuola) eta Mojategin (Mondra-Aretxabaleta), hain zuzen ere.

Hala, zapatuan (16:30), bi puntuko aldea duen Mondrak (7) Aretxabaleta (5) hartuko du, eta ordu berean baina domekan (16:30) beste derbi erakargarri bat egongo da, Bergarak (4) Antzuolaren (1) kontra jokatuko du, dagoeneko konpondu duten Agorrosingo berdegunean.

**UDAk Deustoren bisita**

Hirugarren Mailan, Aretxabaletak estu hartu zuen joan den astean Zamudio (1-0). Atzealdeko postuetan dagoen UDAk erraztasun gutxi eman zizkion liderrari, baina esku hutsik itzuli ziren Valleren mutilak. Eta joera negatibo hori etetea dute helburu. Domekan (16:30), zazpigarren postuan dagoen Deusto hartuko dute Ibarran.

**Aloña Mendik**

Eta Ohorezko Erregionalean ere sailkapenean ondo-ondoan dauden bi talde izango dira aurrez aurre domekan (16:30, Azkoagain): Oñatikoek Real Union hartuko dute.

# UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA

Argazki guztiak fotoblog honetan: ***blogak.goiena.eus/argazkiak***

**Baita hemen ere:** udakoargazkiak udakoargazkiak

## Hauek dira irabazleak!

**1**



**BARTZELONA.** Amaia Santamaria/Bergara Oporrak ondoen laburbiltzeko balio duen argazkia. Ohikoa da seme-alabak aitita-amamekin uztea. Kasu honetan, berriz, aitita-amamak erlaxatze momentuan daude biloba bere asmakizunarekin jolasean dagoen bitartean...

**2**



**URKULUKO ILUNKARA.** Asier Atxa/Aretxabaleta Umeak jolasean. Urtean zehar, eskolaz kanpoko ekintzekin lanpetuta egoten dira, eta oporretan jolaserako denbora izaten dute. Urkuluko urtegian benetan ongi ateratako argazkia!

**3**



**HEGAZ.** Isabel Muñoz/Arrasate Lana alde batera utzi eta oporretako askatasuna nabarmentzen da argazkian.

### HERRITARREN SARIA



**CASTRO URDIALES.** Garbiñe Alkorta/Aretxabaleta Castro Urdialesen ateratako argazkiak jaso ditu boto gehien.

### BOTO EMAILEEN ZOZKETAN IRABAZLEA

**Oihane Lezeta Urkia**
(Oñati)

**EHUNDIK GORA LEHIAKIDE** Aurtengo edizioan lagun askok hartu dute parte. Argazki ugari jaso ditugu. Batzuk freskoak direlako, beste batzuek barrea eragiten dutelako; teknika aldetik zainduta daudenak jaso ditugu, eta baita erretratua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiek dute gurean lekua; horrenbestez, datorren urtean ere animatu!

**GOIENA POZIK** Hamaikagarren edizioak erakutsi du debagoiendarren artean lehiaketa finkatu dela. Alde horretatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartzea handia izan delako. Eskerrik asko denei.

**Urriaren 16ko egubakoitzeko GOIENA paperean izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.**

### Sariak



**1. saria**

Nikon D3200 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Aretxabaletako Begira argazki-dendaren eskutik.

- 24 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-12.800 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugar

2


3


HERRITARREN SARIA




**2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
**Herritarren saria:**
Amazon Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
**Boto emaileentzat saria:**
Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

**ANTOLATZAILEA:** goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**LAGUNTZAILEAK:** Begira argazkilaritza · ARRASATE BIDAIAK · GURE AMETSA JATETXEA · EROSKI ARRASATE · karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

# KULTURA

# Ikuskizunez beteko dira Antzuolako kale bazterrak Artekale Egunean

▶ Urriaren 18an, domeka, egingo dute eta hainbat eratako emanaldiak izango dira kaleetan

▶ Punta-puntako euskal konpainiekin batera herriko hainbat taldek jardungo dute

**MIRARI ALTUBE** | ANTZUOLA

Antzezlanak, zirku ikuskizunak, musika emanaldiak, pailazoen saioak... hori eta gehiago izango da urriaren 18an Antzuolan. Izan ere, Artekale Eguna ospatuko dute, Euskal Herriko Kale Arteen Elkarteak antolatuta.

**Luxua Antzuolarendako**

"Ospatzeko egun bat da; kale antzerkian jarduten dugunok elkartzeko eguna. Baita kalea agertoki bihurtuta, eta jai giroan, aldarrikapenerako eguna ere. Urrian egingo dugu, konpainia gehienok bukatu dugulako udako denboraldia", jakinarazi du Oihulari Klown taldeko kide Virginia Imazek. Hain zuzen, Oihulari Klownek hartu du laugarren edizioa antolatzeko ardura, Antzuolan egoitza duen konpainiak. Lehen edizioa Otxandion egin zuten; bigarrena, Gopegi-Zigoitian; hirugarrena, Hondarribian; eta Gipuzkoan jarraituko dute laugarrenean. "Herri txiki batean egitea lehenetsi dugu. Antzuolako Udalarekin harremanetan jarri ginen eta jarrera ezin hobea erakutsi zuen; hortaz, aurrera", gaineratu du Imazek, pozik.

Antzuolarendako luxua dela onartu du Beñardo Kortabarria alkateak: "Bat-batean kale ikuskizunak eskaintzen dituzten Euskal Herriko hamar edo hamabi konpainia elkartzea ez da egunero suertatzen...". Eta Oihulari Klownen bitartez iritsitako proposamenari baietza eman zioten, "zalantzarik izan gabe". Baita eskura dituzten baliabideak eskaini ere. "Hiri handietan ikuskizun asko egongo dira asteburu batean, eta hemen noizean behin bat egoten da. Horregatik, benetan pozgarria da halakoei tokia egitea".

**Ikuskizunekin kalejira**

Jaialdia eguerdi partean hasiko dute kalejirarekin. Euskal Herriko hainbat puntutatik etorritako hamabi konpainia elkartuko dira Beheko auzoan, eta, 12:00etatik 14:00etara bitartean, emanaldiz betetako kalejira egingo dute, Herriko Plazara iritsi arte: "Zirkuko ikuskizun motzak, antzezlanak, dantza emanalditxoak, *clown* saioak eta gehiago eskainiko dituzte", dio Imazek. Antzuolako taldeek ere izango dute tokia kanpotik datozenen artean. Irekiera ekitaldian, esaterako, *breakdance* taldeak hartuko du parte. Eta horren ondoren, erretiratuen abesbatzak, trikitilariek eta txistulariek emanaldiak egingo dituzte.

Arratsaldean, ostera, bi ikuskizun izango dira. 17:00etan, Herriko Plazan, Toni La Sal eta Dramagia taldeek elkarlanean egingo dute *La famiglia Torombole*. Umorez bustitako magia ekarriko du Dammiano Toronbole nazioarteko magoak, eta txotxongiloak lagun dituela etorriko da Tonino Toronbole, biak ala biak eskaintzeko: "Munduko ikuskizunik handiena!".

Eta 18:15ean, Zurrategi plazan, etxeko taldeak jardungo du. Tira Ta Floja taldearekin elkarlanean *Trostan* ikuskizuna eskainiko du Oihulari Klownek. Virginia Imazek zuzendutako lanean zaldi bihurtuko dira Karmelo Muñoz eta Toni Iglesias aktoreak, eta, hitzik esan gabe, familiako kide guztiei irribarrea sortzeko gai izango dira.

**Jaia eta aldarrikapena**

Artekale elkartea orain dela hamar urte sortu zuten eta osatzen dute antzerki konpainiek, udalek, jaialdiek eta programatzaileek: "Sektore guztiak elkartzen dituen estatuko bakarra da", dio Imazek. Hainbat jaialdi antolatu izan dituzte eta beste hainbatetan parte hartu, horien artean daude Bilboko Kalealdia, Gasteizko KaldeArte eta Leioako Umore Azoka.

Elkartearen helburua da kaleko arteen sektorea ezagutzera ematea eta arte horren duintasunaren alde lan egitea. Horregatik, zera aldarrikatzen dute: "Argi eta garbi esaten dugu badaudela ikusi beharrekoak, partekatu beharrekoak, ezagutu beharrekoak... Ehunka jai eta hitzordu, milioika artista, milioika ikus-entzule, eta gu, hirian ari garen artista hiritarrak hori eraikitzen ahalegintzen gara, egunez egun! Gure lanbidetik bizi izateko eskubidea aldarrikatzen dugu. Arteak mundua salba dezakeela uste dugu. Baina lehenengo, eta beste ezer baino lehen, hori guztia libre den kalean egin ahal izatea aldarrikatzen dugu".

**Debagoeindarrak gonbidatuta**

Debagoiendar guztiak gonbidatu gura izan ditu alkateak Artekale Egunera: "Ikuskizun polita izango da, diferentea, eta Antzuolak beti ondo hartu ditu kanpokoak, baita bertakoak ere. Hortaz, jendea gozatzera etor dadila!"



Dammiano eta Tonino Toronbole artistak kalean. | TONI LA SAL ETA DRAMAGIA



Karmelo Muñoz eta Toni Iglesias zaldi bihurtuta. | OIHULARI KLOWN

**ESANAK**

**"Kale antzerkian gabiltzanok elkartzeko eguna da"**

VIRGINIA IMAZ | OIHULARI KLOWN

**ESANAK**

**"Benetan pozgarria da halakoei tokia egitea"**

BEÑARDO KORTABARRIA | ANTZUOLAKO ALKATEA

**URRIAREN 18KO EGITARAUA**

**12:00** Konpainien kalejira Beheko auzotik Herriko Plazara.

**17:00** *La famiglia Torombole* ikuskizuna Toni La Sal eta Dramagia taldeekin, plazan.

**18:15** *Trostan* ikuskizuna Oihulari Klown taldearekin, Zurrategi plazan.

**KALEJIRAKO TALDEAK**

**Bapatean**
*Clown*-a, antzerkia, musika eta zirkua .

**Salitre**
*Clown*-a eta umorea.

**Barre**
Eskujokoak eta umorea.

**Jon Zabal**
Ilusionismoa eta psikologiadun ikuskizuna.

**Turukutupa**
Sormenezko birziklapena eta musika.

**Dikhotomia**
Zirkua "lengoaia gisa".

**Malas Compañias**
Zirkua eta kale-antzerkia, "begirada bereziarekin".

**Suhar Prest**
Aire akrobaziak, *clown*-a eta antzerkia.

**Oihulari Klown**
*Clown* ikuskizuna.

**Glo Zirko**
Dantza eta zirku fusioa.

**Hortzmuga**
"Mugiarazteko" antzerkia.

**Zanguango**
Umore absurdua eta ironia.

**HERRIKO TALDEAK**

- ▶ Erretiratuen abesbatza
- ▶ Txistulariak
- ▶ Trikitilariak
- ▶ 'Breakdance' taldea

# Euskal kantuak, ama-semeen eskutik

## Amaia Zubiria eta Edorta Amurua bikotea Arkupe kultura etxean izango da eguenean, 19:00etan

A. ARANBURUZABALA | ARETXABALETA

Amaia Zubiria eta Edorta Amurua: ama eta semea elkarrekin kantuan. Bikote formatuan izango dira, Arkupe kultura etxean, urriaren 15ean, 19:00etan.

Sarrerak kontzertuaren bezperan, eguaztenean, eta kontzertuaren egunean eskura daitezke Arkupen, 4 eurotan.

**Ama, kantuan; semeak, gitarra**

Urteak daramatzate elkarrekin bikote moduan kantatzen. "Ondo moldatzen gara taularen gainean, horretarako ezinbestekoa da bizitzan ondo eramatea, etsaiarekin ezin da lanik egin; nik ez, behintzat", dio Zubiriak, eta zera gaineratu du: "Edortak badu bere taldea, Guajiroak, bertsioak egiten dituen Nafarroako taldea, eta horiekin gustura jarduten du, musikari profesionalen zurrunbiloan murgiltzeko asmo handirik barik. Nirekin, baina, salbuespena egiten du. Badira Edorta baino musikari osatuagoak, profesionalagoak; askorekin kantatu izan dut, baina harekin beste konplizitate bat dut. Euskal kantu asko dakizki, nik baino gehiago, eta abantaila handia daukat horrekin. Bikoteak egin behar ditugunean prest izaten da elkarrekin jotzeko, eta erraztasun handiak ematen dizkit. Ez naiz oroitzen noiz eta nola hasi ginen horrelako emanaldiak egiten, norbaitek zerbait berezia egiteko eskatuko zidan, seguru, eta nik semeari proposatu, hark ezetz esango zidan hasieran, eta baiezkoa gero. Gitarra eskuan izaten du hark, eta, horrez gainera, kantuan ere laguntzen dit".



Amaia Zubiria eta Edorta Amurua ama-semeak kantuan. | A. Z.

**Zubiriarenak eta tradizionalak**

Ordubete eta erdi inguruko emanaldia egingo dute, kantu propioekin eta herrikoiekin osatuz errepertorioa: "Nire abestiak izaten ditugu oinarri, baina, jakina denez, hastapenetatik izan dut kantu herrikoiekiko lotura handia, eta, nola ez, eroriko dira, bai, horietako batzuk ere. Orokorrean, entzuteko kontzertua izango da, baina azken bisetan, ikusleekin batera kantatzeko gonbidapena egingo dugu".

**Mikroa alboratzeko asmorik ez**

Modak etorri eta joan egiten direla dio Zubiriak, baina publiko fidela duela aitortzen du; hortaz, ahal duen artean kantuan jarraitzeko asmoa duela dio.

# Bertsoekin emozioetaraino iristeko programa abian da

M.A. | ARRASATE

Aldundiak eta Lanku Bertso Zerbitzuak elkarteak elkarlanean martxan jarri dute aurten ere *Adin-adin* programa. Ekimen horren bidez, hamaika bertso saio eskainiko dituzte Gipuzkoako adinekoen egoitzetan. Bergarako Mizpirualde egoitzan, Maider Arregik eta Joxe Luis Gorrotxategik bertso saioa eskainiko dute urriaren 15ean; eta azaroaren 12an Arrasateko Iturbide egoitzara joango dira –biak 17:00etan–.

Mizpirualde egoitzako psikologo Orbaiz Formosok positiboki baloratu du ekimena: "Komunitatean egiten diren ekintzak bertaratu egiten dituzte. Entzuten dituzten bertsoekin konektatu egiten dute eta gaztaroko eta familia giroan bizitako uneak gogora etortzen zaizkie". Bertsoak adineko pertsonengan duen eragin positiboa azpimarratu gura izan du. Iturbide egoitzako koordinatzaile Olatz Etxabek dio aurtengo saioa dinamikoagoa egingo dutela; hala, aurrez bertsoak ikasita izango dituzte.



*Marina* operaren pasarte bat. | MANU GALLARDO

# 'Marina' gaztelerazko opera euskarazko azpitituluekin jarraitzeko aukera izango da

## Arrasateko Amaia antzokian hilaren 31n, zapatua, izango da emanaldia, 20:30ean hasita

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Lehenengoz, euskarara itzulitako opera bat –euskarazko jatorrizkoa ez dena, alegia– eta euskarazko azpitituluekin jarraitzeko aukera izango da Amaia antzokian urrian. "Opera ia guztiak italieraz daude eginda; orain arte gaztelerazko azpitituluak bakarrik izaten zituzten. Baina Ozenkik aurrerantzean lan guztiak euskarara itzultzeko erabakia eta konpromisoa hartu du", azaldu du Ozenki elkarteko Manu Gallardok. "Arrasaten izanda, ezinbestekoa da ikuskizuna disfrutatzeko aukera euskaraz eskaintzea publikoari. Gure iniziatiba izan da, eta lehentasuna eman gura izan diogu euskarari. Gazteleraz bai, baina euskaraz ere itzulpenak egotea ezinbestekoa dela iruditzen zitzaigun", azpimarratu du.

**Itzultzeko konpromisoa**

"Errekurtso txikiak ditugun arren, gure erabakia izan da itzulpenekin aurrera egitea. Udalari laguntza eskatu diogu, baina, eman edo ez eman, dagoeneko Arrasateko Belaxe enpresak itzulpena egin du. Belaxetik esan digute horrelako testu bat itzultzea erronka izan dela eta gustura hartu dutela lana".

Erabaki tinkoa hartu du Ozenkik, eta, aurrerantzean, gazteleraz gain, euskaraz opera jarraitzeko aukera izango da Amaia antzokian.

**'Marina'**

Emilio Arrieta nafarraren lana da *Marina*. "Obra gutxi daude gazteleraz, baina *Marina* gaztelerazko lana da, eta euskarazko azpitituluekin jarraitzeko aukera izango dute opera-zaleek lehenengoz Amaian". Urriaren 31n, zapatua, 20:30ean izango da emanaldia.

**Sarrerak, ondo saltzen**

Manu Gallardok azaldu du sarrerak ondo saltzen ari direla: "Dagoeneko sarreren bi herenak salduta daude; oraindik, baina, interesa duenak badauka aukera sarrerak lortzeko". Ohiko bideak erabil daitezke erosteko: *www.arrasate.eus* udal webgunean, Kutxabank-en, Amaia Udal Antzokiko leihatilan eta *ozenkielkartea@hotmail.es* helbidera mezua bidalita eskura daitezke. Prezioa 30 euro da.



# Trikitiaz gozatuz, harrobia indartuko dute hilaren 17an Oñatiko VII. Trikiti Egunean

## Arratsaldean kontzertua izango da Santa Anan eta gauean, berriz, afalosteko erromeria gaztelekuan

MAIALEN TORRES | OÑATI

Datorren zapatuan ospatuko dute Oñatin VII. Trikiti Jaialdia. Oso egitarau berezia prestatu dute aurten Santa Anako kontzerturako, eta sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko. Hamabi eurotan eskura daitezke Arrano eta Izarraitz tabernetan emanaldi bezperara arte, baita *lizargarateelkartea@gmail.com* helbidera idatzita ere. Antolatzaileek herriko zein kanpoko jende asko espero dute eta sarrerak lehenbailehen erostea gomendatu dute.



Irati Gutierrez iazko Trikiti jaialdian. | IMANOL SORIANO

Zazpi trikitilari talde izango dira oholtza gainean, eta hiruna pieza joko dituzte. Ekimen horren bitartez, Lizargarate elkarteak trikitia herrian zabaltzea du helburu. Bide batez, gainera, herriko trikitilariek euren burua ezagutarazteko tartea izango dute, eta, era horretan, herriko harrobia indartu nahi dute.

Horren erakusle da Santa Anako kontzerturako prestatutako programa. Ane, Amaia eta Irati trikitilari oñatiar gazteek irekiko dute emanaldia, eta trikiti eskolako irakasle diren Intxausti anai-arrebek eta Harkaitz Allurrek ere joko dute. Aurkezle lanak, berriz, trikiti eskolako umeek egingo dituzte. Dena den, Oñatitik kanpoko izen handiak ere izango dira Santa Anan; besteak beste, Korrontzi eta Mikel Markez. Gainera, harekin jotzeko zen Izer ezin izango da etorri, eta, hain zuzen, Andonegi arituko da haren ordez Astiasaran II.arekin batera.

Aipatzekoa da, baita ere, Trikizio taldeko Arakama eta Los Zopilotes Txirriaoseko Dorronsoro elkarrekin jotzen ikusteko lehen aukera izango dela datorren zapatukoa. Txikitatik elkarrekin oholtza gainean aritutako Mirari Azkuneren eta Zaloa Zenarruzabeitiaren kasuan, berriz, zazpi urteko geldialdiaren ondoren, Santa Anakoa izango da eskainiko duten lehen kontzertua.

### Gauean erromeria

Festak gaztelekuan jarraituko du iluntzean, 21:00etan afaria eta ondoren erromeria izango baita Elustondo anai-arrebekin.

Sarrerak bide beretatik lor daitezke martitzenera arte –20 eurotan–, baina erromeriara bakarrik joan nahi dutenek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

# Gandiaga topagunean 33 margolan izango dira ikusgai

M.T. | OÑATI

Bihartik aurrera, asteburu eta jaiegunetan, erakusketa berezia izango da Arantzazuko Gandiaga topagunean, 11:00etatik 14:00etara. Irailaren 12an 60 urte bete ziren Arantzazuko basilika berritu zenetik, eta urteurrenarekin batera ospatu zuten Xabier Alvarez de Eulateren omenezko hirugarren margolan lehiaketa ere. Bertan parte hartu zuten artisten 33 lanak izango dira, hain zuzen, erakusketaren protagonista.

Horien artean da Leticia Gaspar plentziarrarena, aurten berrikuntza gisa martxan jarritako arkitektura saria jasotakoa. Arkitekturaz gain, ordea, paisaiak ere pisu handia du margolanetan, hori baitzen aurtengo lehiaketaren gai nagusia.

Artista bakoitzak, gainera, gustukoen duen estiloan eta bere ikuspegitik irudikatu du Arantzazu. Besteak beste, hirugarren saria irabazi zuen Juan Jose Altunak zuri-beltzean, forma geometrikoak eta itzalak erabiliz, eman zion ukitu berezia Arantzazuko paisaiari.

Azaroaren 1a izango da erakusketa bisitatzeko azken eguna.

# Bernhard Marxen organo doinuak bihar Santa Marinan

M.T. | BERGARA

Joan den astean ekin zioten Organo Erromantikoaren Nazioarteko XVI. Zikloari, eta bihar egingo dute Bergarako kontzertu sortako bigarrena. Bernhard Marx organo-jotzaile alemaniarrak egingo du emanaldia, Santa Marina parrokian, 20:00etan.

Friburgoko Johanneskirche elizako organo-jotzaile titularra da Marx 1972az geroztik, eta bertako izen handiko Metzler organoa, hiru teklatu eta 50 jokoko dituena, haren gidaritzapean eraiki zuten. Era berean, organo-irakaslea ere bada, hiri horretako pedagogia akademian.

Bere kontzertuetan jatorrizko obren interpretazio zehatz bezain adierazkorrak egiteagatik da ezaguna, eta bihar, Johann Sebastian Bachen eta Louis Vierneren piezak joko ditu, besteak beste.

*Danseries de la Renaissance* joz hasiko du emanaldia, eta Noel Rawsthorne konpositore britainiarraren *Hornpipe Humoresque* obrarekin emango dio itxiera kontzertuari.

Gerturatzen direnek doan gozatu ahal izango dute organo-jotzaile alemaniarraren musikaz, baita datorren zapatuan Aritzeta abesbatzak eta Aitor Oleak eskainiko dutenaz ere.



Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga. | MAIALEN TORRES

Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga | Dantzariak

# "Urduri egon arren, oholtza gainean hazi egiten gara"

## Dantza bikote bergararrak "oso urte ona" darama eta punta-puntan dabil txapelketetan

M.T. | BERGARA

Julen Murgiondok eta Saioa Galarragak 2013an ekin zioten txapelketetan bikoteka dantzatzeari, euren lehen pausoak Moises Azpiazu dantza taldean egin ondoren. Hasieran bikote onenen mailara ez iritsi arren, iaz eta, batez ere, aurten, euren maila asko hobetu da. Azken urtean lehen hiru postuetan izan dira jokatutako txapelketa guztietan, eta txapel batzuk ere lortu dituzte.

**Zenbat orduz entseatzen duzue?**

J.M.: Astean, gutxienez, bi orduz. Entseguak ez dira oso luzeak izaten, baina bai intentsitate handikoak. Txapelketetan fandango eta arin-arin koreografia bana dantzatzen dugu, eta horiek entseatzen ditugu egunerokotasunean.

**Nola sortzen dituzue txapelketetarako koreografiak?**

S.G.: Gure irakasle Maite Lazkanorekin batera prestatzen ditugu. Hark pausoak proposatzen dizkigu, eta gustuko ditugunak aukeratzen ditugu koreografiarako. Horretaz gain, beste bikoteek txapelketetan dantzatzen dituzten pausoei ere begiratzen diegu. Ideiak hartzen ditugu hortik eta hiruron artean erabakitzen dugu zein aldaketa egin gure ukitua emateko.

**Ingurukoek nola hartzen dute zuen zaletasuna?**

S.G.: Nire kuadrillan gehienak izan dira noizbait dantzariak, eta gustuko dute eurek ere.

J.M.: Nire kasuan, kontrakoa da. Askotan esan didate dantza nesken kontua dela, baina lagunek animatu egiten naute.

**Azaroaren 29an Bergaran jokatuko den Euskadiko txapelketan izango zarete. Esperantzarik bai txapela lortzeko?**

S.G.: Horretarako lan handia egin beharko dugu, lehenik, eta gero, ikusiko dugu txapelketan zer gertatzen den.

**Zein da zuen indargunea?**

J.M.: Zalantzarik gabe, hanka fin eta indartsuak izatea. Txapelketetan oso garrantzitsua da abiadura eta bikotea parekatuta egotea, baina, batez ere, indarra ezinbestekoa da koreografia fin eta polit ikus dadin.

**Zer duzue hobetzeko?**

S.G.: Uste dut gehien landu behar duguna dantzarako dugun jokoa dela. Izan ere, garrantzitsua da gorputz osoarekin dantza egitea, ez hankekin bakarrik. Hori ondo landuta, gure onena emango dugu txapelketan.

**Txapelketako presioak uzten dizue dantzaz gozatzen?**

S.G.: Entseguetan sufritu egiten da, baina oholtza gainera, jendaurrera, baserritar jantzita igotzean, urduri egon arren, hazi egiten gara daukagun dena ematen dugu oholtza gainean.

J.M.: Irabazten denean berriro egiten da dantza, eta txapela soinean denean asko gozatzen da, baina aurretik bizi dugun tentsioa handia da.

**Jarraitzeko asmorik baduzue?**

J.M.: Bai; gainera, datorren urtean helduen mailara egingo dugu salto. Badakigu hasiera ez dela erraza izango eta ez ditugula oraingo emaitzak lortuko. Lehen urteak gogorrak izango dira, baina gogoz gaude.

**Txapelketako dantzaren etorkizuna nola ikusten duzue?**

S.G.: Mutil gutxik ematen dute izena, baina gogoz daudenak hartu, eta lagundu egin behar zaie aurrera egiten, aurrerantzean ere txapelketetarako bikoteak sor daitezen.

**"Garrantzitsua da gorputz osoarekin dantza egitea, ez hankekin bakarrik"**



Arkauz izan zen Oñatiko Irazan gunearen bultzatzaileetako bat.

MAITE TXINTXURRETA

**Itziar Arkauz** | Irazan-eko kidea eta sortzailea

# "Antzerkia terapia bat bezala da niretzat, eskape bat bezala, eta ni neu naizela sentitzen dut"

**MAITE TXINTXURRETA** | OÑATI

Itziar Arkauz (Oñati, 1998) erizaina da, eta Eskoriatzako adinduen egoitzan dihardu lanean. Baina ez hori bakarrik; antzerkia da Arkauzen zaletasun handietako bat, eta Oñatiko Eltzian kokatutako Irazan antzerki-gune berria sortzeko ideia izan zuen Josu Zubiarekin batera. Bestalde, boluntario dabil Gurutze Gorrian. Denetarik egitea gustatzen zaio oñatiar horri, eta beti dabil alde batetik bestera.

**Noiz hasi zinen antzerkian?**

Benetan hasi duela bizpahiru urte hasi nintzen, Potx eta Motx pailazoekin batera Miope pertsonaia jokatzen. Haiek proposatu zidaten eta animatu egin nintzen. Hala ere, betidanik gustatu izan zait, beti izan naiz-eta *zoro* samarra. Inoiz ez dut izan antzerki talde baten-edo aritzeko aukerarik, baina sortu izan zaizkidan aukera puntual guztietarako prest egon naiz beti.

**Irazanen bultzatzaileetako bat izan zinen. Nola sortu zen ekimena?**

Potx eta Motx-en proiektua bukatu zenean, Josu Zubia eta biok horrekin lotutako zerbait egiteko gogoz geunden, eta esan genuen: "Zergatik ez egin antzerkiarekin lotutako zerbait?". Orduan, beste antzerki talde batzuekin harremanetan jarri ginen, eta hor hasi zen dena.

**Ikasturte honetarako jende ugari batu zarete Irazanen. Erronka handia da zuretzat?**

Egia esan, bai. Hasieran, uste genuen hamar bat pertsona elkartuko ginela, asko jota. Ez genekien Oñati bezalako herri baten zelako erantzuna izango zuen antzerki talde bat sortzeak. Esango nuke horrelako gauzetarako hemen beti izan garela nahiko lotsatiak. Baina, egia esan, oso erantzun ona izan du ekimenak. 40 pertsona apuntatu dira, guztira, eta jende askok galdetzen digu horri buruz kalean.

Horrenbeste jende apuntatu izanak gauza asko berriro ere planteatzea eskatzen du, baina oso pozik gaude, hala ere.

**Haurren eta gaztetxoen talde bat eta helduen beste bat dauzkazue Irazanen. Helduak lotsatiagoak dira?**

Egia esan, etorri diren helduek oso jarrera ona daukate zentzu horretan, eta ez diet lotsa handirik igarri, parte hartzeko gogo handia daukate eta. Desberdintasun bat aipatzearren, umeak edozer gauza egiteko prest daude, eta helduek beste printzipio batzuk dituzte eta gauza batzuk egitea gehiago kostatzen zaie.

**Ze motatako jendea zabiltzate Irazanen?**

Guztiok afizio bera dugu, hau da, antzerkia, baina elkarren artean oso desberdinak gara guztiok, eta hori ikusi egiten da. Mota guztietako jendea dago. Herriko xelebreenak batu gara bertan.

**Zer ematen dizu zuri antzerkiak?**

Eskape bat bezala da, eta horretan nabilenean denarekin ahazten naiz. Antzerkia terapia bat bezala da niretzat. Lasai nago, eta ni neu naizela sentitzen dut.

**Betebehar bat izatetik urrun dago, beraz.**

Bai, bai. Oso urrun. Gainera, proiektuaren bultzatzaileetako bat izanda, betebehar asko izan ditut, lan handia egon baita Irazanen atzean. Baina lan hori oso gustura egin dut. Ordenagailuaren aurrean orduak pasatu behar banituen ere, ez zitzaidan axola.

**Antzerki-gune bezala planteatu duzue Irazan. Zein desberdintasun daude antzerki-gune baten eta antzerki-eskola baten artean?**

Guk gura genuena zen eskola zentzu hori galtzea. Gu Irazanera ez goaz antzerkia erakustera, baizik eta denon artean ikastera.

**Gurutze Gorrian boluntario aritzen zara.**

Bai; iaz abuztuan hasi nintzen. Erizaina izanik, gustatzen zaidan zerbait da, eta, nire osaba ere aspalditik han dabilenez, ba, ni ere bai. Batez ere, zapatuetan-eta ibiltzen naiz hor.

**Izaten duzu zuretzako denborarik?**

Ba, oso gutxi, egia esan. Egunak 26 ordu izango balitu, hobeto ibiliko nintzateke... eta, agian, orduan ere justu! Baina, bueno, nahiko ondo daroat; izan ere, dena da organizatzen jakitea.

## PERTSONALA

**Gustuko duzun antzerki obra bat:** *Ni naiz Hector, ni bakarrik!*

**Antzerki-genero gogokoena:** Komedia.

**Aktore bat:** Elena Irureta.

**Nora bidaiatuko zenuke?** Thailandiara edo Indiara. Asia hegoaldeak asko erakartzen nau.

**Oñatiko txoko maiteena:** Aitzulo.

**Liburu bat:** Garth Stein-en *The Art Of Racing In The Rain (El arte de conducir bajo la lluvia).*

**Antzezteko toki bat:** Kalea.

**Musika talde bat:** Berri Txarrak eta Dido.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** 65 metro koadroko etxebizitza salgai Arruriaga kalean. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 943 76 93 85

**Bergara.** Aukera ona. 65 metro koadroko etxebizitza salgai prezio onean. Zabalotegi kalean. Bigarren solairua. Hiru logela eta egongela. 605 72 38 97

**Oñati.** Ugarkalde auzoan babes ofizialeko etxebizitza salgai garaje eta trastelekuarekin. Sukaldea, hiru logela, bi komun eta egongela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 79 06 93

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uribe auzoan. 680 58 01 27

**Bergara.** Martokua 14an, beheko solairuan, etxebizitza ematen da errentan. Hilean 450 euro. Derrigorrezkoa da nomina izatea. 675 70 68 07

**Leintz Gatzaga.** 99 metro koadroko duplex xarmagarria salgai edo errentan Leintz Gatzagan. Distribuzio irekia. Bi komun eta hiru logela. Beheko sua eta trastelekua. 615 00 67 21 (Alberto)

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzo auzoan. Toki oso eguzkitsuan. Jantzia. Harremanetarako deitu telefono honetara: 687 00 54 79

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote gazte batek etxebizitza errentan hartuko luke Arrasaten, jantzia eta ekonomikoa. Kontratua ezinbestekoa. 606 66 80 21

**Arrasate.** Etxebizitza jantzia behar dut errentan, erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. Presazkoa da. 627 60 49 99

**Arrasate.** Familia batek etxebizitza behar du errentan. Gutxienez bi logelakoa. 610 67 45 15

**Baserri bila.** Baserria errentan hartuko genuke urtarriletik aurrera. Bailaran edota Durangaldean izan daiteke. 653 71 78 82 (Amaia)

**Bikote gaztea errenta bila.** Bergarako bikote bat gara eta etxebizitza bat errentan hartuko genuke. Deitu arratsaldez. 678 47 43 54 edo 943 76 50 97

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Grupo San Juanen. Pertsona bakarra bada, hobeto. 691 28 53 25 edo 627 24 62 76

**Logela bila.** Debagoienean edo Debabarrenean pertsona batendako logela behar dut errentan. Errolda agiriarekin. 631 29 77 31

**Pisukide bila.** Iepa! Logela bat libre daukagu. Errenta 185 euro da. Zubieta kalean, terraza eta guzti. Animatu!. 605 74 78 29

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje itxia salgai Bolun. 24.000 euro. 943 76 93 85

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia alokatzen da Santa Kurtz 24an, Lezaman. Hilean 60 euro. Harremanetarako deitu zenbaki hauetara: 647 08 00 16 edo 666 20 19 92

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan. 669 90 95 95

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**TXIMAK**
Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
Tel.: 943 79 83 64

**Umeak zaintzeko.** Neska euskaldun bat behar dugu bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Lanaldi erdia eta goizez. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 652 71 74 49

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. Interesatua egonez gero deitu telefono hauetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Arrasate.** Arrasateko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. 667 90 50 49

**Arrasate.** Arratsaldetan, orduka, nagusiak zainduko nituzke. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 622 24 86 64

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. Urte askotako esperientzia dut laguntza lanetan. Orduka, astelehenetik ostiralera lan egingo nuke. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 607 72 75 61 (Bego)

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, bertako jendearekin. Kontratuarekin. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 647 28 92 34 (Fausto)

**Arrasate.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat eta hiru urtez nagusiak zaintzen aritu izanaren egiaztagiri eta erreferentzia onak. Bestela, eraikuntzan ere lan egingo nuke. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 678 25 95 46

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke garbitzen, tabernan eta abarretan. 691 28 53 25

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntzako ikaslea, esperientziaduna, arratsaldez ume bat zaintzeko gertu. Informazio gehiagorako deitu zenbaki honetara: 645 70 23 37

**Bergara.** Bergarako emakumea arratsaldetan nagusiak paseatzera ateratzeko gertu. Bost euro orduko. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 628 54 02 41

**Bergara.** Bergarako neska bat naiz. Haur hezkuntzako ikaslea. Aurtengo ikasturtean arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 618 36 80 60 (Ane)

**Bergara.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 631 33 83 75 (Hilda)

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Aranerreka 79m2, 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 159.850 €
- Aranerreka 87m², 3 logela, trasteroa. Garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 110.000 €
- Aranerreka 90m², 3 logela, trasteroa. PREZIO JEITSIERA. 129.000 €
- Koldo Eleizalde, 76m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€ NEGOZIABLEA.
- Bolun 129 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 95.000 €. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Elelizalde 87m², 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztuta. 210.000€
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000 €
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 225.000 € PREZIO JAITSIERA.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €
- Zubieta 110 m², 3 logela. Ortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekua. Berria estrenatzeko. 150.000 €
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.8

**ANGIOZAR:**
- Duplexa 170 m², Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Borda 70m². Lur sailak, zuhaitzak eta pinudiarekin. Ingurua ondo prestatuta. 90.000 €
- Baserria 233m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000 €
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 242.050€
- Beheko Auzoa 57 m2. 2 logela. Oso ondo. 97.000€
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**Bergara.** Emakume arduratsua, informe onak dituena, gertu garbiketa lanetan aritzeko. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 696 27 25 34

**Debagoiena.** Arrasateko neska euskalduna prest etxeko lanak egiteko eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 634 81 54 93

**Debagoiena.** Arrasaten bizi eta pertsona nagusien eta umeen zaintzan esperientzia duen emakumea naiz. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Umeei ingelesa ere irakatsi diezaieket. Ordutegi aldetik inongo arazorik gabe. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 602 16 00 28

**Debagoiena.** Astean zehar, 10:00etatik 16:00etara bitartean, nagusi edo umeak zaindu eta enkarguak egin, jatekoak prestatu, garbiketak egin eta abarrak egingo nituzke. Esperientziaduna. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 634 26 10 92

**Debagoiena.** Bertako mutila gertu margotzen, tabernari edo nagusiak zaintzen jarduteko. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 697 88 35 62

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen gizona gertu nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Erabateko prestutasuna. 631 17 16 35

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak orduka zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Garbiketan edo ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 634 26 10 92

**Debagoiena.** Gertu nago garbiketa lanetan jarduteko: etxe, atari, lantegi eta abarrak. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 632 77 35 38 edo 645 72 92 87

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izanda nagusiak zaintzeko. Garbiketak edo tabernari lanak ere egingo nituzke. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 685 64 85 64

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 642 03 51 84

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Soldatzen eta tailerretan ere aritutakoa naiz. Autoa daukat. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 697 98 31 30 (Victor)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo etxe, lantegi eta abarren garbiketak egiten lan egingo nuke. 631 15 76 23

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukalde laguntzaile arituko nintzateke. Esperientzia dut arrandegi eta harategian. 675 58 75 21

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna nagusi eta umeak zaintzeko gertu. 609 18 87 32 (Paola)

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onak dituena, lanerako gertu. Nagusi eta umeak zaintzen edota etxeko lanak egiten arituko nintzateke. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 688 85 44 78 edo 631 49 94 96

**Debagoiena.** Neska arduratsua, lege paperak dituena, gertu nagusiak zaindu, garbiketak egin zein sukaldean aritzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska arduratsua, lege paperak eta gida baimena dauzkana, gertu zaintza lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egunez eta baita ordezkapenak egiten ere. Ile-apaintzaile eta sukaldean ere aritu naiteke. 631 78 42 27

**Debagoiena.** Neska euskalduna, erizain laguntzaile titululduna, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketak egin eta nagusiak zaintzeko. 632 83 51 04

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko, garbiketak egiteko zein sukaldean laguntzeko. Erreferentzia onak ditut. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak, sukaldari zein tabernari. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Neska lan bila. Esperientzia dut jangelako zerbitzari moduan, etxe, atari eta abarren garbiketan eta tailerrean. 616 09 37 90 (Eva)

**Debagoiena.** Neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izanda zein orduka. 697 86 49 00

**Debagoiena.** Pertsona nagusiei laguntzen lan egingo nuke: bazkari-afariak gertatu, etxeko lanak egin, enkargu edo medikuarengana lagundu, paseatzera eta abar. Bertako bazkaria egiten badakit. Sukaldaria naiz. Esperientziaduna. 635 28 38 11

**Emakume euskalduna.** Emakume euskalduna atariak, lokalak, tabernak , etxeak eta abarrak garbitzeko prest. Baita partikularrei etxea txukundu eta janaria prestatzeko gertu. 605 74 03 00 edo 943 76 06 10

**Emakume euskalduna.** Emakume euskalduna garbiketak egiteko prest: atariak, tabernak, etxe partikularrak eta abar. Eskarmentua nekazaritza turismoko lanetan: logelak atondu, gosariak zerbitzatu eta bestelakoak. 690 86 46 80

**Ile-apaintzailea.** Ile-apaintzaile eta estetizista lanerako prest Debagoienean. 605 72 64 43

**Lan bila.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko Antzuolan, Bergaran, Arrasaten zein Elgetan. Autoa daukat. 642 88 07 31

**Neska euskalduna umeak zaintzeko prest.** 24 urteko neska euskalduna, Arrasate eta inguruetan haurrak zaintzeko prest, goizez edo arratsaldez. Haur Hezkuntzako titulua eta eta esperientzia handia. 638 71 50 66 edo 943 79 88 58

**Zaintza eta garbiketa.** Arrasateko emakumea, etxeetan zein egoitzatan nagusien zaintzan 9 urte baino gehiagoko lan esperientziarekin, gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota etxe garbiketa lanak egiteko. 696 04 67 20 (Mirian)

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Oñati.** Bi neskari batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako eskola partikularrak emango dizkien norbait behar dugu. Batez ere matematikan eta fisikan. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 627 91 23 21

### 502. EMAN

**Bergara.** Kimika, fisika eta matematika eskola partikularrak ematen ditut. Batxilergo eta DBH mailatan. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 669 51 08 46

**DBH eta Batxilergorako eskola partikularrak.** Euskara, gaztelania, ingelesa eta oro har giza zientziak irakasteko esperientziadun irakasle oñatiarra, Debagoienean eskola partikularrak emateko gertu. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 695 71 21 95

**Eskola partikularrak.** 23 urteko gazte bergararra eskola partikularrak emateko prest. Kazetaritzan graduatua eta euskara, ingelesa eta frantses tituluduna. DBH 4. mailara arte emango nituzke eskolak. Interesatua egonez gero deitu telefono honetara: 628 52 43 72

## 6. MOTORRA

### 602. EROSI

**Autoa.** Bigarren eskuko autoa erosiko nuke. 645 00 56 81

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak opari.** Abuztuan jaiotako katakumeak ematen dira opari. 629 09 63 46 edo 660 92 70 71

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Lursaila.** Debagoienean lursaila erosiko nuke bertan borda eta ortua jartzeko. Ahal bada, sarbidearekin eta urarekin. 646 36 68 02

### 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Urrezko eraztuna topatu zen Iralabarri plazako garajeen inguruan irail bukaeran. 659 35 89 92

### 808. BESTELAKOAK

**Eskoriatza-Bergara joan-etorria.** Astelehenetik ostiralera Eskoriatzatik, Aretxabaletatik edo Arrasatetik Bergarara joan-etorria autoz egiten baduzu, bidaia gastuak konpartitu ditzakegu. Goizez joan eta arratsaldez bueltatzen naiz. Interesatuta bazaude, deitu telefono zenbaki honetara. Eskerrik asko. 627 08 84 62

**Igeriketa talde trukaketa Oñatin.** Dordoka mailako F1.6 taldea (astelehena-astezkena, 18:30etik 19:15era) ondoren aipatzen ditudan taldeetako batekin trukatuko nuke: F 2.6 taldea (asteartea-osteguna, 18:30etik 19:15era), F 2.4 taldea (asteartea-osteguna, 17:45etik 18:30era) edo F 2.1 taldea (asteartea-osteguna, 17:00etatik 17:45era). Norbait aipaturiko talde trukaketetako baten bat egitean interesaturik balego, deitu dezala 657 73 10 42 telefonora edo idatzi eposta bat anixe2009@gmail.com helbidera.

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Gabriel Kortabarria Ali**
Urriaren 15ean urtebete. Zorionak, maittia! Asko-asko maite zaitugu. Patxo piloa zure familixa osoaren partetik.



OÑATI
**Urko Ugarte Elorza**
Urriaren 14an, 4 urte. Zorionak. Familia danaren partetik.



ARRASATE
**Nora Garcia Alvarez**
Urriaren 14an, 4 urte! Zelan pasatzen dan denbora! Muxu handia familiaren partetik. Oso ondo pasatu eguna.



BERGARA
**Aratz Arabaolaza**
Urriaren 13an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna. Bederatzi patxo potolo Ibairen, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
**Jon Gonzalez Urzelai**
Urriaren 12an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ANTZUOLA
**Alazne Ezkurra Alonso**
Urriaren 12an, 6 urte. Zorionak, maitxia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Besarkada eta patxo handi bat etxeko danen eta, batez ere, Noraren partetik.



BERGARA
**Ion eta Udane Unamuno**
Zorionak, bikote! Gure sorgintxuak urriaren 11n, dagoeneko 4 urte eta aitatxok 21ean, ... Ondo pasatu zuen egunian. Muxu potolo bat.



OÑATI
**Beñat Arregi Unamuno**
Urriaren 11n, 4 urte. Zorionak zure urtebetetzean eta ondo pasatu! Familia guztiaren partetik.



ARRASATE
**Aratz Garcia del Fresno**
Urriaren 11n, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu bana, Maddiren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Izaro Esnaola**
Urriaren 10ean, 2 urte. Zorionak etxeko txikiari bere bigarren urtebetetzean, etxeko guztien partetik. Patxo mordoa!



OÑATI
**Aimar Iturricastillo Telleria**
Urriaren 9an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, Aimar. Oso ondo pasatu zure egunian, familixako danon partetik.



BERGARA
**Asier Barbero**
Urriaren 9an, 2 urte. Zorionak anaia Beñaten eta amama Begoren partetik!



BERGARA
**Martin Gabilondo Larrañaga**
Urriaren 9an, 2 urte. Zorionak, mutil eder! Patxo handi-handi bat Elixabeteren eta familixa guztiaren partetik.



BERGARA
**Haizea Ayastuy**
Urriaren 9an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Ailegatu da azkenean seigarrena ere! Primeran pasatu zure urtebetetze eguna eta jaso zakukada bat patxo, maite zaitugun guztion partetik.



OÑATI
**Enaitz Garcia Diosdado**
Urriaren 9an, 7 urte. Zorionak zure urtebetetzean. Ondo-ondo pasatu, familia guztiaren partetik.



ARRASATE
**Rafa Maria Martin**
Urriaren 8an, 49 urte. Zorionak, aitatxo! Ziur gaz aurten egun zoragarria igaroko dozuela Sevilla eta Cordoba aldetik. Primeran pasatu eta bueltan ospatuko dogu berriz ere. Besarkada handi bat bialtzen dotsugu etxeko danok, eta marrubizko txokomuxuak Anerren eta Unaxen partetik.



ESKORIATZA
**Ibai Sanz Eraña**
Urriaren 8an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Intza Goikoetxea Lopez**
Urriaren 7an, urtebete. Zorionak, printzesa! Konturatu orduko urtebete. Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik.Pa!



OÑATI
**Arhane Katarain**
Urriaren 7an, urtebete. Zorionak, maittia! Urtetxo bat bete dau gure etxeko txikiñak! Patxo handi-handi bat etxeko danon eta, bereziki, Ekaintxoren partetik.



ARRASATE
**Jon Rodriguez Baena**
Urriaren 6an, 4 urte. Zorionak, gaiztotxo! Primeran pasatu zure urtebetze eguna eta formala izan! Muxu handi bat familiaren partetik.



BERGARA
**Ibai Gallastegi Akizu**
Urriaren 5ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Jada 9 urte! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta gol asko sartu. Muxu handi bat familia guztiaren partetik. Muak!



ARETXABALETA
**Julen Garcia Sanchez**
Urriaren 5ean, 6 urte. Zorionak, *pistolero*! Heldu da zure eguna. Muxu handi bat denon partetik, laztana. Asko maite zaitugu. Ondo pasatu!



ARETXABALETA
**June Iturbe Etxeandia**
Urriaren 4an, 4 urte. Mila muxu etxekoen partetik!



BERGARA
**Arhane Elkoro Urzelai**
Urriaren 3an, urtebete. Zorionak, maitia! Patxo goxo-goxuak zuretako, eder hori.



OÑATI
**Sara arenaza**
Urriaren 3an, 3 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta mila muxu zuretako!



OÑATI
**Oihane Lezeta Urkia**
Urriaren 8an, 21 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo handi bat familixa danaren partetik!



OÑATI
**Eneko Ugarte Kortabarria**
Urriaren 3an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat familixako danen partetik. Ondo pasatu zure egunian!



OÑATI
**Libe Idigoras Garcia**
Urriaren 3an, 3 urte. Zorionak, Libe! Jada 3 urtetxo egin dituzu. Primeran pasatu zure egunian! Patxo eta besarkada handi bat aitatxoren eta amatxoren partetik, txapelduna!



ESKORIATZA
**Jon eta Alain Nuno**
Jonek 36 urte urriaren 2an eta Alainek urtebete, 3an. Zorionak, bikote. Ederto pasatu eta belarri tirakada handi bana, etxekoen partetik.



BERRIZ
**Zoe Balseda Segovia**
Urriaren 1ean, 5 urte. Beti bezain sorgin jarraitu. Patxo handi bat, izeben partetik.



ESKORIATZA
**Saioa Uribe Barandiaran**
Urriaren 1ean, 13 urte. Egunik ederrena zuretzat! Ondo pasatu, pinguino!



ARRASATE
**Iñigo eta Ander Zabalo**
Iñigok 40 urte, urriaren 1ean eta Anderrek 2 urtetxo, urriaren 2an. Zorionak, bikote! Marrubi kolorezko muxuak Izaroren eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Anartz Arregi Camino**
Urriaren 1ean, 4 urte. Zorionak, Anartz! 4 urte! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo pila-pila bat Oxelen, Maialenen eta Agerren partetik.



ARRASATE
**Alex Axpe Rodrigo**
Irailaren 28an, 2 urte. Zorionak, maitti. Jadanik 2 urtetxo gure bizitza pozten. Mila muxu etxekoen partetik eta muxu potolo berezi bat Haizearen partetik. Asko maite zaitugu.



BERGARA
**Martin Lete Davila**
Irailaren 25ean, 13 urte. Zorionak, txapeldun, familia guztiaren partetik!

ZORION AGURRAK TELEBISTAN
GOIENA TELEBISTA | KORAPILO
ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 | MADDIK AURKEZTUA

25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
goiena

## ASTEA GOIENAN


GOIENA

### Euskal kulturgintzari buruzko saio berria

Eguenean estreinatuko dute euskal kulturgintzari eta sorkuntzari buruzko *EKT* programa. Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean ekoiztutakoa da, eta lehenengo saioan Jon Sarasua aretxabaletarraren gogoetak entzun ahal izango dira.

**'EKT'**
Eguena, 22:00


JAGOBA DOMINGO

### 'Amaia DJ' saioa egubakoitzetan

Denboraldi berriarekin batera, bideoklipen saioak ordutegi berria estreinatu du: egubakoitzetan, 22:00etan. Ikus-entzuleek gustuko bideoklipak eskatu ahal izango dituzte 688 69 00 17ra *whatsapp*-ak bidalita edo Twitterren *@amaiadj*-ra idatzita.

**'Amaia DJ'**
Egubakoitza, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 9

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Jaiak: Oñatiko jaiak
**13:30** Onein
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Hurbilean
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Herri kirol txapelketa
**18:30** Berriak
**19:00** Jaiak: Oñatiko jaiak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Jaiak: Oñatiko jaiak
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

### ZAPATUA, 10

**10:00** Korapilo
**10:30** Zaindu zaitez
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Astea iruditan
**12:05** Er
**12:30** Elkarrizketa: Nafarroa Oinez
**13:00** Onein
**13:30** Ikusmira
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Jaiak: Oñatiko jaiak
**15:30** Zorion Agurrak
**15:35** Debagoiena zuzenean
**16:30** Astea iruditan
**16:35** Ertzak
**17:00** Korapilo
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Ikuskizuna: Igartzako dantzariak
**18:45** Ikusmira
**19:00** Debagoiena zuzenean
**20:00** Astea iruditan
**20:05** Muga barik
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Jaiak: Oñatiko jaiak
**22:00** Debagoiena zuzenean
**23:00** Astea iruditan
**23:05** Amaia DJ
**23:30** Jaiak: Oñatiko jaiak
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:30** Astea iruditan
**01:35** Artekale
**02:30** Amaia DJ
**03:00** Astea iruditan

### DOMEKA, 11

**10:00** Korapilo
**10:30** Debagoiena zuzenean
**11:30** Astea iruditan
**11:35** Ikuskizuna: Igartzako dantzariak
**12:15** Ertzak
**12:45** Ikusmira
**13:00** Debagoiena zuzenean
**14:00** Astea iruditan
**14:05** Amaia DJ
**14:30** Muga barik
**15:00** Binakako dantza txapelketa
**15:45** Josetxo Imaz memoriala
**16:30** Debagoiena zuzenean
**17:00** Astea iruditan
**17:00** Korapilo
**17:30** Erreportajea: Kilometroak 15
**18:00** Hurbilean
**18:30** Muga barik
**19:00** Jaiak: Oñatiko jaiak
**20:00** Lurrean bizi
**20:25** Zorion Agurrak
**20:30** Debagoiena zuzenean
**21:30** Astea iruditan
**21:35** Erreportajea: Kilometroak 15
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Jaiak: Oñatiko jaiak
**23:30** Debagoiena zuzenean
**00:15** Josetxo Imaz memoriala
**00:30** Astea iruditan
**00:35** Artekale

### ASTELEHENA, 12

**10:00** Korapilo
**10:30** Amaia DJ
**11:00** Jaiak: Oñatiko jaiak
**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Korapilo
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Binakako dantza txapelketa
**15:15** Zaindu zaitez
**15:45** Hurbilean
**16:15** Onein
**16:45** Josetxo Imaz memoriala
**17:15** Ikuskizuna: Igartzako dantzariak
**18:00** Erreportajea: Kilometroak 15
**18:30** Jaiak: Oñatiko jaiak
**19:30** Muga barik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**21:00** Hurbilean
**21:30** Binakako dantza txapelketa
**22:15** Zaindu zaitez
**22:45** Debagoiena zuzenean
**23:45** Muga barik
**00:45** Debagoiena zuzenean

### MARTITZENA, 13

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Josetxo Imaz memoriala
**13:00** Onein
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:00** Zaindu zaitez
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Hurbilean
**17:30** Ur eta lur
**18:00** Lurrean bizi
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Hurbilean
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Muga barik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Hurbilean
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### EGUAZTENA, 14

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Muga barik
**13:00** Korapilo
**13:05** Onein
**13:30** Erreportajea: Iraila, piperra
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Elkarrizketa: Nafarroa Oinez
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**17:30** Elkarrizketa: Nafarroa Oinez
**18:00** Zaindu zaitez
**18:20** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Lurrean bizi
**19:30** Muga barik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Osoko bilkura: Arrasate
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**00:00** Muga barik
**00:00** Muga barik
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

### EGUENA, 15

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Osoko bilkura: Arrasate
**13:30** Onein
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Erreportajea: Iraila, piperra
**15:30** Ertzak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Lurrean bizi
**17:30** Zaindu zaitez
**18:05** Ur eta lur
**18:30** Berriak
**19:00** Osoko bilkura: Arrasate
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** EKT
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Euskadi Irratiko albistegiak 107.7an entzungai

Astelehenetik egubakoitzera bitartean, 08:00etan eta 13:00etan Euskadi Irratiko albistegiak entzuteko aukera izango da Arrasate Irratian. Beraz, *Igo autobusera!* ohiko irratsaioaz eta musikaz gain, Euskadi Irratiko albistegiak ere entzun ahal izango dira 107.7an eguneroko berriak jasotzeko.

### Zinemarako eta antzerkirako sarrerak hurrengo zozketan

Martitzenean abiatuko da datorren asteko *Igo autobusera!* irratsaioa, eta zozketan izango dira *Amama* pelikularako eta *Kreditua* antzerkirako sarrerak. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera. Hartu parte eta zorte on, entzule!

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 9** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Zapatua, 10** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Domeka, 11** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Astelehena, 12** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Martitzena, 13** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguaztena, 14** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Eguena, 15** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 9** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Zapatua, 10** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Domeka, 11** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Astelehena, 12** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Martitzena, 13** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguaztena, 14** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguena, 15** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 9** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 10** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Domeka, 11** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 12** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Martitzena, 13** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 14** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguena, 15** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK





### Pedro eta Josefina

Pedro Urtazak eta Josefina Ormazabalek urrezko ezteiak beteko dituzte urriaren 11n. "Elkarri lagunduz eta elkar asko maitatuz eman dituzue 50 urte hauek. Egunerokotasunean erakutsi diguzuen guztiagatik, eredugarriak zarete guretzat. Seme-alaben partetik, zorionak, bikote!".



### Fernando eta Elian

Fernando eta Elian zapatuan ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Lagunen eta familiaren partetik, "zorionak, ondo pasatu eguna eta ondo ibili eztei-bidaian".

URTEURRENA

## Paulino Manso Jauregi



2014ko urriaren 11n hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da,
urriaren 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2015eko urriaren 9an.**

URTEURRENA

## Julia Ugarte Igartua



Oñatin hil zen 2014ko irailaren 30ean, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
urriaren 10ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2015eko urriaren 9an.**

URTEURRENA

## Maria Teresa Madrid Zaballos



2014ko irailaren 30ean hil zen, 70 urterekin.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
urriaren 10ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2015eko urriaren 9an.**

OROIGARRIA

## Felix Berasaluze Axpe



2015eko urriaren 1ean hil zen.

*Gure albotik joan arren, beti gurekin izango zaitugu.*

**Etxekoak.**
**Aretxabaletan, 2015eko urriaren 9an.**

OROIGARRIA

## Julian Hernandez Dopeso



2015eko urriaren 2an hil zen, 38 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko*
*ez zaitugu inoiz galduko*
*gure bihotz barrenean*
*eramango zaitugu betiko.*

**Edurne zure emaztearen kuadrillakoak.**
**Oñatin, 2015eko urriaren 9an.**

ESKER ONA

## Eusebio Aramburu Olaizola



2015eko urriaren 1ean hil zen, 51 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Oñatin, 2015eo urriaren 9an.**

## HILDAKOAK

**Felix Berasaluze Axpe.** Aretxabaletan, urriaren 1ean.
**Eusebio Aranburu Olaizola.** Oñatin, urriaren 1ean. 51 urte.
**Julian Hernandez Dopeso.** Oñatin, urriaren 2an. 38 urte.
**Jose Inazio Etxebarria Ariznabarreta.** Arrasaten, urriaren 1ean. 65.
**Demetrio Alvarez Seoane.** Arrasaten, urriaren 2an. 89 urte.
**Rafael Juan Bilbao Bourgeaud.** Arrasaten, urriaren 3an. 63 urte.
**Maria Rosa Delgado Hernandez.** Arrasaten, urriaren 3an. 95 urte.
**Ciriaco San Macario Martin.** Arrasaten, urriaren 3an. 72 urte.
**Manuel Cid Cid.** Arrasaten, urriaren 5ean. 90 urte.
**Maria Josefa Arrizabalaga Urkidi.** Arrasaten, urriaren 5ean. 92 urte.
**Mertxe Agirre Otadui.** Antzuolan, urriaren 7an. 85 urte.

ESKER ONA

## Mertxe Agirre Otadui



Antonio Etxezarretaren alarguna

2015eko urriaren 7an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan
babesa eta gertutasuna
adierazi, hiletara etorri eta
gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada
handi bana, familiaren izenean.

*Neguan jaiotako*
*loratxo adoretsu,*
*udaberri ta udan*
*landare indartsu;*
*udazken epelean*
*hosto koloretsu.*
*Gure ama maittia*
*beti irripartsu.*

Zure seme-alabak
eta biloba-birlobak.

**Antzuolan, 2015eko urriaren 9an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



***maribi 617 44 21 55***
***BERGARA***

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Nerea eta Andoni

Nerea eta Andoni urtarrilaren 10ean ezkonduko dira Bergaran. Lagunekin eta familiartekoekin ospatuko dute eguna. "Parranda eta dantzarik ez da faltako, seguru egon! Eguna iristeko irrikan gaude. Besarkada eta muxu handi bana. Gora, bihotzak! Eta gora, zuek!".



### Jose Luis eta Milagros

Jose Luis Azkarate Zabarte eta Milagros Beitia Leon arrasatearrak orain dela 45 urte ezkondu ziren, urriaren 10ean. "Zorionak eta urte askotarako, aitaita eta amama! Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi biloben partetik".



### Pilar eta Eduardo

Pilar Zulaika eta Eduardo Urkia urriaren 9an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Zorionik beroena eta muxu handi bana zuen urrezko ezteietan, familia osoaren partetik, batez ere, Garazik, Iratik, Maddik, Eiderrek, Unaxek eta Gillenek.



### Jonathan eta Amaia

Jonathan Azkondok eta Amaia Alzelaik urriaren 10ean ospatuko dute euren ezkontza Zornotzako Boroa jatetxean. "Zorionak, bikote! Ederto pasatuko dugu eguna familia eta lagun giroan. Barreak eta dantzak ez dira faltako! Bidaia zoragarria izan dezazuela Zeelanda Berrian! Tokilloko familiaren eta kuadrillakoen partetik".



### Arkaitz eta Elisabeth

Arkaitz Lopez eibartarra eta Elisabeth Valladolid arrasatearra gaur, urriak 9, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Lankideen partetik, egun ona pasatu eta ondo ibili eztei-bidaian.

**ARETXABALETA Poxpolo Ta Konpainia pailazoak**
Poxpolo Ta Konpainia pailazoen istorio, jolas eta bihurrikeriekin ondo pasatzeko aukera izango dute neska-mutikoek. Esketxak izango dira protagonista Aretxabaletan egingo dituzten bi saioetan: 12:00etan eta 17:00etan, hain zuzen ere. Sarrerak, leihatilan, hiru eurotan.
Etzi, domeka, Arkupen, aipatutako orduetan.


GOIENA


GOIENA

**BERGARA Mendiko ganaduen azoka eta bestelakoak**
Behi, ardi, zaldi eta ahuntz azienda lehiaketak antolatuko dituzte eta ez dira faltako talo-egileak eta txorizo, gazta eta bestelako saltzaileak. Trikitilariak, bertsolariak, erromeria eta herri kirol jaialdia ere egongo dira.
Urriaren 12an, Elosu auzoan, egun osoan zehar.

## MUSIKA

**ARRASATE Lukas Prest**
Punk-rock eta hardcore doinu trinkoetan murgilduko du ikuslea Eskoriatzako laukoteak. Doan.
Gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 18:30ean.

**ARRASATE Jon Gurrutxaga**
Arima Beltza taldeko abeslaria izan ostean, bakarkako bideari ekin dio Gurrutxagak. *Hitz lauz* diskoa akustikoan aurkeztuko du. Doan.
Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 23:00etan.

**ESKORIATZA Andromines**
Rock eta pop doinuak dituen *Utopies del present* diskoa aurkeztuko dute kataluniarrek. Doan.
Bihar, zapatua, Inkernu tabernan, 23:00etan.

**ARETXABALETA Amaia Zubiria eta Edorta Amurua**
Zubiriaren ahotsa eta Amuruaren gitarra doinuak oholtza gainean. Sarrerak, lau euro.
Urriaren 15ean, Zaraian, 19:00etan.

**ARRASATE Midnight Scavengers**
Australiarrek gitarra zorrotzak, teklatuak, biolina, erdiko tenpoak, iluntasuna, dotoretasuna eta intentsitatea batzen dituzte euren eskaintzan. Sarrerak, bost euro.
Urriaren 15ean, gaztetxean, 22:00etan.

## ANTZERKIA

**BERGARA 'Vivir en Villa Titiritaina'**
Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi taldearen eskutik.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 17:30ean.

# NON-ZER

URRIA **9**
URRIA **15**

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

**ARETXABALETA 'Veranillo de un minuto'**
Leyre Abadia nafarrak idatzi, zuzendu eta interpretatutako antzezlanak hiru emakumeren istorioa kontatzen du. Emakume horiek gutun bat idatzi zuten gaztetan esanaz zelan ikusten zuten euren burua etorkizunean, eta orain, urteek aurrera egin ostean, gutun hori jaso dute bueltan. Sarrerak, lau euro.
Gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**BERGARA Mexicana Klandestina**
Mexikotik Euskal Herrira Elkartasun Festa egingo dute gaztetxean. Igualako ikasle desagertuen familiei laguntzeko dirua batuko dute.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan.

## BERTSOLARITZA

**ARRASATE Gipuzkoako txapelketa**
Final-zortzirenetako kanporaketa jokatuko da: Aratz Igartzabal, Egoitz Izagirre, Eneritz Artetxe, Felix Zubia, Haritz Casabal eta Iñaki Gurrutxaga oholtzan.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:30ean.



Aretxabaletako Udalari esker
Amaia Zubiria eta Edorta Amurua bikotearen emanaldia ikusteko sarrerak ditugu.
Zaraia aretoa. Aretxabaleta.
Urriaren 15ean, 19:00etan.

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [AmaiaZubiria] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA AmaiaZubiria [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba


## LITERATURA

**ARETXABALETA Ipuin kontaketa**
Vanessa Gonzalezek *Ganbarako ipuinak* saioa egingo du.
Bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean.

**ESKORIATZA Ipuin kontaketa**
Umeendako saioa.
Urriaren 14an, ludotekan, 18:00etan.

## GAZTELEKUAK

**ARRASATE 'Bat irabazteko' lehiaketa**
Parte hartzaileek hainbat erronka gainditu beharko dituzte.
Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

**ESKORIATZA Ping-pong eta mahai-futbol txapelketak**
Izena gaztelekuan eman beharko da. Finalak domekan jokatuko dituzte.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:30ean.

**BERGARA 'Gazte txef' lehiaketa**
Sukaldaritzan trebatzeko aukera. Hezitzaileek hamar osagai eman, eta gazteek lehenengo eta bigarren platerak egin beharko dituzte.
Bihar, zapatua, Xabaloten, 17:30ean.

**ARRASATE Askotariko ekintzak**
Mahai-jokoak, wii jokoak eta muralgintza lantzeko aukera egongo da, besteak beste.
Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

**ARETXABALETA Eskulanak**
Zapatuan eta domekan egingo dituzte.
Aipatutako egunetan, Xabaloten, 17:30ean.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Andaren eskulturak**
Brontzezko eta egurrezko bost eskultura ipini ditu Jose Ramon Andak ikusgai. Domeka da azken eguna.
Urriaren 11ra arte, Aroztegin.

**ANTZUOLA Iker Aizkorbe**
*Zazpi kolore* izeneko argazki erakusketa ipini du.
Urrian ikusgai, Aitz Garbi tabernan.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**
Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina.
Harresi aretoan ikusgai.

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Yoga y mente'**
Alfredo Iglesiasen hitzaldia, Oñatiko Yoga Eskolaren 25. urteurreneko ekitaldien barruan.
Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

**OÑATI 'El yoga en nuestros tiempos'**
Roman Agirreren hitzaldia, Oñatiko Yoga Eskolaren 25. urteurreneko ekitaldien barruan.
Urriaren 14an, kultura etxean, 19:00etan.

**ESKORIATZA 'Eguneroko bizitzarako hiriak nola pentsatu'**
"Gure hiri lur eta landa lurrak nola bizi eta nola eraldatu ditugun", hori azalduko du Koldo Telleriak. Adibideak emango ditu.
Urriaren 13an, Ibarraundin, 14:30ean.

**ARRASATE Alex Txikon**
2003tik gaur egunera arte izan dituen proiektuak, egin dituen espedizioak eta beste hainbat kontu izango ditu hizpide.
Urriaren 14an, kultura etxean, 19:00etan.

## BESTELAKOAK

**ELGETA Egoarbitza herri-basoa garbitzera**
Udalak deituta, boluntario taldea 08:30ean elkartuko da. Erremintak norberak eramatea eskatu dute. Hamarretakoa, Udalaren kontu.
Urriaren 12an, Mendizaleen plazan, 08:30ean.

**ELGETA Garbigune ibiltaria**
Salbador kaleko plazan egongo da garbigunea.
Urriaren 14an, Salbador kaleko plazan, 10:00etan.

## DEIA

**OÑATI Odol ateratzea**
Bereziki emaile berriei egiten diete dei Oñatiko taldekoek.
Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

**ARRASATE Herri Libreen Martxan**
Arrasateko Askapenak jakinarazi duenez, hilaren 12an autobusak egongo dira. Irati tabernan dago autobuserako izena emateko aukera. Langabeek bost euro ordaindu beharko dute eta langileek, berriz, hamar euro.
Urriaren 12an, Garibaiko geltokian, 09:00etan.

## IKASTAROAK

**ELGETA Dinamizatzailea KZgunean**
Herritarrei zuzendutako formazioa kultura etxeko bigarren solairuan.
Urriaren 14an, KZgunean, 16:00etan.

**BERGARA Keinu hizkuntza ikastaroa**
Bergarako Udalaren Gizarte Ongizate Sailaren laguntzarekin, Aransgik keinu hizkuntza lantzen hasteko ikastaroak egingo ditu. Izena emateko epea zabalik dago.
Izen-ematea, Aransgiren bulegoan.

**ELGETA 'Nordic walking'-a**
Bost orduko hastapen eta hobekuntza ikastaroa, Alfa teknikan oinarritua. Izena emateko: 943-76 66 61 telefonoa edo *antzuolakoudalgimnasioa@gmail.com* helbidea.
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

**BERGARA Dantza tradizionalak**
Plazako dantza tradizionalak landuko dituen ikastaroa. Hasiberrien eta sakontze taldeak. Ikastaroa azaroaren 3an hasiko da eta izena emateko azken eguna urriaren 23a da.
Izen-ematea, musika eta dantza eskolan.



GOIENA

**BERGARA Bernhard Marx organista**

Nazioarteko Organo Zikloaren bigarren kontzertua egingo du Alemaniako organistak. Kritikarien iritziz, hauek dira Bernhard Marxen ezaugarri azpimarragarrienak: birtuosismoa, musikologiako ikerketan oinarritzen den leialtasuna eta erregistro adierazkorra.

Urriaren 10ean, Santa Marinan, 20:00etan.

## IKUSKIZUNA

**ESKORIATZA Etxepare Rap**

Imanol Epelde literatura irakaslea da eta Etxepareren letrekin zortzi kantu eta bi bideoklip egin ditu, ikasleengana errazago helarazteko. Azken emanaldia egingo du Eskoriatzan.

Urriaren 15ean, Huhezin, 16:30ean.

## KIROLA

**DEBAGOIENA Arrasate-Oñati**

Zapatuan egingo dute 32. Arrasate-Oñati lasterketa (17:00). Izena emateko lekuak: *www.herrikrosa.eus* ataria edo Loramendi Intersporteko San Andresko denda. Izen-ematea: hamar euro.

Izen-ematea aipatutako lekuan.

**ARRASATE 'Mondran Bike'**

Urriaren 17an egingo dute mendiko bizikleta irteera. Izen-ematea egunean bertan egin beharko da Musakola kiroldegian.

Izen-ematea aipatutako lekuan.

**ELGETA Pilota txapelketa**

Eskuz binakako lau t'erdiko pilota txapelketan izena emateko azken eguna gaur, egubakoitza, da. Bi txapelketa jokatuko dituzte: 40 urtetik azpikoena eta 41 urtetik gorakoena. Izen-emateak udaletxean.

Izen-ematea, udaletxean.

## LEHIAKETAK

**ARAMAIO Kaleko margo lehiaketa**

Aramaioko Itur Zuri emakume taldeak kaleko margo lehiaketa deitu du, 24. aldiz. Teknika librea erabili ahal izango da eta edonork parte hartu ahal izango du. Lanak 14:00etan aurkeztu beharko dira kultura etxean. Irabazleak 700 euro jasoko ditu.

Urriaren 12an, kultura etxean, 09:00etan.






# ZINEMA

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**Ma ma**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Atrapa la bandera**
Domeka: 17:00.

## BERGARA

### ZABALOTEGI

**Home, hogar dulce hogar**
Domeka: 17:00.

**No confies en nadie**
Domeka: 19:30.

## OÑATI

### KULTURA ETXEA

**Everest**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Los Minions**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## EIBAR

### COLISEO

**Golpe de estado**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Reina y patria**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Regresion**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### ANTZOKIA

**Golpe de estado**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Vacaciones**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## GASTEIZ

### FLORIDA

**Atrapa la bandera**
Egubakoitzetik domekara eta astelehenetik eguenera: 16:40.
Zapatutik astelehenera: 12:00.

**Atico sin ascensor**
Egubakoitzetik eguenera: 18:30.

**Ciclos**
Martitzena: 20:00.

**Del reves**
Zapatutik astelehenera: 12:00.

**El coro**
Egubakoitzetik eguenera: 16:40, 20:30, 22:30.

**El desconocido**
Egubakoitzetik eguenera: 16:40.

**Hitman**
Egubakoitzetik eguenera: 16:40.

**Irrational man**
Egubakoitzetik eguenera 18:35.

**La playa de los ahogados**
Egubakoitzetik eguenera 16:40, 20:40, 22:30.

**Lejos de los hombres**
Egubakoitzetik eguenera 18:30, 22:30.

**Marco, Macaco y los primates**
Zapatutik astelehenera: 12:00.

**Pan, viaje a Nuca Jamas**
Zapatutik astelehenera: 12:00.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:30, 22:30.

**Regresion**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.
Egubakoitzetik astelehenera, eguaztena eta eguena: 20:00.

**Taxi Teheran**
Egubakoitzetik eguenera 19:00, 20:40, 22:30.

**Yo, el y Raquel**
Egubakoitzetik eguenera 18:30, 20:30, 22:30.

### BOULEVARD

**Pan, viaje a Nunca Jamas**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 19:00, 20:00, 22:15.
Zapatua, domeka eta astelehena: 15:30.

**Pan, viaje a Nunca Jamas 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 21:15.

**Golpe de estado**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Zapatua, domeka eta astelehena: 15:50.

**Regresion**
Egubakoitza eta zapatua: 23:15, 00:30, 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 18:00, 18:45. 19:45, 20:15, 21:00, 22:00, 22:35.
Zapatua, domeka eta astelehena: 15:45, 16:30.
Martitzena eta eguaztena: 18:45, 21:00.

**Hitman**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 20:30, 22:35.

**El corredor del laberinto**
Egubakoitza eta zapatua: 00:20.
Egubakoitzetik eguenera: 19:00, 21:40.
Zapatua, domeka eta astelehena: 16:20.

**El desconocido**
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Egubakoitzetik eguenera: 19:45, 21:45.

**Everest**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Everest 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 22:00.

**La visita**
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.
Zapatua, domeka eta astelehena: 15:45.

**Irrational man**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.
Zapatua, domeka eta astelehena: 15:30.
Martitzena eta eguena: 18:15.

**Anacleto: agente secreto**
Egubakoitza eta zapatua; 23:30.

**Los Minions**
Zapatua, domeka eta astelehena: 17:00.

**Del reves**
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 18:15.
Zapatua, domeka eta astelehena: 16:00.

**Pinocho y su amiga Coco**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Atrapa la bandera**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00.
Zapatua, domeka eta astelehena: 16:00.

# KRITIKA



**IRRATIONAL MAN** ★★★☆☆

**Zuzendaria:** Woody Allen.
**Herrialdea:** AEB.
**Urtea:** 2015.
**Aktoreak:** Joaquin Phoenix, Emma Stone, Parker Posey.
**Iraupena:** 96 minutu.

# Ezezagunaren erakargarritasuna

Allenen *Delitos y faltas*, *Match Point* eta *El sueño de Casandra*-rekin zerikusi handia du *Irrational man* filmak. Istorio horietan hilketa batek sortzen dituen aladurak eta gatazka moralak agertzen dira. Erlijioek eta gizarteak ezartzen dituzten ideiek eta aginduek markatzen dute gure izaera eta bizitzaren aurrean inposatzen ditugun arau moralak. Posible da Jainkoaren eta justiziaren zaintza, eta, horrekin batera, gure barruan ditugun balazta moralak gainditzea eta egindakoarekin pozik bizi izatea? Film horietan, pertsonaiek galdera horri ematen dizkioten erantzunak ikusten dira. Galdera edo gai hori New Yorkeko zuzendariaren azkeneko filmean agertzen bada ere, horren azpitik badira gizakien arteko harremanei buruzko ironiaz beteriko zenbait geruza. Sarritan aspertuta sentitzen gara gure bizitza arruntarekin eta aldaketak behar ditugu bizitzarenganako grina berreskuratzeko.

Newporteko unibertsitatera heltzen den Filosofiako irakaslea pertsona desorekatua da. Eskolak eman eta edan besterik ez du egiten. Baina, egun baten, bizitzari zentzua emango dion eginkizun bat aurkituko du. Bestalde, istorioan azaltzen diren emakumeak ez daude pozik euren bikotekideekin. Segituan, erakarrita sentituko dira, babes eta harrapakari sena nahastuz, irakaslearenganako duten ideia erromantikoarekin: artista atsekabetuarena, hain zuzen ere. Eta emakumeen agerpenek zeharo aldatuko dute istorioaren bidea eta irakaslearen bizitza atsekabetu baino lasaia: nork jartzen du belarria beste pertsona batzuen elkarrizketa entzuteko? Eta krimen perfektua okertzen joango da emakumeek euren artean gizonari buruzko gauza guztiak komentatzen hasten direnean. *Irrational man*-en, Allenen ezaugarri ezagunekin batera, Hitchcocken *Sospecha*, *Extraños en un tren* eta *La sombra de una duda* pelikulen eragina igartzen da.

ANTONIO ZABALA

**Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!**



Sirimirin prestatutako txanpiñoi beteak piper gorri emultsioarekin.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
*943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba

goiena

2015-10-09

BUKATZEKO

# Bergaran sortutako aplikazio erabilgarria

- Denbora errealean jarraipena egiten duen aplikazioa da eta Ander Orbegozo ikasleak asmatu du
- 'Live Tracking' du izena eta gainerako aplikazioak legez jaits daiteke telefonora; debalde, gainera

**MIRARI ALTUBE** | BERGARA

*Live Tracking* du izena Ander Orbegozo Igartua (Bergara, 1993) Informatika ikasleak sortu duen aplikazioak. Eta dagoeneko 200 deskargatik gora izan ditu Playstoren. Izan ere, edonoren eskura dago, ez du kosturik, eta oso aplikazio erabilgarria da.

**Mendi bueltetarako**

Informatika ikasketak egin ditu Donostian eta orain masterrarekin dabil buru-belarri. Gradu amaierako lana egin behar, eta halaxe hasi zuen Orbegozok proiektua: "Mapen gainean lan egin nuen aurretik, eta asko gustatu zitzaidan. Proiektuaren zuzendariak, hori jakinik, jarraipena egiten duten aplikazioen berri eman zidan, eta jakinarazi merkatuan daudenek hobetzeko asko dutela". Esan, lanean hasi eta egin. Eta gorengo nota jaso du trukean: "10a jarri didate", dio pozik. Irakasleak, gainera, aurretik zuen aplikazioa kendu eta bergarararrena jarri du.

Denbora errealean jarraipena egitea esan gura du *Live Tracking*-ek, eta horixe egiten du: "Mendira edo bizikletan ibiltzera joanez gero, esaterako, martxan jarri eta lagun edo senideren bati linka bidal diezaiokezu, eta haiek jakingo dute zein ibilbide zabiltzan egiten. Hala, arazoren bat izanez gero, non geratu zaren jakinean egongo dira", azaldu du Orbegozok. Horrez gain, zein ibilbide egin den ikusteko aukera ere eskaintzen du gero: "Egindako ibilbide horren gaineko informazioa gorde daiteke, beste aplikazio batzuek egiten duten legez", gaineratu du.



Ander Orbegozo esku artean telefonoa duela aplikazioarekin. | MONIKA BELASTEGI




Aplikazioaren irudia. | LIVE TRACKING

Norberak aukeratzen du informazioa zeinekin elkarbanatu gura duen: "Elkarbanatzeko botoia dauka eta Whatsappez, Twitter erabilita edo posta elektronikoz pasa dezakezu linka". Eta bi aukera daude: publikoa aukeratuz gero edonork ikus dezake; eta pribatua hautatuta, norberak aukeratutakoek bakarrik.

**Lehiaketara aurkeztua**

Playstore eta Amazon dendetara igo du aplikazioa: "Eta, bilaketa bat eginda, japoniarrez dagoen webgune batean ere badagoela ikusi dut. Playstoretik ikus dezaket herrialde bakoitzean zenbat instalazio izan dituen: %33 Espainian, %17 Alemanian, %10 AEBetan, %6 Indian eta gutxiago beste herrialde mordo batean".

Asmatutakoa Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako *GipuzkoAPPs 2015* lehiaketara aurkeztu du Orbegozok. Irailaren 18an itxi zuten lehiaketa, eta, orain, emaitzaren zain dago Bergarako gaztea.

Bien bitartean, aplikazioa hobetzen jarraitzeko asmoa du: "Ondo dago, baina oinarrizkoa da eta aukera gehiagorekin osatu gura dut".

AZKEN BERBA

**IDOIA ETXEBERRIA**



## Ez ikusia

Hong Kongen gertatu da. Mac Donalds batean. Emakume bat hil egin zen. Baina inor ez ei zen konturatu. Orduak igaro zituen mahai gainean botata. Eta inork txintik ere ez. 50-60 urte inguruko eskekoa zen.

Albisteari buruzko komentarioak: "Txinako gizartea nolakoa den erakusten du". "Gizarte deshumanizatua". "Txinatarrak, badakizu...".

Donostian gertatu zen. Zinemaldian. Gaueko bederatziak. Pelikula bat ikustera nindoan. Txinatarra, hain justu. Bidean, Kursaaletik 200 metrora, koltxoi bat zegoen lurrean. Eta bi pertsona, koltxoi gainean botata. Manta zahar batekin tapatzeko lanetan. 50-60 urte ingurukoak. Emakumea eta gizona. Kale gorrian bizi zirela zirudien.

Baina flashak beste toki batean zeuden. Kursaaleko alfonbra gorrian. Eta Maria Cristina hoteleko sarreran –justu ibaiaren bestaldean, parez pare–. Koltxoia lekuz kanpo zegoen glamourrezko mundu horretan. Filmetarako gai moduan bai. Pantailan ikusteko. Baina hain gordin, muturren aurrean...

Esnatu ez balira, zenbat denbora beharko genuke konturatzeko? Ikusi nahi ez duguna ez dugu ikusten. Ez hemen, eta ez Hong Kongen.

**2015eko urriaren 13tik aurrera, Arrasateko anbulatorioan, odola ateratzeko hitzordu-sistema aldatu egingo da. Hortaz:**

1. Odol-ateratzea **HITZARTUTAKO ORDUAREN ARABERA** zehaztuko da, eta EZ iritsiera orduaren arabera.
2. Odola ateratzeko, aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da. Ez da onartuko hitzordurik gabeko odol-ateratzerik.
3. Odola ateratzeko hitzordurik izan ezean, 943 03 52 50 deitu ahal izango da, eta hitzordua eskatu.

Osakidetza

Debagoieneko ESI

Nafarroa Etorbidea, 16 - Arrasate/Mondragon
Tel.: 943 03 53 01
http://www.osakidetza.euskadi.net